



ARABAKO ARTIUM FUNDAZIOA
URTEKO KONTUAK
2023KO EKITALDIA

ARABAKO ARTIUM FUNDAZIOA
BALANTZEA
2023KO EKITALDIA

AKTIBOA	ACTIVO	Oharra / Nota	2.022	2.023
A) AKTIBO EZ KORRONTEA	A) ACTIVO NO CORRIENTE		55.930.240,01	54.488.077,40
I. IBILGETU UKAEZINA 1. Garapena 2. Kontzesioak 3. Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak 4. Merkataritza funtsa 5. Informatika aplikazioak 6. Erabileran utzitako aktiboen gaineko eskubideak 7. Bestelako ibilgetu ukiezinak	I. Inmovilizado Intangible 1. Desarrollo 2. Concesiones 3. Patentes, licencias, marcas y similares 4. Fondo de comercio 5. Aplicaciones informáticas 6. Derechos sobre activos cedidos en uso 7. Otro inmovilizado intangible	8	3.033.996,21 4.795,11 3.021.158,17 8.042,93	1.518.799,85 20.043,09 1.490.985,73 7.771,03
II. ONDARE HISTORIKOAREN ONDASUNAK 1. Higiezinak 2. Artxiboak 3. Liburutegiak 4. Museoak 5. Ondasun higigarriak 6. Ondare Historikoaren gaineko aurrerakinak	II. Bienes de Patrimonio Histórico 1. Bienes Inmuebles 2. Archivos 3. Bibliotecas 4. Museos 5. Bienes Muebles 6. Anticipos sobre bienes del Patrimonio Histórico	6	39.362.972,32 39.362.972,32	39.894.884,54 39.793.225,00 101.659,54
III. IBILGETU MATERIALA 1. Lursailak eta eraikuntzak 2. Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materialak 3. Uneko ibilgetua eta aurrerakinak	III. Inmovilizado material 1. Terrenos y construcciones 2. Instalaciones técnicas y otro inmovilizado material 3. Inmovilizado en curso y anticipos	5	13.532.271,48 13.303.364,50 228.906,98	13.073.393,01 12.866.190,14 207.202,87
IV. HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK 1. Lurrak 2. Eraikuntzak	IV. Inversiones inmobiliarias 1. Terrenos 2. Construcciones	7	0	0,00
V. INBERTSIOAK TALDEKO ENTITATETAN ETA EPE LUZERA 1. Ondare tresnak 2. Erakundeentzako kredituak 3. Zorren balio adierazgarriak 4. Eratorriak 5. Beste finantza aktibo batzuk	V. Inversiones en entidades del grupo y asociadas a largo plazo 1. Instrumentos de patrimonio 2. Créditos a entidades 3. Valores representativos de deuda 4. Derivados 5. Otros activos financieros	10	0	0,00
VI. EPE LUZERAKO FINANTZA INBERTSIOAK 1. Ondare tresnak 2. Kreditua hirugarrenei 3. Zorren balio adierazgarriak 4. Eratorriak 5. Beste finantza aktibo batzuk	VI. Inversiones financieras a largo plazo 1. Instrumentos de patrimonio 2. Créditos a terceros 3. Valores representativos de deuda 4. Derivados 5. Otros activos financieros	10.1	1.000,00 1.000,00	1.000,00 1.000,00
VII. GERORATUTAKO ZERGEN AKTIBOAK	VII. Activos por impuesto diferido			
B) AKTIBO KORRONTEA	B) ACTIVO CORRIENTE		824.724,59	927.960,01
I. SALTZEKO MANTENDUTAKO AKTIBO EZ KORRENTEAK	I. Activos no corrientes mantenidos para la venta			
II. IZAKINAK 1. Jarduerarako diren ondasunak 2. Lehengaiak eta beste hornidura batzuk 3. Fabrikazio bideko produktak 4. Produktu bukatuak 5. Azpiproduktuak, hondarrak eta berreskuratutako materialak 6. Aurrerakinak hornitzaileei	II. Existencias 1. Bienes destinados a la actividad 2. Materias primas y otros aprovisionamientos 3. Productos en curso 4. Productos terminados 5. Subproductos, residuos y materiales recuperados 6. Anticipos a proveedores	14	85.788,06 73.138,04 12.650,02	87.103,23 78.825,64 8.277,59
III. BERE JARDUERAREN ERABILTZAILAK ETA BESTE ZORDUN 1. Jarduerarako diren ondasunak 2. Lehengaiak eta beste hornidura batzuk	III. Usuarios y otros deudores de la actividad propia 1. Usuarios, deudores 2. Patrocinadores, afiliados y otros deudores	11	154.480,89 10.980,89 143.500,00	74.456,17 2.456,17 72.000,00
IV. MERKATARITZAKO HARTZEKODUNAK ETA KOBRATU 1. Salmentengatiko eta zerbitzuengatiko bezeroak 2. Bezeroak, taldeko entitatetan eta epe luzera elkarturikoetan 3. Bestelako zordunak 4. Langileak 5. Zerga aruntan aktiboak 6. Administrazio Publikoekin beste kreditu batzuk 7. Bazkide sortzaileak, eskatutako ordainketen arabera	IV. Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar 1. Clientes por ventas y prestaciones de servicios 2. Clientes, entidades del grupo y asociadas 3. Deudores varios 4. Personal 5. Activos por impuesto corriente 6. Otros créditos con las Administraciones Públicas 7. Fundadores por desembolsos exigidos	11	248.664,77 8.038,74 0,00 240.626,03	379.119,57 27.651,05 0,00 351.468,52
V. INBERTSIOAK TALDEKO ENTITATETAN ETA EPE 1. Ondare tresnak 2. Erakundeentzako kredituak 3. Zorren balio adierazgarriak 4. Eratorriak 5. Beste finantza aktibo batzuk	V. Inversiones en entidades del grupo y asociadas a corto plazo 1. Instrumentos de patrimonio 2. Créditos a entidades 3. Valores representativos de deuda 4. Derivados 5. Otros activos financieros		0	0,00
VI. EPE MOTZERAKO FINANTZA INBERTSIOAK 1. Ondare tresnak 2. Erakundeentzako kredituak 3. Zorren balio adierazgarriak 4. Eratorriak 5. Beste finantza aktibo batzuk	VI. Inversiones financieras a corto plazo 1. Instrumentos de patrimonio 2. Créditos a entidades 3. Valores representativos de deuda 4. Derivados 5. Otros activos financieros	10.1	50,00 50,00	50,00 50,00
VII. EPE LABURRERAKO PERIODIFIKAZIOAK	VII. Periodificaciones a corto plazo	24	17.714,30	32.474,88
VIII. ESKU-DIRUA ETA ANTZEKO BESTE AKTIBO LIKIDOAK 1. Diruzaintza 2. Antzeko beste aktibo likido batzuk	VIII. Efectivo y otros activos líquidos equivalentes 1. Tesorería 2. Otros activos líquidos equivalentes		318.026,57 318.026,57	354.756,16 354.756,16
GUZTIRA AKTIBOA (A+B)	TOTAL ACTIVO (A+B)		56.754.964,60	55.416.037,41

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	PATRIMONIO NETO Y PASIVO	Oharra / Nota	2.022	2.023
A) ONDARE GARBIA	A) PATRIMONIO NETO		56.160.419,26	54.674.414,81
A-1) BEREZKO FUNTSAK	A-1) FONDOS PROPIOS	13	180.303,63	177.201,14
I. SORTZE DOTAZIOA/GIZARTE FUNTSA 1. Sortze dotazioa/Gizarte funtsa 2. (Eskatu gabeko sortze dotazioa/Eskatu gabeko gizarte funtsa)	I. DOTACIÓN FUNDACIONAL/FONDO SOCIAL 1. Dotación fundacional/Fondo social 2. (Dotación fundacional no exigida/Fondo social no exigido)		180.303,63 180.303,63	180.303,63 180.303,63
II. ERRESERBAK 1. Estatutuetakoak 2. Bestelako erreserbak	II. RESERVAS 1. Estatutarias 2. Otras reservas			
III. AURREKO EKITALDIETAKO SOBERAKINAK 1. Gerakina 2. (Aurreko ekitaldietako soberakin negatiboak)	III. EXCEDENTES DE EJERCICIOS ANTERIORES 1. Remanente 2. (Excedentes negativos de ejercicios anteriores)		-3.071,26 -3.071,26	0,00 0,00
IV. EKITALDIKO SOBERAKINA	IV. EXCEDENTE DEL EJERCICIO		3.071,26	-3.102,49
A-2) BALIO ALDAKETEN DOIKUNTZAK	A-2) AJUSTES POR CAMBIOS DE VALOR		0,00	0,00
I. SALTZEKO DAUDEN FINANTZA AKTIBOAK II. ESTALDURA ERAGIKETAK III. BESTE BATZUK	I. ACTIVOS FINANCIEROS DISPONIBLES PARA LA VENTA II. OPERACIONES DE COBERTURA III. OTROS			
A-3) JASOTAKO DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK	A-3) SUBVENCIONES, DONACIONES Y LEGADOS RECIBIDOS	21	55.980.115,63	54.497.213,67
B) PASIBO EZ KORRONTEA	B) PASIVO NO CORRIENTE		0,00	0,00
I. EPE LUZERAKO HORNIDURAK 1. Obligazioak langileei epe luzera emandako prestazioengatik 2. Ingurumen ekintzak 3. Horniketarak berregituraketagatik 4. Bestelako hornidurak	I. PROVISIONES A LARGO PLAZO 1. Obligaciones por prestaciones a largo plazo al personal 2. Actuaciones medioambientales 3. Provisiones por reestructuración 4. Otras provisiones			
II. EPE LUZERAKO ZORRAK 1. Obligazioak eta negozioa daitezkeen beste balore batzuk 2. Kreditu erakundeekiko zorrak 3. Hartzekodunak finantza errentamenduengatik 4. Eratorriak 5. Beste finantza pasibo batzuk	II. DEUDAS A LARGO PLAZO 1. Obligaciones y otros valores negociables 2. Deudas con entidades de crédito 3. Acreedores por arrendamiento financiero 4. Derivados 5. Otros pasivos financieros			
III. TALDEKO ENTITATE EDO ENTITATE ELKARTUEKIKO ZORRAK IV. GERORATUTAKO ZERGEN PASIBOAK V. EPE LUZERAKO PERIODIFIKAZIOAK	III. DEUDAS CON ENTIDADES DEL GRUPO Y ASOCIADAS A IV. PASIVOS POR IMPUESTO DIFERIDO V. PERIODIFICACIONES A LARGO PLAZO			
C) PASIBO KORRONTEA	C) PASIVO CORRIENTE		594.545,34	741.622,60
I. SALTZEKO MANTENDUTAKO AKTIBO EZ KORRONTEEKIN II. EPE LABURRERAKO HORNIDURA III. EPE LABURRERAKO ZORRAK 1. Obligazioak eta negozioa daitezkeen beste balore batzuk 2. Kreditu erakundeekiko zorrak 3. Hartzekodunak finantza errentamenduengatik 4. Eratorriak 5. Beste finantza pasibo batzuk	I. PASIVOS VINCULADOS CON ACTIVOS NO CORRIENTES II. PROVISIONES A CORTO PLAZO III. DEUDAS A CORTO PLAZO 1. Obligaciones y otros valores negociables 2. Deudas con entidades de crédito 3. Acreedores por arrendamiento financiero 4. Derivados 5. Otros pasivos financieros	10.2.2	8.028,52	11.401,28
IV. TALDEKO ENTITATE EDO ENTITATE ELKARTUEKIKO EPE V. ONURADUNAK-HARTZEKODUNAK VI. MERKATARITZAKO ARTZEKODUNAKETA ORDAINDU 1. Hornitzaileak 2. Hornitzaileak, taldeko entitate eta elkaturikoak 3. Hainbat hartzekodun 4. Langileak (ordaintzeko dauden ordainsariak) 5. Zerga arrunten pasiboak 6. Administrazio Publikoekin beste zor batzuk 7. Aurrerakinak	IV. DEUDAS CON ENTIDADES DEL GRUPO Y ASOCIADAS A V. BENEFICIARIOS - ACREEDORES VI. ACREEDORES COMERCIALES Y OTRAS CUENTAS A 1. Proveedores 2. Proveedores, entidades del grupo y asociadas 3. Acreedores varios 4. Personal (remuneraciones pendientes de pago) 5. Pasivos por impuesto corriente 6. Otras deudas con las Administraciones Públicas 7. Anticipos	12 12	559.709,82 0,00	703.414,32 508,20
VII. EPE LABURREKO PERIODIFIKAZIOAK	VII. PERIODIFICACIONES A CORTO PLAZO	24	26.807,00	26.807,00
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C)	TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO (A+B+C)		56.754.964,60	55.416.037,41

**ARABAKO ARTIUM FUNDAZIOA
EMAITZEN KONTUA
2023KO EKITALDIA**

SARREREN ETA GASTUEN KONTUA	CUENTA DE RESULTADOS	Oharra / Nota	2.022	2.023
A) ERAGIKETA JARRAITUAK	A) OPERACIONES CONTINUADAS			
1. Bere jardueraren diru-sarrerak a) Kide eta afiliatuen kuotak b) Erabiltzaileen ekarpenak c) Sustapen, babesle eta lankidetzen diru-sarrerak d) Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak e) Ekitaldiko soberakinari egotzitako dohaintzak eta legatuak f) Laguntzen eta diru-kopuruen itzulketa	1. Ingresos de la actividad propia a) Cuotas de asociados y afiliados b) Aportaciones de usuarios c) Ingresos de promociones, patrocinadores y colaboraciones d) Subvenciones imputadas al excedente del ejercicio e) Donaciones y legados imputados al excedente del ejercicio f) Reintegro de ayudas y asignaciones	17.1	4.160.176,42 15.721,00 19.362,19 382.000,00 3.743.093,23	4.358.828,22 14.546,00 17.405,62 378.412,50 3.948.464,10
2. Merkataritzako jardueraren baruko salmentak eta bestelako sarrerak	2. Ventas y otros ingresos de la actividad mercantil	17.2	92.185,88	103.194,53
3. Gastuak laguntza eta beste batzuegatik a) Diru-laguntzak b) Dirutan ematen ez diren laguntzak c) Lankidetzat gastuak eta gobernu organoarenak d) Diru-laguntza-itzultzea, dohaintzak eta legatuak	3. Gastos por ayudas y otros a) Ayudas monetarias b) Ayudas no monetarias c) Gastos por colaboraciones y del órgano de gobierno d) Reintegro de subvenciones, donaciones y legados	17.11		-7.000,00 -7.000,00
4. Produktu buntuen eta fabrikazio bidean dauden produktuen izakinak	4. Variación de existencias de productos terminados y en curso	17.3	-5.126,06	1.315,17
5. Entitateak bere aktiborako egindako lanak	5. Trabajos realizados por la entidad para su activo			
6. Homidurak a) Jarduerako diren ondasunen erosketak b) Lehengaien eta bestelako materia kontsumigarrien kontsumoa c) Beste enpresa batzuk egindako lanak d) Merkantzien, lehengaien eta beste homidura batzuen narritzea	6. Aprovisionamientos a) Compras de bienes destinados a la actividad b) Consumo de materias primas y otras materias consumibles c) Trabajos realizados por otras empresas d) Deterioro de mercaderías, materias primas y otros	17.4	-458,61 -458,61	-9.008,74 -9.008,74
7. Jarduerako bestelako diru sarrerak	7. Otros ingresos de la actividad	17.5	8.630,00	10.635,87
8. Langile gastuak a) Lansariak, soldatak eta asimilatuak b) Karga sozialak c) Homiketak	8. Gastos de personal a) Sueldos, salarios y asimilados b) Cargas sociales c) Provisiones	17.6	-1.367.734,14 -1.060.718,57 -307.015,57	-1.433.572,68 -1.094.279,34 -339.293,34
9. Jarduerako bestelako gastuak a) Kanpoko zerbitzuak b) Tributuoak c) Homiketen galera, narritzea eta aldaketa merkataritza d) Kudeaketa arunteko beste gastuak	9. Otros gastos de la actividad a) Servicios exteriores b) Tributos c) Pérdidas, deterioro y variación de provisiones por operaciones d) Otros gastos de gestión corriente	17.7	-2.885.144,84 -2.850.488,39 -34.615,12 0,00 -41,33	-3.042.855,79 -3.008.441,08 -34.600,23 0,00 185,52
10. Ibilgetuaren amortizazioa	10. Amortización del inmovilizado	17.8	-2.052.681,15	-1.650.458,25
11. Ekitaldiko gaindikineren eramandako kapitaleko diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	11. Subvenciones, donaciones y legados de capital traspasados al excedente del ejercicio	17.8	2.052.681,15	1.650.458,25
12. Homiketen gaindikinak	12. Excesos de provisiones	17.13	0,00	0,00
13. Narritzea eta ibilgetua besterentzearen emaitza a) Narritzeak eta galerak b) Besterentzeen eta bestelakoen emaitzak	13. Deterioro y resultado por enajenaciones del inmovilizado a) Deterioros y pérdidas b) Resultados por enajenaciones y otras	17.9	0,00	-6.600,00 0,00
14. Bestelako emaitzak	14. Otros resultados	17.10	542,61	9.586,18
A-1) JARDUERAREN SOBERAKINA	A-1) EXCEDENTE DE LA ACTIVIDAD		3.071,26	-15.477,24
15. Finantza sarrerak a) Ondare tresnetan partaidetza a1) Taldeko erakundeetan eta elkartutakoetan a2) Hirugarrenetan b) Negozia daitezkeen balioenak eta beste baliabide finantzario b1) Taldeko erakundeetan eta elkarturikoenak b2) Hirugarrenena	15. Ingresos financieros a) De participaciones en instrumentos de patrimonio a1) En entidades del grupo y asociadas a2) En terceros b) De valores negociables y otros instrumentos financieros b1) De entidades del grupo y asociadas b2) De terceros	17.14	0,00 0,00 0,00	12.374,75 12.374,75 0 12.374,75
16. Finantza gastuak a) Taldeko erakunde eta elkartutakoekiko zorrak direla eta b) Hirugarrenekiko zorrak direla-eta c) Homiketen eguneratzea dela-eta	16. Gastos financieros a) Por deudas con entidades del grupo y asociadas b) Por deudas con terceros c) Por actualización de provisiones	17.14	0,00 0,00	0,00 0,00
17. Arrazoizko balioaren aldagaketa finantza tresnetan a) Negoziario zorro eta bestelakoak b) Ekitaldiaren amaierari egindako egozpena, salmentarako / eskura	17. Variación de valor razonable en instrumentos financieros a) Cartera de negociación y otros b) Imputación al excedente del ejercicio por activos financieros			
18. Truke diferentziak	18. Diferencias de cambio			
19. Narritzea eta finantza tresnak besterentzearen emaitza a) Narritzeak eta galerak b) Besterentzeen eta bestelakoen emaitzak	19. Deterioro y resultado por enajenaciones de instrumentos a) Deterioros y pérdidas b) Resultados por enajenaciones y otras			
A.2) FINANTZA ERAGIKETEN SOBERAKINA (15+16+17+18+19) A.2)	A.2) EXCEDENTE DE LAS OPERACIONES		0,00	12.374,75
A.3) SOBERAKINA ZERGA BAINO LEHEN (A.1+A.2)	A.3) EXCEDENTE ANTES DE IMPUESTOS (A.1+A.2)		3.071,26	-3.102,49
20. Etekinen gaineko zerga	20. Impuestos sobre beneficios			
A.4) JARRAITUTAKO OPERAZIOETATIK DATORREN ARIKETAREN SOBERAKINA (A3+20)	A.4) EXCEDENTE DEL EJERCICIO PROCEDENTE DE OPERACIONES CONTINUADAS (A3+20)		3.071,26	-3.102,49

B) OPERAZIO ETENAK	B) OPERACIONES INTERRUMPIDAS			
21 Operazio etenetatik datorren zergetako ariketa garbiaren soberakina	21 Excedente del ejercicio procedente de operaciones interrumpidas neto de impuestos			
A.5) ONDARE GARBIKO ALDAKETA, EKITALDIKO GAINDIKINEAN AINTZATETSIK (A.4+21)	A.5) VARIACION DE PATRIMONIO NETO RECONOCIDA EN EL EXCEDENTE DEL EJERCICIO (A.4+21)		3.071,26	-3.102,49
C) ONDARE GARBIARI ZUZENEAN EGOTZITAKO DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK	C) INGRESOS Y GASTOS IMPUTADOS DIRECTAMENTE AL PATRIMONIO NETO			
1. Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak 2. Esku-diruaren fluxuen estaldura-eragiketak 3. Jasotako diru-laguntzak 4. Jasotako dohaintzak eta legatuak 5. Irabazi eta galera aktuarialak eta beste doikuntza batzuk 6. Zerga-ondoreak	1. Activos financieros disponibles para la venta 2. Operaciones de cobertura de flujos de efectivo 3. Subvenciones recibidas 4. Donaciones y legados recibidos 5. Ganancias y pérdidas actuariales y otros ajustes 6. Efecto impositivo		1.005.195,58	49.108,89
C.1) ONDARE GARBIAREN ALDAKETAK ONDARE GARBIAN ZUZENEAN AINTZATETSIK SARRERA ETA GASTUENGATIK (1+2+3+4+5+6)	C.1) VARIACION DE PATRIMONIO NETO POR INGRESOS Y GASTOS RECONOCIDOS DIRECTAMENTE EN EL PATRIMONIO NETO (1+2+3+4+5+6)		1.005.195,58	49.108,89
D) EKITALDIKO SOBERAKINAREN BIRSAILKAPENAK	D) RECLASIFICACIONES AL EXCEDENTE DEL EJERCICIO			
1. Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak 2. Esku-diruaren fluxuen estaldura-eragiketak 3. Jasotako diru-laguntzak 4. Jasotako dohaintzak eta legatuak 5. Zerga-ondoreak	1. Activos financieros disponibles para la venta 2. Operaciones de cobertura de flujos de efectivo 3. Subvenciones recibidas 4. Donaciones y legados recibidos 5. Efecto impositivo		-2.052.681,15	-1.532.010,85
D.1) ONDARE GARBIAREN ALDAKETAK EKITALDIKO SOBERAKINAREN BIRSAILKAPENENGATIK (1+2+3+4+5)	D.1) VARIACION DE PATRIMONIO NETO POR RECLASIFICACIONES AL EXCEDENTE DEL EJERCICIO(1+2+3+4+5)		-2.052.681,15	-1.532.010,85
E) ONDARE GARBIAREN ALDAKETAK ONDARE GARBIAN ZUZENEAN AINTZATETSIK SARRERA ETA GASTUENGATIK (C.1+D.1)	E) VARIACIONES DE PATRIMONIO NETO POR INGRESOS Y GASTOS IMPUTADOS DIRECTAMENTE AL PATRIMONIO NETO (C.1+D.1)		-1.047.485,57	-1.482.901,96
F) DOIKUNTZAK IRIZPIDE-ALDAKETAGATIK	F) AJUSTES POR CAMBIO DE CRITERIO			
G) DOIKUNTZAK AKATSENGATIK	G) AJUSTES POR ERRORES			
H) ALDAKETAK SORTZE DOTAZIOAN EDO GIZARTE FUNTSEAN	H) VARIACIONES EN LA DOTACION FUNDACIONAL O FONDO SOCIAL			
I) BESTE ALDAKETA BATZUK	I) OTRAS VARIACIONES		0,00	0,00
J) EKITALDIAN ONDARE GARBIAREN ALDAKETAREN EMAITZA, GUZTIRA (A5+E+F+G+H+I)	J) RESULTADO TOTAL, VARIACION DEL PATRIMONIO NETO EN EL EJERCICIO (A5+E+F+G+H+I)		-1.044.414,31	-1.486.004,45

ARABAKO ARTIUM FUNDAZIOA
MEMORIA
2023KO EKITALDIA

EDUKIEN TAULA

1.-	FUNDAZIOAREN JARDUERA.....	12
1.1.	SARRERA.....	12
1.2.	DATU OROKORRAK	12
1.3.	JARDUERA NAGUSIAK.....	13
2.-	URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK	14
2.1.	IRUDI ZEHATZA	14
2.2.	BALORAZIOAREN ALDERDI KRITIKOAK ETA ZIURGABETASUNAREN ZENBATESPENA.....	14
2.3.	INFORMAZIOA ALDERATZEA.....	15
2.4.	PARTIDAK ELKARTZEA ETA ZENBAIT PARTIDATAN JASOTAKO ELEMENTUAK	15
2.5.	KONTABILITATE-IRIZPIDEEN ALDAKETAK, KONTABILITATE-AKATSAK ETA KONTABILITATE-ZENBATESPENAK.....	15
3.-	EKITALDIKO SOBERAKINA	16
4.-	ERREGISTRO- ETA BALORAZIO-ARAUAK.....	16
4.1.	IBILGETU UKIEZINA	16
4.2.	IBILGETU MATERIALA.....	17
4.3.	ONDARE HISTORIKOKO ONDASUNAK.....	19
4.4.	FINANTZA-TRESNAK.....	20
4.5.	JARDUERA PROPIOAREN ONDORIOZKO KREDITUAK ETA ZORRAK	21
4.6.	IZAKINAK.....	23
4.7.	SOZIJETATEEN GAINEKO ZERGA	23
4.8.	SARRERAK ETA GASTUAK.....	24
4.9.	INGURUMENAREKIN LOTUTAKO ONDARE-ELEMENTUAK-	25
4.10.	JASOTAKO DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK	26
5.-	IBILGETU MATERIALA	27
6.-	ONDARE HISTORIKOKO ONDASUNAK	29
7.-	HIGIEZINEN INBERTSIOAK.....	30
8.-	IBILGETU UKIEZINA.....	31
9.-	ALOKAIRUAK ETA ANTZEKO BESTE ERAGIKETA BATZUK.....	32
10.-	FINANTZA-TRESNAK	32
10.1.	FINANTZA-AKTIBOAK	32
10.2.	FINANTZA-PASIBOAK	33
10.1.1.	EPE LABURREKO ZORRAK TALDEKO ENTITATEEKIN ETA ENTITATE ELKARTUEKIN	33
10.1.2.	EPE LABURREKO ZORRAK	33
10.3.	FINANTZA-AKTIBOEN ETA FINANTZA-PASIBOEN SAILKAPENA	33

11.- JARDUERA PROPIOAREN ERABILTZAILEAK ETA BESTE ZORDUN BATZUK. ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK.....	35
12.- ONURADUNAK - HARTZEKODUNAK. HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINDU GABEKO BESTE KONTU BATZUK	35
13.- FUNTS PROPIOAK.....	36
14.- IZAKINAK.....	37
15.- ATZERRIKO DIRUA.....	38
16.- ZERGA-EGOERA	38
17.- SARRERAK ETA GASTUAK	39
17.1. JARDUERA PROPIOAREN DIRU-SARRERAK.....	39
17.2. JARDUERA KOMERTZIALAREN DIRU-SARRERAK ETA SALMENTAK	41
17.3. SALGAI-IZAKINEN ALDAKUNTZA	42
17.4. HORNIDURAK	42
17.5. JARDUERAREN BESTE DIRU-SARRERA BATZUK	42
17.6. LANGILEEN GASTUAK.....	42
17.7. JARDUERAREN BESTE GASTU BATZUK.....	44
17.8. IBILGETUAREN AMORTIZAZIOA.....	46
17.9. IBILGETUA BESTERENTZEAREN ONDORIOZKO NARRIADURA ETA EMAITZAK	46
17.10. BESTE EMAITZA BATZUK.....	46
17.11. DIRULAGUNTZAK.....	46
17.12. GARDENTASUN-POLITIKA: IRABAZIEN ETA GALEREN KONTUARI BURUZKO BESTELAKO INFORMAZIO BAT	46
17.13. HORNIDUREN GAINDIKINAK.....	51
17.14. SARRERAK ETA FINANTZA-GASTUAK.....	51
18.- HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK.....	51
19.- INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA.....	52
20.- LANGILEEN EPE LUZERAKO ORDAINSARIAK	52
21.- DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK	52
22.- FUSIOAK	54
23.- NEGOZIO BATERATUAK	54
24.- EPE LABURREKO PERIODIFIKATZEAK	54
25.- ENTITATEAREN JARDUNA. ELEMENTUAK APLIKATZEA	55
GAUZATUTAKO JARDUERAK	55
25.1. ENTITATEAK GUZTIRA ERABILITAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK.....	60
25.2. ENTITATEAK GUZTIRA JASOTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK.....	60
25.3. BESTE ENTITATE BATZUEKIKO LANKIDETZA-HITZARMENAK.....	61
25.4. JARDUKETA-PLANAREN ETA EGINDAKOAREN DATUEN ARTEKO DESBIDERATZEA.....	62
25.5. SARREREN ZERTARAKOA.....	63

25.6. ADMINISTRAZIO-GASTUEN XEHETASUNAK.....	63
25.7. FUNDAZIOAREN AUTOFINANTZAKETA-MAILA	64
26.- SALMENTARAKO MANTENDUTAKO AKTIBO EZ-KORRONTEAK	64
27.- ITXIERAZ GEROZTIKO GERTAERAK	64
28.- LOTUTAKO ALDEEKIKO ERAGIKETAK	65
29.- BESTELAKO INFORMAZIOA	65
29.1. EKITALDIKO BATEZBESTEKO LANGILEEN KOPURUA	65
29.2. PARTAIDETZAK MERKATARITZA-SOZIALTATEETAN EDO BESTE FUNDAZIO BATZUETAN	67
29.3. KONTUAK KANPO-IKUSKARITZAREN MENDE JARTZEKO DERRIGORTASUNA	67
29.4. ONDARE-ALDAKETAK: LEGEAREN 22. ARTIKULUAN DESKRIBATUTAKO ONDASUNEN GAINEKO KARGA-EKINTZAK, XEDAPENAK EDO ARBITRAJEA	67
30.- INFORMAZIO SEGMENTATUA	67
31.- ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA.....	68
32.- INBENTARIOA	69
33.- BERANKORTASUN-LEGEA BETETZEA	71
34.- PATRONATUARI BURUZKO INFORMAZIOA	72
34.1. PATRONATUKO KIDEAK ETA PATRONATUAREN OSOKO BILKURAREN JARDUNA 2023AN.....	72
34.2. PATRONATUAN PARTAIDETZA GEHIENGODUNA DUTEN ENTITATE PUBLIKOAK ETA PARTE-HARTZEAREN EHUNEKOAK	72
34.3. PATRONATUKO KIDEEN KONTZEPTUAGATIKO ORDAINSARIAK, GUZTIRA.....	73
34.4. PATRONATUKO KIDEEN ETA FUNDAZIOAREN ARTEKO KONTRATU BIDEZKO HARREMANAK ..	73
34.5. ESKUORDETZEAK ETA AHALORDETZEAK	73
35.- FUNDAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEARI BURUZKO INFORMAZIOA.....	74
35.1. BATZORDE BETEARAZLEKO KIDEAK 2023AN.	74
35.2. BATZORDE BETEARAZLEAREN JARDUNA 2023AN.	74
36.- LANGILEEN DATUAK ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN EKARPENAK.....	79
37.- AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA	80
37.1. 2023KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN ETA BENETAKO GAUZATZEAREN KONPARAKETA...	80
37.2. 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN AZALPEN-OHARRAK.	81

1.- FUNDAZIOAREN JARDUERA

1.1. Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak 32. artikuluan ezarri zuenez, balantzeak, emaitza-kontuak, memoriak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako kontabilitate-planak ezartzen dituen gainerako dokumentuek osatzen dituzte fundazioen urteko kontuak.

Urteko kontuek unitate bat eratzen dute, eta argitasunez idatzi behar dira; horrez gain, zehatz-mehatz jaso behar dituzte fundazioaren ondarea, finantza-egoera eta emaitzak.

Urteko kontuak onetsi eta hurrengo 30 egun naturaleko epearen barruan, Fundazioaren Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa bidaliko ditu urteko kontuak, behar bezala sinatuta, gordailuan jasotzeko.

1.2. Datu orokorrak

Arabako Artium Fundazioa kultura-fundazioa da. Haren eraketaren eskritura publikoa Vitoria-Gasteizen egin zen 2001eko otsailaren 16an, Bilboko Notarioen Elkargoko Manuel María Rueda Díaz de Rábago notario jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 748). Arabako Foru Aldundiak erabaki zuen Fundazioa eratzea, sortzaile bakar gisa, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 14ko 112/2000 Foru Dekretuaren bitartez.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2001eko apirilaren 30eko Aginduaren bitartez (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 2001eko maiatzaren 29ko alean argitaratua), Arabako Artium Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu zen, F-98 erregistro-zenbakipean. Agindu berean ebatzi zen aipatutako fundazioa, haren helburuak aintzat harturik, Fundazioen Erregistroko 3. sekzioan inskribatuko zela, kultura, gazteria eta kirolen fundazioen sekzioan, hain zuzen ere.

Arabako Lurralde Historikoa du Fundazioak jarduketa-eremu nagusia, bere estatutuen 4. Artikuluarekin bat etorrita. Fundazioaren egoitza Gasteizko Frantzia kaleko 24an dago.

Hasierako zuzkidura ehun eta laurogei mila hirurehun eta hiru euro eta hirurogeita hiru zentimokoa (180.303,63 €) izan zen. Diru kopuru horren ordainketa agiri bidez frogatu zen erregistroko inskripzioaren espedientean, 404/1994 Dekretuaren 31.1.c artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Fundazioaren identifikazio fiskaleko kodea, Arabako Foru Aldundiak emana, G-01315530 da.

Fundazioaren telefono-zenbakia 945 20 90 00 da. Artium Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoaren webgunea www.artium.eus da.

1.3. Jarduera nagusiak

Arabako Artium Fundazioa kultura-fundazioa da, eta sorrera-helburu hauek ditu, estatutuen 3. artikulua dioenez:

- Artium Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa kudeatzea eta zuzentzea.
- Bere ondarearen parte diren eta kultur balioa duten ondasun higigarriak eta higiezinak mantentzea, zaintzea, babestea eta zaharberritzea.
- Arte plastikoen gizarte-komunikazioa sustatzea eta bultzatzea.
- Bildumak jendaurrean behar bezala erakustea, edonork ikusteko eta aztertzeko moduan, eta azterketa- eta ikerketa-lanak aldeztzea eta sustatzea.
- Artium Museoaren ondareko artelanen eta kultura-identitatearen ezagutza bultzatzea eta haien berri zabaltzea.
- Museologiako ikerketa-programak garatzea eta arlo horretako trebakuntza- eta hobekuntza-planetan parte hartzea.
- Lankidetzeta-harremanak ezartzea museoak kudeatzen dituzten beste fundazio eta erakunde batzuekin, unibertsitateekin, ikerketa-zentroekin eta Espainiako nahiz atzerriko beste kultura-erakunde batzuekin.
- Aurreko atalean aipatutako erakundeekin batera ekintzak garatzea.
- Bestelako jarduerak egitea honako helburu hauekin: kultura-agerraldiak, hitzaldiak eta liburuak, katalogoen eta beste argitalpen batzuen edizioa sustatu eta gauzatzea; oro har, bekak eta dirulaguntzak ematea; eta antzeko beste jarduera batzuk, betiere Fundazioaren helburuekin bateragarriak badira.

Ekitaldian garatutako jarduerak zehatz azaldu dira Memoria honekin batera aurkeztutako Jarduera Memorian.

2.- URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1. Irudi zehatza

Urteko kontuak Fundazioaren kontabilitate-erregistroak oinarri hartuta prestatu dira. 2023ko ekitaldiko urteko kontuak prestatzerakoan, aintzat hartu dira indarrean dagoen merkataritza-legedia eta Irabazi-asmorik Gabeko Erakundeentzako Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritako arauak nahiz entitate horien aurrekontu-informazioaren gaineko arauak. Hala, ondarearen, 2023ko abenduaren 31ko finantza-egoeraren eta data horretan bukatutako urteko ekitaldiari dagozkion jardueren emaitzen irudi zehatza erakutsi nahi da, eta, hori hobeto aurkezte aldera, zenbait birsailkapen ere jaso dira.

2022eko ekitaldiko urteko kontuak Fundazioaren Patronatuak onartu zituen 2023ko apirilaren 26an, kontuak eta BNFIX KLZ AUDITORES S.L.P. enpresak egindako ikuskaritza-txostena berrikusi ondoren.

2023ko ekitaldiko urteko Fundazioaren kontuak Fundazioaren Patronatuko Batzorde Betearazleko kideek prestatu dituzte, eta Patronatuko Osoko Bilkurari aurkeztuko zaizkio, hark onesteko; inolako aldaketarik egin gabe onartuko direla aurreikusi da.

2.2. Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena

Funtzionamenduan dagoen entitatearen printzipioari jarraituz zehaztu ditu Fundazioak bere finantza-egoerak; izan ere, ez dago hurrengo ekitaldian aktiboen edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsurik eragingo duen arrisku garrantzitsurik.

2023ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion Fundazioaren urteko kontuetan Patronatuko Osoko Bilkura osatzen duten kideek egindako zenbatespenak erabili dira, tarteka, kontuetan erregistratutako zenbait aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso baloratzeko. Funtsean, honako hauei dagozkie zenbatespenak:

- Narriaduraren ondoriozko aktibo batzuen galerak.
- Aktibo material eta ukiezinen balio-bizitza.

Zenbatespen horiek egiteko, aztertutako egitateei buruz urteko kontu hauek egiteko unean zegoen informaziorik onena hartu zen oinarri, baina baliteke etorkizunean, aurreragoko ekitaldi batzuetan, zenbatespen (gorantz edo beherantz) aldatu behar izatea gertakariren baten ondorioz; hala egin behar

izanez gero, modu prospektiboan egingo litzateke aldaketa, eta galeren eta irabazien kontuetan aitortuko lirateke zenbatespena aldatzearen ondorioak.

2.3. Informazioa alderatzea

Indarrean dagoen legedian aurreikusitakoarekin bat etorritz, Patronatuko Batzorde Betearazleko kideek balantzearen, emaitzen kontuaren eta eskudiru-fluxuen egoeraren partiden aurreko ekitaldiko zenbatekoak aurkeztuko dituzte, 2023ko ekitaldikoak ez ezik, datuak alderatzeko. Era berean, 2023ko ekitaldiarekin lotuta memoria honetan jaso den informazioa 2022ko ekitaldiko informazioaren alderaketa egin ahal izateko aurkeztu da.

Ez da inguruabar aipagarriarik izan atal honetan.

2.4. Partidak elkartzea eta zenbait partidatan jasotako elementuak

Urteko kontuek ez dute jasotzen balantzean, emaitzen kontuan, ondare garbiaren aldaketen egoeran edo eskudiru-fluxuen egoeran elkartu behar izan den inongo partidarik.

Balantzeko partida bitan edo gehiagotan erregistratutako ondare-elementurik ere ez dago.

2.5. Kontabilitate-irizpideen aldaketak, kontabilitate-akatsak eta kontabilitate-zenbatespenak

2023an ez da aldaketarik izan kontabilitate-irizpideetan, kontabilitate-akatsetan eta kontabilitate-zenbatespenetan.

3.- EKITALDIKO SOBERAKINA

2023ko ekitaldian, 3.102,49 euroko emaitza positiboa erregistratu da.

Hona hemen emaitza aplikatzeko proposamena:

Base de reparto	2023	2022
Saldo de la cuenta de resultados	-3.102,49	3.071,26
Total	-3.102,49	3.071,26

Aplicación	2023	2022
A remanente (resultados negativos)	-3.102,49	3.071,26
Total	-3.102,49	3.071,26

4.- ERREGISTRO- ETA BALORAZIO-ARAUAK

Urteko kontu hauen formulazioari dagokionez, kontabilitatearen arloan indarrean dauden lege-xedapen guztiak aplikatu dira, bereziki kontabilitate-printzipioak nahitaez betetzeari buruzkoak, lehenetasunezko helburua baita Fundazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta lortutako emaitzen irudi zehatza erakustea.

4.1. Ibilgetu ukiezina

Hasierako azterketaren ostean, ibilgetu ukiezina baloratzen da, haren kostua ken amortizazio metatua kontuan hartuta; baita, hala badagokio, erregistratu diren narriaduragatiko zuzenketen zenbateko metatua ere.

Aktibo ukiezinak balio-bizitza mugatuko aktiboak dira, eta, horrenbestez, sistematikoki amortizatzen dira haientzat aurreikusitako balio-bizitzaren eta hondar-balioaren arabera. Aplikatu diren amortizazio-metodoak eta amortizazio-aldiak ekitaldi bakoitza ixtean berrikusten dira, eta, hala behar izanez gero, modu prospektiboan egokitzen dira. Ekitaldia ixtean, behintzat, narriadura-aztarnarik dagoen aztertzen da; eta, hala badago, berreskura daitezkeen zenbatekoak zenbatetsi eta egin beharreko balio-zuzenketak egiten dira.

Narriaduraren ondorioz aktibo horien balio erregistratuan sortutako edozein galera kontabilitatean jasotzen du Fundazioak; kontrapartida gisa, emaitzen kontuko “Ibilgetua besterentzearen ondoriozko narriadura eta emaitza” epigrafea erabiltzen da. Ekitaldi honetan ez da aitortu aktibo ukiezinetatik eratorritako “Narriaduragatiko galera garbirik”.

Balantzearen pasiboan, “Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak” epigrafearen barruan jaso da aktiboan ageri diren erabilera-eskubideen kopuru garbia. Gordailutze-hitzarmen bakoitzaren iraupenaren arabera eramaten da emaitzetara.

Gainerako kasuetan, amortizaziorako urteko zuzkidura kalkulatzeko metodo lineala aplikatzen da, aktibo ukiezinaren balio-bizitza zenbatetsiaren arabera; informatikako softwarearen kasuan, 4 urtekoa dela kalkulatzen da.

Fundazioak honako hauek identifikatzen ditu ibilgetu ukiezinako ondasunen artean:

- Eskudiru-fluxuak sortzen dituzten ondasunak: ondasunak edo zerbitzua emanez etekin komertziala sortu edo onura lortzeko helburua dute.
- Eskudiru-fluxuak sortzen ez dituzten ondasunak: etekin komertziala sortzeaz bestelako helburu bat daukatenak dira, esaterako aktibo horiek eragiten dituzten fluxu ekonomiko-sozialak, komunitatearen onerako badira, hau da, zerbitzuen onura sozial edo potentzial bat.

Eskudiru-fluxurik sortzen ez duen ibilgetua du Fundazioak bere aktiboan.

Fundazioak aktibo horien balio-narriadura egiaztatzen du soilik aktibo mota horien berezko balio-narriaduraren adierazleak daudenean, eta adierazle horiek ez daudenean merkataritza-adierazleetan oinarrituta, baizik eta sortzen duten zerbitzu-potentzialean.

4.2. Ibilgetu materiala

Ibilgetu materiala eskuratze-kostuaren –hau da, amortizazio metatuaren kostu garbiaren– arabera baloratu da, izan diren narriaduragatiko galerak aintzat hartuta. Elementu bakoitza eskuratzeko ordaindu den prezioaz gain, eraikitze aldian sortu diren finantza-gastuak ere sartzen dira kostuan, baldin eta horiek aktiboa eskuratzeari edo fabrikatzeari zuzenean egotzi ahal bazaizkio eta erabilgarri egoteko urtebete baino denbora luzeagoa behar badute. Ekitaldian ez da kontzeptu horren zenbatekorik aktibatu.

Elementu osoak ordezkatzek edo berritzeak, delako ondasunaren balio-bizitza, produktibitatea edo ahalmen ekonomikoa areagotzeko zabalkuntza-, modernizazio- edo hobekuntza-kostuak higiezinetako inbertsio edo ibilgetu materialaren zenbatekorik handien gisa zenbatzen dira, eta, ondorioz, ordezkatu edo berritutako elementuak kontabilitatetik kentzen dira.

Sortzapen-printzipioari jarraituz, mantentzeko, kontserbatzeko eta konpontzeko aldian behingo gastuak emaitzei egozten zaizkie, dagokien ekitaldiko kostu moduan.

Fundazioak ez du aktibo-ondasunak desegiteko, kentzeko edo birgaitzeko konpromisorik. Horregatik, ez da aktiboetan kontabilizatu etorkizunean halako obligazioak estaltzeko baliorik.

Aktibo bat besterendu edo baliogabetzetik eratorritako mozkina edo galera kalkulatzeko, aktiboaren salmentaren mozkinaren eta liburuetan duen zenbatekoaren arteko aldea kalkulatu behar da, eta emaitzen kontuan aitortzen da.

Amortizazioa kalkulatzeko metodo lineala aplikatzen da, aktiboen eskuratze-kostua ken hondar-balioa kontuan hartuta. Aktibo materialak amortizatzeko urteko zuzkidurak kontrapartida du emaitzen kontuan; funtsean, elementuentzat batez beste zenbatetsitako balio-bizitzako urte kopuruaren arabera zehaztutako amortizazio-ehunekoak dira, honela xehakatuak:

Deskribapena	Urteak	Urteko %
Eraikinak	50	2,00%
Instalazio teknikoak	10	10,00%
Makineria	5	20,00%
Tresnak	10	10,00%
Beste instalazio batzuk	10	10,00%
Altzariak	10	10,00%
Informazio-prozesuetako ekipak	4	25,00%
Garraio-elementuak	4	25,00%

Fundazioak honako hauek identifikatzen ditu ibilgetu materialeko ondasunen artean:

- Eskudiru-fluxuak sortzen dituzten ondasunak: ondasunak edo zerbitzua emanez etekin komertziala sortu edo onura lortzeko helburua dute.
- Eskudiru-fluxuak sortzen ez dituzten ondasunak: etekin komertziala sortzeaz bestelako helburu bat daukatenak dira, esaterako aktibo horiek eragiten dituzten fluxu ekonomiko-sozialak, komunitatearen onerako badira, hau da, zerbitzuen onura sozial edo potentzial bat.

Eskudiru-fluxurik sortzen ez duen ibilgetua du Fundazioak bere aktiboan.

Fundazioak gutxienez ekitaldi bakoitzaren itxieran ebaluatzen du bere ibilgetu materialaren balio-narriaduragatiko galeren zantzurik baden eta galera horiek aktibo horien zenbateko berreskuragarria liburuetan duten balioa baino zenbateko txikiagora murrizten ote duten. Zantzuren bat egonez gero, aktiboaren balio berreskuragarria zenbatesten da, balio-narriaduragatiko balizko galeraren hedadura zehazteko.

Kontabilitate-balio garbia balio berreskuragarria baino handiagoa denean erregistratzen da ibilgetuko elementu baten balio-narriaduragatiko galera. Balio berreskuragarritzat jotzen da arrazoizko balioari salmenta-kostuak eta erabilera-balioa kenduta ateratzen den zenbatekorik handiena.

Aurreko ekitaldietan aktibo batean aitortutako narriaduragatiko galerak itzuli egiten dira kopuru berreskuragarriari buruzko zenbatespenak aldatuz gero; handitu egiten da onbideratu izan ez balitz aktiboak liburuen izango lukeen balioaren mugaraino.

Patronatuko Batzorde Betearazleko kideen aburuz, aktiboen kontabilitate-balioak ez du gainditzen horien balio berreskuragarria; horrenbestez, 2023ko ekitaldian, Fundazioak ez du ibilgetu materialen narriaduragatiko galerarik erregistratu.

4.3. Ondare historikoko ondasunak

Ondare historikoko ondasunak Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean jasotako elementuak dira. Komunitatearen ustez arrazoi artistiko edo kulturalak direla medio zaindu beharreko ondasunak dira; ezin dira ordeztu, eta horixe da, hain zuzen ere, era honetako ondasunen ezaugarri nagusietakoa.

Fundazioak atal honetan jasotzen ditu Arabako Foru Aldundiko Bildumatik lagatako artelanen zenbatekoak eta Fundazioarenak diren artelanen eta dohaintza nahiz erosketen bitartez eskuratutakoen zenbatekoak. Dohaintzen kasuan, zuhurtziazko irizpidea aplikatuz, Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak ataleko balantze laburtuko pasiboaren partidan dago kontrapartida.

Ondare Historikoko Ondasunak atala osatzen duten artelanak ez dira amortizatuko, jotzen baita, zerbitzua emateko duten ahalmena hain motel erabiltzen denez, balio-bizitza mugagabea dutela, ez baitira higitzen funtzionamenduagatik, erabileragatik eta gozamenagatik.

Lehenago esan bezala, “Ondare Historikoko Ondasunak” epigrafearen barruan kontuan hartzen da Arabako Foru Aldundiak Fundazioari egindako Bildumako artelanen hasierako lagapena (Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren behin betiko lagapen-akordioa, 2003ko apirilaren 15eko data duena), baita 2002-2023 aldian Fundazioari lagatzeko Arabako Foru Aldundiak eskuratutako artelanak ere. Halaber, 2023an ondasun higigarriak atala, Esther Ferreren *Zenbaki lehenak* obra eta hura jartzeko Artium Museoren barruko plazan egindako egokitzapenak ere kontabilizatu dira epigrafe horren barruan.

Beste alde batetik, Fundazioaren jabetzako artelanen balioa ere jaso da atal honetan.

4.4. Finantza-tresnak

Fundazioak finantza-tresna bat aitortzen du kontratu edo negozio juridikoaren xedapenen arabera haren nahitaezko parte bihurtzen denean.

Finantza-tresnak finantza-aktibo, finantza-pasibo edo ondare-tresna gisa sailkatzen dira aitortzen diren unean, kontratuko akordioaren funts ekonomikoarekin eta finantza-aktibo, finantza-pasibo edo ondare-tresnaren definizioekin bat etorrira.

Fundazioak haien ezaugarrien arabera eta Fundazioaren asmoen arabera sailkatzen ditu finantza-tresnak hasierako aitortzaren unean.

Finantza-aktiboak

1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kontabilitate Plan Orokorra aldatzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretuan (9. araua, Finantza-tresnak eta kontabilitate-estaldurak) xedatutakoaren arabera, Kostu amortizatuko finantza-aktiboak kategorian sailkatzen dira.

Arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira bai hasieran bai ondoren, hau da, transakzioaren prezioa gehi zuzenean egotz daitezkeen kostuen arabera. Ondoren, honela baloratzen dira: kostua ken narriaduragatiko balio-zuzenketen zenbateko metatua.

Finantza-aktiboak baja dira kontabilitatean, haiekin zerikusia duten efektibo-fluxuak eskuratzeko eskubideak iraungi egin direnean edo transferitu egin direnean eta Fundazioak modu adierazgarrian insuldatu dituen bere titulartasunetik eratorritako arriskuak eta mozkinak.

Fundazioak gutxienez ekitaldi bakoitzaren itxieran ebaluatzen du bere finantza-aktiboen balio-narriaduragatiko galeren zantzurik baden eta galera horiek aktibo horien zenbateko berreskuragarria liburuetan duten balioa baino zenbateko txikiagora murrizten ote duten. Zantzuren bat egonez gero, aktiboaren balio berreskuragarria zenbatesten da, balio-narriaduragatiko balizko galeraren hedadura zehazteko.

Fundazioaren Patronatuko Batzorde Betearazleko kideen aburuz, aktiboen kontabilitate-balioak ez du gainditzen horien balio berreskuragarria; horrenbestez, 2023ko ekitaldian, Fundazioak ez du finantza-aktiboen narriaduragatiko galerarik erregistratu.

Finantza-pasiboak

Epigrafe honetan sartzen dira erosketen eta zerbitzua ematearen ondoriozko zorrak, eta sozietateak jasotako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik eratorritako tresnak ez diren eragiketa ez-komertzialen ondoriozko zorrak.

Aitortzaren unean zein ondoren erregistratzen dira, arrazoizko balioaren arabera, hau da, transakzio-prezioaren arabera, kontraprestazioaren balioa gehituz kalkulatuta, zuzenean egotz daitezkeen gastuak. Irizpide hori aplikatzen da, espero delako pasiboak epe laburrean likidatzea edo, epe luzerako mugaeguna izanez gero, kontratuko interes-tasa bat finkatuta dutelako.

Fundazioak finantza-pasiboari edo horren parte bati baja emango dio pasiboan jasotako obligazioa bete badu, edo pasiboan jasotako funtsezko erantzukizunetik legez libre badago, dela prozesu judizial bidez, dela hartzekodunaren bidez.

4.5. Jarduera propioaren ondoriozko kredituak eta zorrak

Jarduera propioaren erabiltzaileak eta beste zordun batzuk, zordun komertzialak eta kobratzeko beste kontu batzuk

Aitortzen diren unean, arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira balantzean; ondoren, amortizatutako kostuaren arabera, interes-tasa efektiboa erabiliz.

Hala ere, eragiketa komertzialengatiko kredituak, gehienez urtebeteko iraungipena badute eta ez badute kontratuko interes-tasarik, balio izendatuaren arabera baloratzen dira bai hasierako aitorpenaren unean, bai ondoren, betiere fluxuak ez eguneratzearen ondorioak ez badira esanguratsuak.

Aktiboaren periodifikazioak

Fundazioak ekitaldian ordaindutako gastuen sortzapena ondorengo ekitaldian gertatuz gero, epe laburreko aktiboen periodifikazioen kontuan jasoko dira, eta emaitzei egotziko zaizkie sortzapena gertatzen den ekitaldian.

Kaleratzeen ondoriozko kalte-ordainak

Indarrean dagoen lan-araudiarekin bat etorriz, Fundazioa behartuta dago enplegatuei kalte-ordainak ordaintzera, baldintza jakin batzuetan haiekiko lan-harremana etenez gero. Ez dago arrazoi objektiborik kontzeptu horri dagokion hornidurarik kontabilizatzeko.

Epe laburreko zorrak, hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko beste kontu batzuk

Aitortzen diren unean, arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira balantzean; ondoren, amortizatutako kostuaren arabera, interes-tasa efektiboa erabiliz.

Hala ere, eragiketa komertzialengatiko kredituak, gehienez urtebeteko iraungipena badute eta ez badute kontratuko interes-tasarik, balio izendatuaren arabera baloratzen dira bai hasierako aitorpenaren unean, bai ondoren, betiere fluxuak ez eguneratzearen ondorioak ez badira esanguratsuak.

Saldoen sailkapena: saldo korronteak eta ez-korronteak

Zorrak epe laburrean eta luzean sailkatzeko irizpidea hamabi hilabetekoa da, eta ezagutu bezain laster kontabilizatzen dira.

Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide

Atxikitako balantzearen epigrafe honek kutzako eskudirua, bankuetako kontu korronteak eta aktiboen aldi baterako erosketak eta gordailuak barne hartzen ditu, honako betekizun hauek guztiak betetzen badituzte:

- Eskudiru bihur badaitezke.
- Eskuratzean, gehienez hiru hilabeteko epemuga bazuten.
- Ez badute balioa aldatzeko arrisku nabarmenik.
- Fundazioaren diruzaintzako kudeaketa-politika arruntean sartzen badira.

4.6. Izakinak

Fundazioaren izakinak Artiumen Dendako izakin komertzialei eta Artiumek argitaratutako katalogoei dagozkie. Aribidean diren produktuak ekitaldia ixtean jardun-zentro batean prestakuntza-fasean edo eraldaketa-fasean dauden eta amaitutako produktuen kontuetan erregistratu behar ez diren ondasun edo zerbitzuak dira; gure kasuan, aribideko argitalpenen ekoizpen-kostuari dagozkio.

Artium Museoa Dendako izakinak batezbesteko prezio haztatuko sistemaren bitartez baloratzen dira, eta ekoizpen propioko katalogoak ekoizpen-kostuaren arabera baloratzen dira (ekoizpen-kostuari dagokionez, izakinak baloratzeko, lehengaien eta bestelako material kontsumigarrien erosketa kostuari gehitu behar zaizkio produktuari zuzenean egotz dakizkiokeen kostuak eta produktuei zeharka egotzi ezin zaizkien kostuei dagokien arrazoizko zatia).

Izakinak zergapetzen dituzten zeharkako zergak erosketa-prezioari (edo ekoizpen kostuari) gehitzen zaizkie, soilik Ogasun Publikotik zuzenean berreskuratu ezin direnean.

Fundazioaren izakinek ez dutenez urtebetetik gorako denbora-tartea behar saltzeko moduan egoteko, ez dira jasotzen finantza-gastuak ekoizpen-kostuan.

Izakinen balio garbi egingarria eskuratze-prezioa (edo ekoizpen-kostua) baino txikiagoa bada, egin beharreko balio-zuzenketak egin, eta gastu gisa jasotzen da emaitzen kontuan. Izakinen balio-zuzenketa eragin zuen egoerak hala izateari uzten badio, zuzenketaren zenbatekoa berrikusten da eta sarrera gisa jasotzen da emaitzen kontuan.

4.7. Sozietateen gaineko zerga

Fundazioa 2022ko urtarrilaren 1ean indarrean sartutako irabazi-asmorik gabeko erakundearen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko 35/2021 Foru Arauaren arabera arautzen da 2023. urtean.

Horrenbestez, Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira Fundazioak bere helburu edo xede zehatza betez garatutako ustiapen ekonomikoetatik lortutako errentak.

4.8. Sarrerak eta gastuak

Entitateak bere jardunaren garapen arruntagatiko diru-sarrerak aitortzen ditu erabiltzaile eta zordunekin konprometitutako ondasunen eta zerbitzuen kontrola transferitzen denean. Une horretan, entitateak ondasun eta zerbitzu horien truke jasotzea espero duen kontraprestazioaren zenbatekoaren arabera baloratuko du diru-sarrera.

Aitortza

Entitateak kontratu batetik eratorritako diru-sarrerak aitortuko ditu konprometitutako ondasunen eta zerbitzuen gaineko kontrola (hau da, bete beharreko obligazioak) bezeroari transferitzen zaionean (edo transferitu ahala).

Zerbitzu baten (aktibo baten) kontrolak delako ondare-elementuaren erabileraren gainean erabakitzeke eta haren gainerako etekin guztiak funtsean lortzeko erabateko gaitasunari egiten dio erreferentzia. Kontrol horrek barne hartzen du beste entitate batzuek aktiboaren erabileraren gaineko erabakia har dezaten eta haren onurak eskura ditzaten eragozteko gaitasuna.

Bete beharreko obligazio bakoitzeko (ondasunak edo zerbitzuak ematea), entitateak kontratuaren hasieran zehaztuko du bere gain hartutako konpromisoa denboran zehar edo une jakin batean beteko den.

Denboran zehar betetzeko konpromisoetatik eratorritako sarrerak (oro har, zerbitzu ematetik edo ondasunen salmentatik eratorriak) kontratuko obligazioak guztiz betetzeko bidean egindako aurrerapenaren edo bilakaeraren arabera aitortzen dira, betiere entitateak aurrerapena neurtzeko informazio fidagarriarik badu.

Aitortu beharreko diru-sarreraren zenbatespenak berrikusten eta, hala behar izanez gero, aldatzen ditu entitateak, bere gain hartutako konpromisoa bete ahala. Berrikuspen horiek egiteko premia izateak ez du nahitaez esan nahi eragiketaren emaitza ezin daitekeenik fidagarritasunez zenbatetsi.

Data jakin batean entitatea gai ez bada obligazioaren betetze maila arrazoiz neurtzeko (adibidez, kontratu baten hasierako etapetan), konpromiso horri erantzuteko egindako kostuak berreskuratzea espero izan arren, data horretara arte egindako kostuen baliokidea den zenbateko batean soilik aitortzen dira diru-sarrerak eta dagokien kontraprestazioa.

Zalantzarik egonez gero alde z aurretik zerbitzua emateagatiko diru-sarrera gisa aitortutako kreditu-eskubidearen kobrantzari buruz, narriaduragatiko balio-zuzenketagatiko gastu gisa erregistratuko da narriaduragatiko balio-galera, eta ez diru-sarrera txikiago gisa.

Balorazioa

Ondasunak eta zerbitzuak ematetik eratorritako diru-sarrera korronteak diru-zenbatekoaren arabera baloratuko dira, edo, hala dagokionean, hartatik jaso den edo jasotzea espero den kontrapartidaren arrazoizko balioaren arabera, eta, kontrako ebidentziarik ezean, zordunari transferitu beharreko aktiboetarako hitzartutako prezioa da, kenduta erakundeak eman ditzakeen deskontuen, prezioen beherapenen eta antzeko partiden zenbatekoa, bai eta kredituen nominalari atxikitako interesak ere. Edonola ere, barne sar litezke kontratu-interesik ez duten eta urtebetetik beherako epemuga duten kreditu komertzialei atxikitako interesak, eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen efektua esanguratsua ez den kasuetan.

Ez dira diru-sarreretan sartzen entitateak hirugarrenei jasanarazi beharko lizkiekeen zerbitzu emateko eragiketei ezartzen zaizkien zergak, hala nola balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak, eta hirugarrenen kontura jasotako zenbatekoak.

Entitateak diru-sarreraren balorazioan kontuan hartzen du kontraprestazio aldakorraren zenbatespena, baldin eta probabilitate handia badago gerora kontraprestazio horri loturiko ziurgabetasuna ebaztean aitortutako sarreraren zenbatekoaren itzulketa adierazgarria ez gertatzeko.

Arau orokorraren salbuespen gisa, lizentziak lagatzeko akordioekin lotutako kontraprestazio aldakorra, salmenten edo aktibo horien erabileraren partaidetza gisa, honako gertaera hauen ondoren gertatzen badira (edo horiek gertatu ahala) soilik aitortuko dira:

- a) gerora saltzen edo erabiltzen bada; edo
- b) entitateak kontratuaren arabera bere gain hartzen duen obligazioa eta kontraprestazio aldakorra partez edo osorik esleitu zaiona ordaintzen (edo partzialki ordaintzen) bada.

4.9. Ingurumenarekin lotutako ondare-elementuak-

Jardueraren garapenean ingurumen-inpaktua arintzea edo ingurumena hobetzea eta babestea helburutzat duten sistema, ekipo eta instalazioetan eragindako kostuak ibilgetuko inbertsio gisa erregistratzen dira.

Ingurumenarekin lotutako gainerako gastuak, aurrekoen bestelakoak, ekitaldiko gastutzat jotzen dira. Ingurumen arloko balizko hornidurak kalkulatzeko, horien berri izan den unean haien sortzapenaren zenbatespenik onenaren arabera zuzkitzen da, aseguru-polizek estaltzen ez badituzte eragindako kalteak.

Patronatuko Batzorde Betearazleko kideek berretsi dutenez, Fundazioak ez du ondarearekin, finantza-egoerarekin eta horien emaitzekin lotuta esanguratsua izan daitekeen ingurumen arloko erantzukizun, gastu, aktibo, hornidura edo arriskurik.

4.10. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

Fundazioak kolaborazio-hitzarmenak ditu zenbait proiektu finantzatzeko. Proiektu horiek egiteko kostuen ehunekoen arabera egotziko zaizkie sarrerei, eta emandako zenbatekoaren arabera, nahiz eta emandako zenbatekoa kobratzeke egon, betiere emateko eskatutako baldintzak bete badira edo, hala badagokio, etorkizunean beteko direla uste izateko arrazoizko zalantzarik ez badago.

Fundazioak honako irizpide hauek baliatuko ditu jaso dituen dirulaguntzen kontabilitatea egiteko:

- Ustiapenari emandako dirulaguntzak: emaitzei ordainduko zaizkie, eman ondoren, Fundazioaren ustez ezarritako baldintzak betetzen direnean eta, horrenbestez, ez dagoenean kobratzeari buruzko arrazoizko zalantzarik, eta emaitzei egotziko zaizkie aldi bakoitzean dirulaguntzatik eratorritako sarreraren eta diruz lagundutako gastuen artean korrelazio zuzena dagoela bermatzeko moduan.
- Kapitaleko dirulaguntzak: itzulgarriak ez direnak, zuzenean ondare garbiari egotzitako sarrera gisa erregistratzen dira, emandako zenbatekoaren arabera, zerga-efektua kendu ondoren. Hasieran erregistratzen dira, ematearen jakinarazpena jaso ondoren, emateko banakako ebazpenetan ezarritako baldintzak betetzeari dagokionez arrazoizko zalantzarik ez dagoela jotzen den unean.

Hasierako aitorpenean, Fundazioak aktibo gisa jasotako ondasunak edo zerbitzuak erregistratzen ditu, batetik, eta, bestetik, ondare garbian dagokion hazkundera. Erregistro-datatik aurrera, kapitaleko dirulaguntzak emaitzei egotzen zaizkie, horiekin finantzatutako aktiboek aldi horretan galdu duten balioaren proportzio berean, non eta ez diren balioa galdu ezin duten aktiboak; hala badira, besterendu diren edo inbentarioan baja eman zaien ekitaldiko emaitzari egotziko zaio.

Dirulaguntza itzulgarriak pasibo gisa erregistratzen dira, itzulezin bihurtu arte.

5.- IBILGETU MATERIALA

Honako hau da epigrafe honen baitako balantzeko partida bakoitzaren mugimenduen eta haien amortizazioen 2023ko ekitaldiko analisia:

	Eraik	Beste instalazio eta erreminta batzuk	Altzariak	Informazio- prozesuen ekipoak	Garraio- elementuak	Guztira
A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2022ko EKITALDIA	21.832.366,53	692.854,49	1.557.973,74	369.405,17	139.434,81	24.592.034,74
(+) Erosketak	26.351,45	18.323,39	53.439,91	8.316,18	0,00	106.430,93
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2022ko EKITALDIA	21.858.717,98	711.177,88	1.611.413,65	377.721,35	139.434,81	24.698.465,67
C) AMORTIZAZIO METATUA, HASIERAKO SALDOA, 2022ko EKITALDIA	8.118.219,83	623.769,06	1.438.605,56	362.010,87	139.434,81	10.682.040,13
(+) 2022ko ekitaldirako amortizaziorako zuzkidura	437.133,66	7.277,80	28.890,25	10.852,36	0,00	484.154,07
D) AMORTIZAZIO METATUA, AMAIERAKO SALDOA, 2022ko EKITALDIA	8.555.353,49	631.046,86	1.467.495,81	372.863,23	139.434,81	11.166.194,20
F) AMAIERAKO SALDOA, IBILGETU MATERIALA, AMORTIZAZIO ETA BALO- ZUZENKETAKIN. 2022ko EKITALDIA	13.303.364,50	80.131,02	143.917,85	4.858,12	0,00	13.532.271,48

A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2023ko EKITALDIA	21.858.717,98	711.177,88	1.611.413,65	377.721,35	139.434,81	24.698.465,67
(+) Erosketak	0,00	11.755,43	13.465,69	3.502,51	0,00	28.723,63
(-) Irteerak, bajak eta murrizketak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2023ko EKITALDIA	21.858.717,98	722.933,31	1.624.879,34	381.223,86	139.434,81	24.727.189,30
C) AMORTIZAZIO METATUA, HASIERAKO SALDOA, 2023ko EKITALDIA	8.555.353,49	631.046,86	1.467.495,81	372.863,23	139.434,81	11.166.194,20
(+) 2023ko ekitaldiko amortizaziorako zuzkidura	437.174,36	8.958,50	33.692,93	7.776,31	0,00	487.602,10
D) AMORTIZAZIO METATUA, AMAIERAKO SALDOA, 2023ko EKITALDIA	8.992.527,85	640.005,36	1.501.188,74	380.639,54	139.434,81	11.653.796,30
F) IBILGETU MATERIALA, AMAIERAKO SALDOA, AMORTIZAZIOAK ETA BALIO- ZUZENKETAK BARNE	12.866.190,14	82.927,95	123.690,61	584,33	0,00	13.073.393,01

“Ibilgetu Materiala” epigrafean erregistratutako AFak lagatako ondasunen 2023ko abenduaren 31ko balorazioa honako hau da:

	Saldo inicial bruto	Amortización acumulada hasta 31.12.2023	Saldo final neto
Eraikina lagatzea	21.685.198,30	8.982.175,11	12.703.023,19
Altzariak lagatzea	855.498,31	855.498,31	0,00
Bulegoko ekipoak lagatzea	276.268,99	276.268,99	0,00
Makineria eta tresna teknikoak lagatzea	267.952,69	267.952,69	0,00
Instalazioak lagatzea	147.744,70	147.744,70	0,00
AFaren ondasunak lagatzea guztira	23.232.662,99	10.529.639,80	12.703.023,19

Ez da gertatu ekitaldi honetan edo gerokoetan eragin nabarmenik izan dezakeen inguruabarrik hondar-balioei, balio-bizitzari edo amortizazio-metodoei dagokienez.

Fundazioak ez du balio-zuzenketarik egin ibilgetuko ondasunetan.

Ekitaldia ixtean erabat amortizatutako ibilgetu materialeko elementuen zenbatekoa 2.119.575,34 eurokoa da.

6.- ONDARE HISTORIKOKO ONDASUNAK

Honako hau da epigrafe honen baitako balantzeko partida bakoitzaren mugimenduen eta haien amortizazioen 2023ko ekitaldiko analisia:

	AFaren artelanak lagatzea	Arabako Artium Fundazioaren jabetzako artelanak	Ondasun higigarriak	Guztira
A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2022ko EKITALDIA	37.234.005,47	1.808.483,89	0,00	39.042.489,36
(+) Erosketak	0,00	320.482,96	0,00	320.482,96
(+/-) Egokitzapenak	0,00	0,00	0,00	0,00
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2022ko EKITALDIA	37.234.005,47	2.128.966,85	0,00	39.362.972,32
C) AMORTIZAZIO METATUA, HASIERAKO SALDOA 2021eko EKITALDIA	0,00	0,00	0,00	0,00
(+) 2022ko ekitaldiko amortizaziorako zuzkidura	0,00	0,00	0,00	0,00
(+/-) Egokitzapenak	0,00	0,00	0,00	0,00
D) AMORTIZAZIO METATUA, AMAIERAKO SALDOA 2022ko EKITALDIA	0,00	0,00	0,00	0,00
E) NARRIADURAGATIKO BALIO-ZUZENKETAK, AMAIERAKO SALDOA, 2022ko EKITALDIA	0,00	0,00	0,00	0,00
F) AMAIERAKO SALDOA, IBILGETU MATERIALA, AMORTIZAZIO ETA BALIO-ZUZENKETEKIN, 2022ko EKITALDIA	37.234.005,47	2.128.966,85	0,00	39.362.972,32

A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2023ko EKITALDIA	37.234.005,47	2.128.966,85	0,00	39.362.972,32
(+) Erosketak	0,00	436.852,68	102.033,10	538.885,78
(-) Irteerak, bajak eta murrizketak	0,00	-6.600,00	0,00	-6.600,00
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2023ko EKITALDIA	37.234.005,47	2.559.219,53	102.033,10	39.895.258,10
C) AMORTIZAZIO METATUA, HASIERAKO SALDOA 2023ko EKITALDIA	0,00	0,00	0,00	0,00
(+) 2023ko ekitaldiko amortizaziorako zuzkidura	0,00	0,00	373,56	373,56
(-) Irteerak, bajak, murrizketak eta lekualdatzeak	0,00	0,00	0,00	0,00
D) AMORTIZAZIO METATUA, AMAIERAKO SALDOA, 2023ko EKITALDIA	0,00	0,00	373,56	373,56
E) NARRIADURAGATIKO BALIO-ZUZENKETAK, AMAIERAKO SALDOA, 2023ko EKITALDIA	0,00	0,00	0,00	747,12
F) AMAIERAKO SALDOA, ONDARE HISTORIKOKO ONDASUNAK, AMORTIZAZIOAK ETA BALIO- ZUZENKETAK KENDUTA, 2023ko EKITALDIA	37.234.005,47	2.559.219,53	101.659,54	39.894.884,54

2023ko abenduaren 31n kontabilizatutako lagatzeen zenbateko gordina 37.234.005,47 eurokoa da, 2022ko zenbateko bera, 2023an lagatze-akordiorik egon ez delako.

2023an, 432.858,10 euroko zenbatekoa bideratu da artelanak erostera. Diru-sarrera horietatik, 297.052,68 euro erosketatik eratorriak dira eta beste 139.800,00 euroak dohaintzetatik (ikus 21. oharra). Hamaika dohaintza-hitzaumen sinatu dira guztira. Hamaika dohaintza-hitzaumen horietatik, hiru dokumentazio-funtsen dohaintzak izan dira.

Bajei dagokienez, Arabako Foru Aldundiari 1.655 komiki-alek osatutako funts bibliografikoa eman zaio dohaintzan, eta 6.600,00 euroko balioa du. Dohaintza dagokion dohaintza-hitzaumenaren bidez egin da.

Eskuratu eta dohaintza gisa jasotako artelan horien guztien balio kontabilizatua 2.559.219,53 eurokoa da guztira.

Ondasun higigarrien partidako erosketen zenbatekoa (102.033,10 €) Esther Ferrer artistaren *Zenbaki lehenak* obra osatzen duten zeramikazko piezen hornikuntzari eta instalazioari dagokio.

Ondorioz, 2023ko ekitaldiaren itxieran 39.894.884,54 eurokoak dira egoera-balantzean Ondare Historikoen Ondasun gisa kontabilizatu diren ibilgetu-elementuak, Arabako Foru Aldundiak Arabako Artium Fundazioari egindako obra-lagapenak nahiz Fundazioaren beraren jabetzako obrak eta 2023ko ekitaldian erositako ondasun higigarriak

Ondare Historikoko Ondasunen atal hau osatzen duten artelanak ez dira amortizatzen, artelanen balio-bizitza mugagabea dela ulertzen delako, eta aipatutako obrek ez dute narriadurarik funtzionamendu, erabilera edo gozamenagatik.

7.- HIGIEZINEN INBERTSIOAK

Fundazioak ez du era honetako inbertsiorik.

8.- IBILGETU UKIEZINA

Kontu bakoitzak mugimendu hauek izan ditu 2023ko ekitaldian:

	Artelanen gordailuak	Aplikazio informatikoak	Bestelako ibilgetu ukiezina	Guztira
A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2022ko EKITALDIA	6.203.151,06	285.737,03	13.594,90	6.502.482,99
(+) Erosketak	117.600,00	4.397,66	0,00	121.997,66
(-) Irteerak, bajak eta murrizketak	-60.200,00	0,00	0,00	-60.200,00
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2022ko EKITALDIA	6.260.551,06	290.134,69	13.594,90	6.564.280,65
C) AMORTIZAZIO METATUA, HASIERAKO SALDOA, 2021eko EKITALDIA	2.066.708,08	282.481,58	5.280,07	2.354.469,73
(+) 2022ko ekitaldiko amortizaziorako zuzkidura	1.565.397,18	2.858,00	271,90	1.568.527,08
(+/-) Egokitzapenak	-392.712,37	0,00	0,00	-392.712,37
D) AMORTIZA METATUA, AMAIERAKO SALDOA, 2022ko EKITALDIA	3.239.392,89	285.339,58	5.551,97	3.530.284,44
E) BALIO-ZUZENKETAK, AMAIERAKO SALDOA 2022ko EKITALDIA	0,00	0,00	0,00	0,00
F) AMAIERAKO SALDOA, IBILGETU UKIEZINA, AMORTIZAZIOAK ETA BALIO-ZUZENKETAK KENDUTA, 2022KO EKITALDIA	3.021.158,17	4.795,11	8.042,93	3.033.996,21

A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2023ko EKITALDIA	6.260.551,06	290.134,69	13.594,90	6.564.280,65
(+)Erosketak	0,00	16.767,84	0,00	16.767,84
(-) Irteerak, bajak eta murrizketak	-3.381.654,00	0,00	0,00	-3.381.654,00
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2023ko EKITALDIA	2.878.897,06	306.902,53	13.594,90	3.199.394,49
C) AMORTIZAZIO METATUA, HASIERAKO SALDOA, 2023ko EKITALDIA	3.239.392,89	285.339,58	5.551,97	3.530.284,44
(+)2023ko ekitaldiko amortizaziorako zuzkidura	1.160.690,84	1.519,86	271,90	1.162.482,60
(+/-) Egokitzapenak	-3.012.172,40			-3.012.172,40
D) AMORTIZAZIO METATUA, AMAIERAKO SALDOA, 2023ko EKITALDIA	1.387.911,33	286.859,44	5.823,87	1.680.594,64
E) NARRIADURAGATIKO BALIO-ZUZENKETAK, AMAIERAKO SALDOA, 2023ko EKITALDIA	0,00	0,00	0,00	0,00
F) AMAIERAKO SALDOA, IBILGETU UKIEZINA, BALIO-ZUZENKETAK ETA AMORTIZAZIOAK KENDUTA, 2023KO EKITALDIA	1.490.985,73	20.043,09	7.771,03	1.518.799,85

Artelanen gordailuak gordailu-hitzarmenean jasotako prezioaren arabera baloratzen dira.

Egokitzapenak bat datoz gordailu-hitzarmenak luzatzearekin eta hitzarmenak alde aurretik deuseztatzearen ondoriozko bajekin.

2023an ez zen egin artelanen gordailuaren hitzarmen berririk.

2023an artelanen hamalau gordailu kendu dira, 3.381.654,00 eurokoak, guztira, eta horien balorazioa 2023ko Irteerak, bajak eta murrizketak atalaren barruan jaso da. Bi kasutan, Fundazioak eskuratu ditu artelanak.

Ez da gertatu ekitaldi honetan edo gerokoetan eragin nabarmenik izan dezakeen inguruabarrik hondar-balioei, balio-bizitzari edo amortizazio-metodoei dagokienez.

Fundazioak ez du balio-zuzenketarik egin ibilgetu ukiezineko ondasunetan.

Guztira amortizatutako ibilgetu ukiezineko elementuek, artelanen gordailuak aintzat hartu gabe, 292.747,18 euroko zenbatekoa hartzen dute ekitaldia ixterakoan.

9.- ALOKAIRUAK ETA ANTZEKO BESTE ERAGIKETA BATZUK

Fundazioak ez du alokairurik eta antzeko beste eragiketarik.

10.- FINANTZA-TRESNAK

10.1. Finantza-aktiboak

Aktibo ez korronteen epe luzeko inbertsioen epigrafea 1.000,00 euroko epe luzeko fidantza bati dagokio. Partida honek ez du mugimendurik izan 2023an.

Aktibo korronteen epe laburreko finantza-inbertsioen epigrafea 50,00 eurokoa da, eta Interneten erosketak egiteko app bat erabiltzeko eratutako fidantza bati dagokio. Epigrafe honetan ere ez da mugimendurik izan 2023an.

10.2. Finantza-pasiboak

10.2.1 Epe laburreko zorrak taldeko entitateekin eta entitate elkartuekin

Ez dago.

10.2.2 Epe laburreko zorrak

Beste finantza pasibo batzuk izeneko partida, 11.401,28 euroko zenbatekoko, Fundazioak deitutako hiru lizitazio publikoren esleipendunengandik jasotako behin betiko bermeei dagokie (12.003,33 €). Gainerakoa (51,84 €), aplikatzeke dauden partidei.

10.3. Finantza-aktiboen eta finantza-pasiboen sailkapena

Honako hauek dira 2022ko datuak:

Finantza-aktiboak

	Saldoa, 2022/12/31n	Galdu-irabazien bidez arrazoizko balioan baloratutako finantza-aktiboak	Kostu amortizatuko finantza-aktiboak	Kostuko finantza-aktiboak	Ondare Garbian aldaketak dituzten arrazoizko balioko finantza-aktiboak
Epe luzeko finantza-tresnak	1.000,00	0,00	1.000,00	0,00	0,00
Epe laburreko finantza-tresnak	264.706,33	0,00	264.706,33	0,00	0,00

Finantza-pasiboak

	Saldoa, 2022/12/31n	Kostu amortizatuko finantza-tresnak	Galdu-irabazien bidez arrazoizko balioan baloratutako finantza-tresnak
Epe laburreko finantza-tresnak	494.872,72	494.872,72	0,00

Honako hauek dira 2023ko datuak:

Finantza-aktiboak

	Saldoa, 2023/12/31n	Galdu-irabazien bidez arrazoizko balioan baloratutako finantza- aktiboak	Kostu amortizatuko finantza- aktiboak	Kostuko finantza- aktiboak	Ondare Garbian aldaketak dituzten arrazoizko balioko finantza- aktiboak
Epe luzeko finantza-tresnak	1.000,00	0,00	1.000,00	0,00	0,00
Epe laburreko finantza-tresnak	453.625,74	0,00	453.625,74	0,00	0,00

Finantza-pasiboak

	Saldoa, 2023/12/31n	Kostu amortizatuko finantza- tresnak	Galdu-irabazien bidez arrazoizko balioan baloratutako finantza-tresnak
Epe laburreko finantza-tresnak	568.664,35	568.664,35	0,00

11.-JARDUERA PROPIOAREN ERABILTZAILEAK ETA BESTE ZORDUN BATZUK. ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK

Guztira 2.456,17 euro dagozkie jardun propioaren erabiltzaile eta zordunei.

Babesleak, afiliatuak eta beste zordun batzuk izeneko partidaren zenbatekoa (72.000,00 €) ekitaldiaren amaieran kobratzeke dauden zenbatekoei dagokie. 2023an, 27.651,05 euro dagozkie jarduera komertzialengatiko zordun komertziaiei.

Administrazio Publikoekiko beste kreditu batzuk partida (351.468,52 €) ordaintzeke dauden 2023ko BEZaren itzulketek (178.883,99 €), ekitaldia ixtean kobratzeke dauden 2023ko dirulaguntzek (166.750,00 €) eta Gizarte Segurantzako erakunde zordunek (5.834,53 €) osatzen dute.

12.-ONURADUNAK - HARTZEKODUNAK. HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINDU GABEKO BESTE KONTU BATZUK

Onuradunei dagokienez, Fundazioak ez du horrelako pasiborik.

Hartzekodun komertzialen partidaren zenbatekoa 703.414,32 eurokoa da.

Hartzekodunen partida 552.961,39 eurokoa da.

“Ordaintzeke dauden ordainsariak” partidakoak dira 2023ko soldaten atzerapenak eta sortutako soldatak eta 2024an ordaindutakoak.

“Ogasun publikoa, hartzekoduna kontzeptu fiskalengatik” partida 2023ko laugarren hiruhilekoari dagokion konturako ordainketa eta atxikipenei dagokie. “Gizarte Segurantzako organismo hartzekodunak” partida ekitaldiaren itxieran ordaintzeko dauden gizarte-kotizazioei dagokie.

Epigrafe hau honela dago banakatuta:

	2023	2022
Hornitzaileak	508,20	0,00
Zerbitzu-prestazioengatiko hartzekodunak	552.961,39	416.337,74
Ordaintzeke dauden ordainsariak	4.301,68	0,00
Og. Publikoa, kontzeptu fiskalengatiko hartzekoduna	91.298,66	77.945,18
Administrazio Publikoarekiko beste zor batzuk	19.585,12	30.169,12
Gizarte Segurantzako organismo hartzekodunak	34.759,27	35.257,78
Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko beste kontu batzuk	703.414,32	559.709,82

13.- FUNTS PROPIOAK

Gizarte Funtsa, Arabako Foru Aldundiak emandakoa, 180.303,63 eurokoa da; erabat sinatuta eta ordainduta dago Fundazioa eratzeke egintza-unetik.

	Funts Soziala	Gerakina	Ekitaldiaren emaitza	Guztira
A) HASIERAKO SALDOA, 2022ko EKITALDIA	180.303,63	-42.751,90	39.680,64	177.232,37
(+) Gehikuntzak	0,00	0,00	3.071,26	3.071,26
(+/-) Intsuldaketak	0,00	39.680,64	-39.680,64	0,00
B) AMAIERAKO SALDOA, 2022ko EKITALDIA	180.303,63	-3.071,26	3.071,26	180.303,63
A) HASIERAKO SALDOA, 2023ko EKITALDIA	180.303,63	-3.071,26	3.071,26	180.303,63
(+) Gehikuntzak	0,00	0,00	-3.102,49	-3.102,49
(+/-) Intsuldaketak	0,00	3.071,26	-3.071,26	0,00
B) AMAIERAKO SALDOA, 2023ko EKITALDIA	180.303,63	0,00	-3.102,49	177.201,14

Ekitaldi-amaieran, funts propioak 177.201,14 eurokoak dira.

2023ko hasierako saldoa txikitu egin da ekitaldiari dagokion soberakin positiboaren zenbatekoan (3.102,49 €). Funts propioen amaierako saldoa 177.201,14 eurokoa da.

Artium Fundazio publikoa denez, jardueraren jarraitutasun-printzipioaren arabera prestatzen dira urteko kontuak.

14.- IZAKINAK

Izakinen banaketa hau da 2023ko abenduaren 31n:

	2023	2022	Variación
Dendako eta Liburu-dendako izakin komertzialak	86.939,03	87.641,11	-702,08
Erakusketen katalogoak	157.042,07	139.454,19	17.587,88
Total Existencias (Bienes destinados a la actividad)	243.981,10	227.095,30	16.885,80
(-) Depreciación existencias comerciales	-17.641,44	-22.522,36	4.880,92
(+) Depreciación catálogos exposiciones	-147.514,02	-131.434,90	-16.079,12
Total Depreciación Existencias (Bienes destinados a la actividad)	-165.155,46	-153.957,26	-11.198,20
Saldo Final Existencias (Bienes destinados a la actividad)	78.825,64	73.138,04	5.687,60
Productos en curso	8.277,59	12.650,02	-4.372,43
Saldo final total Existencias	87.103,23	85.788,06	1.315,17

Izakinen balio osoa, Denda eta Liburu-dendako salgaiak, Artium Museoak argitaratutako katalogoen izakinak eta ekitaldia ixterakoan dauden aribideko argitalpenak barne, 87.103,23 eurokoa da (2022an, 85.788,06 €).

Artium Museoaren Dendako izakinak (86.939,03 €) batezbesteko prezio haztatuaren sistemaren bidez baloratzen dira.

Fundazioak izakin komertzialen narriaduragatiko hornidurarako zuzkidurak egiten ditu haien kostuak merkatuko balioa gainditzeko duenean edo berreskuratzeko zailtasunak daudenean. Horregatik, 2023an izakin komertzialen azterketa zehatza egin da, eta komenigarritzat jo da 17.641,44 euroko balio-galerako hornidura zuzkitzea.

Artiumek argitaratutako katalogoen izakinak (157.042,07 €) ekoizpen-kostuaren arabera zenbatetsi dira.

Artium Museoak argitaratutako katalogoen izakinei dagokienez, balorazio-zuhurtziaren irizpidea jarraituz balio-galeragatiko 147.514,02 euroko hornidura eman da.

Aribideko produktuen izakinak (8.277,59 €) ekitaldiaren amaieran bidean dauden baina oraindik argitaratu ez diren katalogoen ekoizpen-kostuei dagozkie (2022an, 12.650,02 €).

15.- ATZERRIKO DIRUA

Ez da aplikatzekoa Fundazioarentzat.

16.- ZERGA-EGOERA

Arabako Artium Fundazioak Irabazi Asmorik Gabeko Erakundeen eta Mezenasgorako Zerga Pizgarrien Zerga Araubideari buruzko 2021eko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauan aurreikusitako zerga-araubidea aplikatzen du, irabazi-asmorik gabeko entitateetarako Sozietateen gaineko Zergari dagokionez; Dendatik eta liburu-dendatik zein museoaren jardueratik eratorritako etekinak salbuesteko baimena eman zaio. Salbuespenak ez ditu barne hartzen, hala ere, alokairuan ustiatzen diren jatetxe eta kafetegiaren etekinak.

Era berean, Fundazioaren jarduerak Ekonomia Jardueraren gaineko Zergatik salbuetsita daude.

Diputatuen Kontseiluaren urriaren 31ko 46/2023 Foru Dekretuan (2023ko azaroaren 8ko 131. ALHAOn argitaratua) adierazitakoaren arabera, Irabazi Asmorik Gabeko Erakundeen eta Mezenasgorako Zerga Pizgarrien Zerga Araubideari buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Araua aplikatuz, Arabako Artium Fundazioaren jarduera edo programak lehentasunezkoztat jo dira 2023an.

Lehenago esandakoarekin bat etorritik, 2023ko abenduaren 31n ez da Sozietateen gaineko Zergaren ondoriozko gasturik sortu.

Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen bitartez, aldaketak izan dira araudian, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izateko; aldaketa horien ondorioz izaera sozialeko entitateek BEZetik salbuetsita dituzte zenbait zerbitzu emate, esaterako liburutegi, dokumentazio-zentro eta agiritegienak, museo, arte-galeria edo pinakoteketako bisitak, antzezlanak, musikalak, koreografia-emanaldiak, ikus-entzunezkoak eta zinema arlokoak, baita erakusketak eta gisa horretako adierazpenak antolatzea ere.

2023ko ekitaldian, zerga-araubide honi lotuta dauden fakturretan jasandako BEZaren kuoten prorrata berezia kalkulatu da; % 92koa izan da (ehuneko bera 2022an).

Indarrean dauden legezko xedapenen arabera, zergen likidazioak ezin dira behin betikotzat hartu zerga-ikuskaritzek aztertu arte edo lau urteko preskripzio-epea igaro arte. 2023ko abenduaren 31n, Arabako Artium Fundazioak zabalik ditu, indarrean dagoen legediaren arabera preskribatu gabe dauden ekitaldietako zerga nagusi guztiak, zerga-agintaritzak ikuskatzeko. Arabako Artium Fundazioaren ustez, ikuskapenik izanez gero ere ez da pasibo gehigarri esanguratsurik sortuko.

17.- SARRERAK ETA GASTUAK

17.1. Jarduera propioaren diru-sarrerak

a) Bazkide eta afiliatuen kuotak

Bazkide eta afiliatuen kuotak, 14.546,00 euro, Artium Museoen Adiskideek 2023an emandako ekarpenei dagozkie (2022an, 15.721,00 €).

b) Erabiltzaileen ekarpenak

Erabiltzaileen ekarpenak, 17.405,62 euro (2022an, 19.362,19 €), leihatilako diru-sarrerari dagozkie: Museora sartzeko zein Artium Museoak sustatutako ekitaldietarako (zinema, eszena garaikidea, ikastaroak eta lantegiak, kontzertuak, etab.) sarreraren salmentari.

c) Sustapen, babesle eta laguntzaileen bidez eskuratutako sarrerak

Sustapen, babesle eta laguntzaileen bidez eskuratuta sarrerak -378.412,50 euro, 2023an- Museoa eta haren jarduerak finantzatzeko laguntzen duten enpresa eta erakundeek ekarpenei dagozkie. 2022an, sarrera horiek 382.000,00 eurokoak izan ziren.

Atal honen barruan Artiumen Kide Korporatiboen programa jaso da —lau kategoria hartzen ditu: Babesle pribatua, Enpresa babeslea, Erakunde lankidea eta Ohorezko Adiskidea—, baita proiektu zehatzak

garatzeko (erakusketak, jarduerak, hezkuntza-programak, etab.) beste enpresa eta entitate batzuek eskaintzen duten babesa ere.

Kide Korporatiboen programan 33 entitatek parte hartu dute 2023an.

d) Ekitaldiko soberakinari egotzitako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

"Ekitaldiko soberakinari egotzitako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak" kontua, 3.948.464,10 eurokoa (2022an, 3.743.093,23 €), Artium Museoa, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoaren mantentze- eta funtzionamendu-gastuak finantzatzeko erakundeek egindako ekarpenei dagokie.

Erakundeetatik jasotako transferentzia horiei dagokienez, 2023ko ekitaldian 2.290.464,10 euroko diru-sarrerak egon dira Arabako Foru Aldundiaren Artium Museoaren jarduna finantzatzeko emandako dirulaguntzenak. Guztizkoaren barruan dago turismoa sustatzeko jarduerak finantzatzeko 25.000,00 euroko zenbatekoagatik jasotako dirulaguntza.

Gainera, Fundazioak eskuratutako ibilgetuaren parte bat (eraikuntzak, instalazio teknikoak eta altzariak) Arabako Foru Aldundiak Fundazioari egindako 84.577,25 euroko ekarpenaren bidez finantzatu dira.

Azkenik, diru-sarreraren eta gastuen korrelazio-printzipioari jarraituz, 2023an egindako 42.236,28 euroko ekarpena ez da urteko dirulaguntzen diru-sarreretan sartu; izan ere, berez 2023. urterako aurreikusita zeuden programa eta jarduerak baziren ere, 2024. urteko lehen hilabeteetan amaituko dira. Antzeko arrazoiak direla-eta, urteko dirulaguntzen diru-sarreretan 89.575,63 euro sartu dira, 2022an emanak, berez 2022. urterako aurreikusita zeuden baina 2023. urtean garatu ziren programa eta jarduerak finantzatzeko.

Laburbilduz, Arabako Foru Aldundiaren funtsen ekarpen osoa 2.327.702,00 eurokoa izan da (2022an, 2.498.624,94 €).

2023an, 1.388.000,00 euro erregistratu dira Artium Museoaren jardura eta funtzionamendua finantzatzeko Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzetan. 1.325.000,00 euroko dirulaguntza nominatiboari 63.000,00 euroko beste dirulaguntza bat gehitu zaio, Néstor Basterretxea eskultorearen jaiotzaren ehungarren urteurrena oroitzeko jarduerak finantzatzeko 2024an.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak 200.000,00 euroko ekarpena egin du 2023an euskal sortzaile garaikideen artelanak erosteko. Erositako obrak partekatutako bilduma baten parte dira, eta Bilboko Arte Ederren Museoa eta Donostiako Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa daude bilduma horren erosketa-batzordean.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 100.000,00 euroko dirulaguntza nominatiboa eman du eta artelanak erosteko erabili da ia osorik.

Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak ekitaldi honetan emandako funtsek 1.688.000,00 euroko zenbatekoa iritsi dute (2022an, 1.525.000,00 euro).

Vitoria-Gasteizko Udalak Artium Museoaren funtzionamendua eta jarduera finantzatzen lagundu du 2023an, 120.000,00 euroekin, 2022ko zenbateko berarekin.

Azkenik, Kultura eta Kirol Ministerioak Fundazioaren aurrekontu arruntaren finantzaketan parte hartzen du, 150.000 euroko ekarpena eginez 2023an (110.000,00 euro 2022an).

17.2. Jarduera komertzialaren diru-sarrerak eta salmentak

Jarduera komertzialaren diru-sarreraren eta salmenten zenbatekoa 103.194,53 eurokoa izan da 2023an (2022an, 92.185,88 €).

Artiumen Denda eta Liburu-dendaren salmentak 3.540,83 eurokoak izan dira (2022an, 3.157,10 €).

Museoko jatetxe eta kafetegiaren alokairutik eskuratutako diru-sarrerak 71.676,48 eurokoak izan dira 2023an (2022an, 55.686,85 €); zenbateko horretatik 47.544,51 euro dagozkio maizterrak ordaindutako kanonari, eta gainerakoa kontsumo elektriko eta bestelako horniduren gastuak jasanarazteari dagokie.

Azkenik, ekitaldi eta ekimenen negozio-unitateko diru-sarrerak 27.977,22 eurokoak izan dira 2022an (2022an, 33.341,93 €).

17.3. Salgai-izakinen aldakuntza

Izakinen igoera (1.315,17 €) memoria honen 14. oharrean azaldu da, izakinei buruzko puntuan.

17.4. Hornidurak

Kontu hau Denda eta Liburu-dendarako izakinak erosteari dagokio batez ere, eta 9.008,74 euroko kopurua du (2022an, 458,61 €). 2023an, Gema Intxausti artistaren artelan baten edizio bat egin da eta Esther Ferrer artistaren artelan baten edizioaren bost unitate.

17.5. Jardueraren beste diru-sarrera batzuk

Hainbat zerbitzuren ondoriozko diru-sarrerak

Kopurua (8.630,00 €), batez ere erakusketen koprodukzioaren eta antzekoen sarrerei dagokie, honela banakatuta:

Kontzeptua	2023	2022
Erakusketen eta antzekoen koprodukzioas	6.041,56	431,00
Beste diru-sarrera batzuk	4.594,31	8.199,00
Guztira	10.635,87	8.630,00

Beste diru-sarrera batzuk epigrafeari dagozkio batik bat hainbat erakundetatik jasotako diru-sarrerak, Artium Museoko zuzendariak ikastaroetan, konferentzietan eta jardunaldietan parte hartzeagatik (4.270,38 €). Gainerakoa Fundazioak izandako gastuetatik eratorritako hainbat kontzeptu dira, besteak beste, lizitazio publikoen iragarkien fakturazioa eta horien esleipendunen beste gastu batzuk.

17.6. Langileen gastuak

2023an egindako langile-gastuak 1.433.572,68 eurokoak izan dira (2021ean, 1.367.061,56 €).

Partidak 2023ko ekitaldian Fundazioko lantaldea osatu duten langileen soldatak eta lansariak jasotzen ditu, bai langile finkoenak, bai aldi baterako langileenak.

Karga sozialak Gizarte Segurantzako kotizazioei eta beste abantaila sozial batzuei dagozkie, besteak beste, langileentzako enplegu plan baterako enpresa ekarpenei eta Fundazioko Langileen Hitzarmen Kolektiboan jasotako kopuru txikiagoko bestelako abantaila sozial batzuei.

Fundazioko langileen ordainsariek % 3,5 egin dute gora, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, homogeneousun-terminoetan. Abenduaren 31n, % 3,0 hazkundeari dagozkion kopuruak ordainduta zeuden. Beste % 0,5 2023ko Aurrekontu Orokorren Legetik eratorritako hazkundeari dagokio, hazkunde hori aurreikusten baitzuen EINek aurreratutako 2023ko BPG nominalaren datua % 6koa edo handiagoa baldin bazen. 2023ko ekitaldiko soldaten eta ordainsarien kalkuluak ordainsarien hazkunde hori aurreikusten duen arren, urteko kontu hauek formulatu diren egunean, Batzorde Exekutiboak oraindik onartu gabe zuen ordainsariaren hazkunde hori.

Langileentzako % 2,5eko soldaten igoera onartu zen AFAko Diputatuen Kontseiluan (119/2023 eta 120/2023 akordioak, 2023ko martxoaren 14ko Foru Gobernuaren Kontseiluarenak), eta, ondoren, Fundazioaren Patronatuko Batzorde Betearazleak 2023ko martxoaren 28an egindako bileran onartu zuen bertako langileentzat.

Aurrerago, 2023ko urriaren 24ko Foru Gobernuaren Kontseiluaren 659/2023 erabakiarekin bat etorritik, zeinaren arabera onartzen baitzen Arabako Foru Aldundiaren zerbitzuko langileen ordainsariak % 0,5 igotzea 2022. urtekoekin alderatuta, Batzorde Betearazleak igoera bera onartu zuen Fundazioaren langileentzat, 2023ko azaroaren 16an egindako bileran.

Ordainsarien igoera horiei buruz, Arabako Lurralde Historikoaren 2023rako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 20ko 23/2022 Foru Arauaren 29.4 artikuluan ezarritakoa betez, aldeko txostena eman du Arabako Foru Aldundiko Finantza eta Aurrekontuen Zuzendaritzak.

17.7. Jardueraren beste gastu batzuk

a) Kanpoko Zerbitzuak

Zenbatekoa (3.008.441,08 €) atal hauetan banatzen da:

	2023	2022
Alokairuak	5.432,60	7.170,35
Konponketa eta mantentze-la	301.338,65	249.581,63
Zerbitzu profesionalak	167.144,30	91.311,10
Garraioak	88.959,23	76.342,42
Aseguru-primak	76.450,16	75.138,59
Banku-zerbitzuak	1.498,38	1.165,68
Publizitatea eta propaganda	236.513,82	277.264,48
Hornidurak	187.402,76	191.731,98
Bestelako zerbitzuak	1.759.582,14	1.708.455,87
BEZaren hainbanako egokitzap	184.119,04	172.326,29
Guztira	3.008.441,08	2.850.488,39

Alokairuak kontzeptuan, Museoaren jarduerak garatzeko eta mantentzeko beharrezko instalazioak eta ekipamenduak alokatzeko kostua jaso da. Konponketa eta Mantentze-lanen kontzeptuan Artium Museoaren eta instalazioen prebentziorako eta zuzenketarako mantentze-lanen kostua jaso da, eta baita eraikinaren garbiketa eta informatika-software eta -ekipamenduen mantentze-kostua ere.

Zerbitzu Profesionalen kontzeptuan, artista eta komisarioen ordainsarien ordainketak jaso dira; bidenabar, aholkularitza juridikoaren eta lan arlokoaren kostua ere jaso da.

Garraioak kontzeptuan, artelanen lekualdatze-kostua jaso da, bai erositakoena, bai Artium Museoan erakutsitakoena ere. Aseguru-primak honako hauei dagozkie: Artiumen eraikin, instalazio eta Arabako Foru Aldundiaren jabetzako arte-bildumaren aseguru-polizak ordaintzea, Artium Museoan aurkeztutako erakusketen aseguru-kostua eta Artium Museoaren erantzukizun-polizaren kostua.

Banku-zerbitzuak banku-eragiketarako egiteagatik eta kontuak mantentzeagatik banku-entitateei ordaindu beharreko komisioei dagozkie.

Publizitatea eta propaganda kontzeptuan, komunikabideetan egindako Artiumen jardueren publizitatea zein ekitaldian zehar egindako marketing-ekintzak jaso dira, baita turismoa sustatzeari lotutakoak ere. Kopuru horren barruan adierazi behar da zati garrantzitsu bat (184.080,15 €) Artium Museoaren kide korporatiboen programako enpresa eta entitateen elkartruke-ekarpenei dagokiela; horrenbestez, kopuru bereko diru-sarrerekin konpentsatzen da.

Horniduren partida Museoaren ur-, gas- eta elektrizitate-kontsumoari dagokio, baita Internet sarearen konexioaren eta telefono finko zein mugikorren gastuei ere.

Partidarik handienak, Bestelako zerbitzuak izenekoak, barne hartzen ditu Artium Museoaren jardunari lotutako gastu-partidak; besteak beste, honako hauek:

- Erakusketak prestatu eta muntatzeko gastuak
- Argitalpenak editatzea
- Hezkuntza-programen garapena
- Jarduera-programen garapena
- Jendaurreko arreta-zerbitzua
- Zaintza- eta segurtasun-zerbitzua
- Artium Museoaren Adiskideen Programa eta Babesle Pribatuen Programa
- Askotariko kontsumigarriak: sarrerak, bulegoko materiala, kopiak, etab.
- Funts artistikoen eta bibliografikoen dokumentazioa eta katalogazioa, eta artelanen erregistroa

Azkenik, taulan partida bereizi gisa banakatu da, nahiz eta kontabilitatearen ikuspuntutik Bestelako zerbitzuak partidaren barruan jaso den, 2023ko ekitaldiari dagokion BEZaren prorrataren egokitzapenaren zenbatekoa, 184.119,04 eurokoa (2022an, 171.326,29 €).

b) Zergak

Zenbateko honetan (34.600,23 €) barne dago Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kostua (31.897,76 €), Arabako Foru Aldundiak Fundazioari jasanarazia. OHZren kostua 2022an 31.897,70 eurokoa izan zen.

c) Kudeaketa korronteko beste gastu batzuk

Saldo-diferentzien zuzenketei dagokie. 2023an negatiboa da saldoa (185,52 €).

17.8. Ibilgetuaren amortizazioa

Zenbatekoa Fundazioak erositako ibilgetu material eta ukiezineko ondasunak eta AFAk lagatako ondasunak amortizatzen bideratutako zuzkidurei dagokie, arte-bilduma kanpo utzita. 2012tik aurrera artelanen aldi baterako gordailu-hitzarmenak ere amortizatzen dira. Zuzkiduren zenbatekoa (1.650.458,25 €) bat dator ekitaldiko soberakinera eramandako Kapitaleko dirulaguntza, dohaintza eta legatuen partidako kopuruarekin.

17.9. Ibilgetua besterentzearen ondoriozko narriadura eta emaitzak

Esleitutako zenbatekoa (6.600,00 €) Arabako Foru aldundiari dohaintzan emandako 1.655 komiki-aleko funts bibliografikoari dagokio. Dohaintza hori dagokion hitzarmenaren bidez egin zen.

17.10. Beste emaitza batzuk

Ekitaldiko zenbateko positiboa (9.586,18 €) ezohiko emaitzei dagokie, aseguru-etxeek ezbeharrengatik emandako hiru kalte-ordainen ordainketatik eratorritakoak.

17.11. Dirulaguntzak

Juncal Ballestín nazioarteko ikerketa-bekaren esleipenari dagokio.

17.12. Gardentasun-politika: irabazien eta galeren kontuari buruzko bestelako informazio bat

Museoaren 2023ko gastuaren kudeaketa gardenagoa eta ulergarriagoa izan dadin, Fundazioaren kontabilitate analitikoaren bidez lortutako informazio osagarria aditzera ematen da jarraian.

Museoaren gastua zazpi atal handitan bana daiteke:

1. Langileekin zerikusia duten gastuak, honako hauek barne hartuta: soldatak eta ordainsariak, gizarte-segurtasuneko kotizazioak eta beste abantaila sozial batzuk, prestakuntzaren kostua eta praktika-programaren kostua.

2. Hurrenez hurreneko bitarteetako lizitazio publikoen esleipendun diren kanpoko enpresekiko (kontratekiko) harremanei dagozkien gastuak. Kontratek honako zerbitzu hauek biltzen dituzte: garbiketa, instalazioen, eraikinaren eta bildumaren segurtasuna, jendearentzako arreta, artelanen manipulazioa eta erakusketen mantentze-lanak, eraikina eta instalazioak mantentzeko zerbitzua, funts artistiko eta bibliografikoen dokumentazioa eta katalogazioa, eta bisita gidatuen eta hezkuntza-jardueren zerbitzua.
3. Museoaren eraikinak berak eta haren mantentzeak eragindako gainerako gastuak, aurreko paragrafoan adierazitako kontratekin zerikusia duten gastuak alde batera utzita. Barne hartzen ditu elektrizitate- eta gas-horniduren kostua, eraikinaren eta Arte Bildumaren aseguru-polizen kostua, Fundazioak ordaindutako zergak eta funts bibliografikoen erosketak.
4. Artium Museoaren jarduerarekin lotutako beste gastu batzuk. Barne hartzen dituzte erakusketak, argitalpenak eta jarduerak egiteko behar diren kontratazioak edo muntaketa –hala nola artelanen garraioa, erakusketa-espazioak muntatzea–, produkzio-gastuak eta artisten eta komisarioen ordainsari profesionalak, eta liburuxken eta katalogoen argitalpena. Kontraten bigarren atalean sartuta daude Bildumako artelanen eta Liburutegiko Dokumentazio Zentroko dokumentu-funtsen katalogazio- eta dokumentazio-gastuak eta Museoaren hezkuntza-jarduerarako gidak eta hezitzaileak kontratatzea, besteak beste.
5. Marketingarekin eta komunikazioarekin lotutako gastuak: publizitate-gastuak sartzen dira hemen, truke bidez sortutakoa barne (ikus 17.7. oharra), bai eta kide korporatiboen programako beste gastu batzuk, Artium Museoaren Adiskideenak, komunikazioa emateko besteren zerbitzuak eta web-orria ere.
6. Beste gastu batzuk; barne hartzen dituzte lege-aholkularitza, komunikazioak eta Internet, bidaiagastuak, arte grafiko orokorrak eta bestelako gastuak eta gastu finantzarioak.
7. Ibilgetu materialean eta ez-materialean egindako inbertsioak.

Hala, funtzionamendu-eragiketa eta gastu guztietatik (inbertsioak barne, baina amortizazioen kostua eta izakinen aldakuntza kenduta), 2023ko ekitaldian jarraian adierazten den moduan banakatu dira gastuak:

Kontzeptua	2023	2022
Langileei lotutako gastuak	% 29	% 30
Kanpoko enpresen (kontratak) gastuak	% 24	% 25
Eraikinari eta Bildumari lotutako gastuak	% 9	% 9
Jarduerari lotutako bestelako gastuak	% 19	% 17
Marketingeko eta komunikazioko gastuak	% 5	% 7
Beste gastu batzuk	% 4	% 4
Inbertsioak	% 9	% 8
Guztira	% 100	% 100

Horrez gain, gardentasunaren atal honetan, interesgarria da beste datu bat, Sektore publikoko kontratuei buruzko legean jasotakoaren arabera lizitazio publikoen deialdien bitartez kontratatutako gastuena. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, Arabako Artium Fundazioa botere adjudikatzaileria da. Hortaz, Fundazioak honako printzipioak aplikatzen ditu kontratazio-prozeduretan: publikotasuna, konkurrentzia, gardentasuna, konfidentzialtasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza. Fundazioak bere webgunean –Gardentasuna, Kontratazioa atala– eskuragarri du kontratuei buruzko informazioa. Horri buruzko informazioa orobat eskura daiteke Eusko Jaurlaritzaren kontratazio-plataforman, atari horretan argitaratzen baitira Artium Museoaren lizitazio publiko guztiak.

Alderdi horretatik, lizitazio publiko irekien bitartez edo gutxienez hiru eskaintza eskatuz kontratatutako gastu arruntaren ehunekoa % 34,62koa izan da 2023ko ekitaldiko gastu arrunt osoan (2022an, % 34,05koa izan zen), kanpo utzita amortizazioak, finantza-gastuak. Ehunekoa % 51,07koa da langileen gastuak kanpo uzten badira (2022an, % 50,37koa izan zen). Honako kontratu hauek egin dira lizitazio publikoko prozeduraren bitartez:

- Instalazioen prebentzio eta zuzenketako mantentze-lanak
- Artelanen argazkiak
- Garbiketa
- Hornikuntza elektrikoa eta gasa (AFaren erosketen zentrala)
- Jendaurreko arreta-zerbitzua
- Segurtasuna eta zaintza
- Bisita gidatuak eta jarduera didaktikoak
- Errotulazioa
- Ikus-entzunetakoetarako laguntza teknikoa

- Artium Museoaren funts artistiko eta dokumentalen dokumentazio- eta katalogazio-zerbitzua eta Artium Museoaren Liburutegiko erabiltzaileen arreta-zerbitzua
- Artelanak manipulatzeko eta erakusketetako mantentze-lanak
- Erakusketak muntatzea eta desmuntatzea
- Muntaketa eta desmuntaketa museografikorako zurgintza-zerbitzuak
- Jatetxearen eta kafetegiaren zerbitzuen esleipena

Inbertsioei dagokienez, artelanak erostekoak kanpo utzita, egindako inbertsio osoaren % 80,77 hartu dute lizitazio publiko irekien bitartez edo gutxienez hiru eskaintza eskatuz egindako kontratuek (2022an % 78,82).

2023an lizitazio publiko hauetarako deialdia egin da:

- Artium Museoaren publikoarentzako arreta-zerbitzua: JIG EASY SERVICES S.L. enpresari esleitu zaio.
- Artium Museoko funts artistikoen eta dokumentalen dokumentazioa eta katalogazioa: IBAI SISTEMAS S.A enpresari esleitu zaio.
- Artelanen argazkiak: Gert Voor d'Int Holti esleitu zaio.
- Artium Museoko barruko plazan artelan bat instalatzeko obra txikiaren kontratazioa: ETXEJAUN XXI SL enpresari esleitu zaio.
- Artiumeko segurtasuna eta zaintza. Lizitazioa ezeztatu da.
- Artium Museoaren segurtasuna eta zaintza: 2024an Gasteiz de Vigilancia SLri esleitu zaio. Enpresa lizitatzailerak batek helegite berezia jarri du, beraz, prozedura etenda geratu da Kontratuen inguruko Errekurtsoen Foru Organoak helegitea ebatzi arte.
- Nestor Basterretxearen jaiotzaren ehungarren urteurrena oroitzeko webgunea diseinatzea, garatzea eta mantentzea: 6TEMS COMUNICACIÓ INTERACTIVA SL enpresari esleitu zaio.
- Artium Museoarentzako hotza sortzeko sistema termikoa hornitu eta instalatzea: VENTICLIMA SA enpresari esleitu zaio 2024an.
- Artium Museoko bisita-gidatuak eta hezkuntza-jarduerak: EULEN SA enpresari esleitu zaizkio 2024an.
- Erakusketetako artelanen manipulaziorako, muntaketarako eta desmuntaketarako hornitzaileak homologatzeko esparru-hitzarmena: GIROA S.A., CLOISTER SERVICES 2000 S.L. eta ARTEKA UNE ETA GESIÓN S.L. hautatu ziren zerbitzu horiek emateko enpresa homologatu gisa. Esparru-hitzarmen horren ondorioz, kontratu hauek lizitatu dira, eta enpresa homologatuek aurkeztutako eskaintza merkeenari esleitu zaizkie:
 - *Zeru bat. Hamaika Bide* erakusketako artelanen manipulazioa, muntaketa eta desmuntaketa:

CLOISTER SERVICES 2000 S.L.U.ri esleitua.

- Alejandro Cesarcoren *Beste adibide berri batzuk* erakusketako artelanen manipulazioa, muntaketa eta desmuntaketa: GIROA S.A.U.ri esleitua.
 - Julia Spinolaren *Persona, foto, copia* erakusketako artelanen manipulazioa, muntaketa eta desmuntaketa: GIROA S.A.U.ri esleitua.
 - Carolina Caycedoren *Adiskideen lurraldea / Tierra de los amigos / Land of Friends* erakusketako artelanen manipulazioa, muntaketa eta desmuntaketa: GIROA S.A.U. enpresari esleitua.
 - Carolina Caycedoren *Adiskideen lurraldea / Tierra de los amigos / Land of Friends* erakusketako artelanen manipulazioa, muntaketa eta desmuntaketa: GIROA S.A.U. enpresari esleitua.
 - *Edonor denok inor ez. Euskal Herriko arte-hezkuntza instituzionalizatzeko prozesuak, 1978-1991* erakusketako artelanen manipulazioa, muntaketa eta desmuntaketa :2024an CLOISTER SERVICES 2000 S.L.U.ri esleitua.
- Artium Museoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Arte Garaikideko Museoan, muntaketa eta desmuntaketa museografikoak egiteko zurgintza-zerbitzuen hornitzaileak homologatzeko esparru-akordioa: enpresa lizitatzailerik bakarra aurkeztu zen, GIROA S.A., eta bera izan da zerbitzu horiek eskaintzeko aukeratutako enpresa homologatzailea. Esparru-hitzarmen horren ondorioz, kontratu hauek lizitatu dira, eta enpresa homologatu honek aurkeztutako eskaintza merkeenari esleitu zaizkie:
- Egungo hormak eraistea, horma berriak eraikitzea eta elementu osagarriak fabrikatzea *2023ko bildumarako*: GIROA S.A.U enpresari esleitua.
 - Egungo hormak eraistea, horma berriak eraikitzea eta elementu osagarriak fabrikatzea *Alejandro Cesarcoren Beste adibide berri batzuk* erakusketarako: GIROA S.A.U enpresari esleitua.
 - Egungo hormak eraistea, horma berriak eraikitzea eta elementu osagarriak fabrikatzea *Julia Spínolaren Persona, foto, copia* erakusketarako: GIROA S.A.U enpresari esleitua.
 - Egungo hormak eraistea, horma berriak eraikitzea eta elementu osagarriak fabrikatzea *Carolina Caycedoren Adiskideen lurraldea / Tierra de los amigos / Land of Friends* erakusketarako: GIROA S.A.U enpresari esleitua.
- Artium Museoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Arte Garaikideko Museoan, muntaketa eta desmuntaketa museografikoak egiteko zurgintza-zerbitzuen hornitzaileak homologatzeko esparru-akordioa: GIROA S.A. eta ERAKUS ARQUITECTURA DE INTERIORES aukeratu ziren zerbitzu horiek eskaintzeko enpresa homologatu gisa. Esparru-hitzarmen horren ondorioz, kontratu hauek lizitatu dira, eta enpresa homologatu honek aurkeztutako eskaintza merkeenari esleitu zaizkie:

- Egungo hormak eraistea, horma berriak eraikitzea eta elementu osagarriak fabrikatzea *edonor denok inor ez. Euskal Herriko arte-hezkuntza instituzionalizatzeko prozesuak, 1978-1991* erakusketarako: 2024an GIROA S.A.U enpresari esleitua.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Artium Museoaren www.artium.eus webguneko "Gardentasuna" - "Kontratazioa" atalera jotzea gomendatzen da, hortxe baitaude kontratatzailearen profila eta Fundazioak egindako lizitazio publikoko deialdiak.

Bestalde, Fundazioak bat egin du energia elektrikoaren hornidurarako Foru Kontratazioko Zentralarekin eta Arabako Foru Aldundian indarrean dagoen gasaren hornidura-kontratuarekin.

2018. urteaz geroztik Euskadiko kontratazio-plataforman sartuta dago Fundazioa, eta plataforma horretako kontratatzailearen profilean argitaratzen ditu lizitazio guztiak, kontsulta egin ahal izateko. Plataforma horretan bertan dago eskuragarri kontratu txikiei buruzko informazioa.

17.13. Horniduren gaindikinak

2023an ez da horrelako eragiketarik egin.

17.14. Sarrerak eta finantza-gastuak

Fundazioak banku-erakundeetan dituen bankuko saldoen ordainsarrietatik eratorritako finantza-sarrerak 12.374,75 eurokoak dira.

2023an ez da halakorik izan.

18.- HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK

2023an ez da inolako hornidurarik izan.

19.- INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA

Ekitaldi honetan ez da inolako gastu edo inbertsiorik egin ingurumenari dagozkion alderdietan.

20.- LANGILEEN EPE LUZERAKO ORDAINSARIAK

Ez da aplikagarria Fundazioaren kasuan.

21.- DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Partida honen azalpen xehakaturia taula honetan jaso da:

	Kapitaleko diru- laguntzak	Babesleen eta Patronoen ekarpenak	Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak	AFaren lagapenak	Artelanen dohaintzak	Artelanen gordailuak	Guztira
A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2022ko EKITALDIA	709.306,98	88.449,79	15.000,00	50.804.436,61	1.273.966,50	4.136.441,32	57.027.601,20
(+) Gehikuntzak	509.405,87	89.575,63	0,00	0,00	44.501,50	452.202,73	1.095.685,73
(-) Kendutakoak	53.580,00	88.449,79	0,00	433.703,97	0,00	1.567.487,54	2.143.221,30
(+/-) Egokitzapenak	0,00	0,00	0,00	0,00	50,00	0,00	50,00
F) HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO SARREREN AMAIERAKO SALDOA, 2022ko EKITALDIA	1.165.132,85	89.575,63	15.000,00	50.370.732,64	1.318.518,00	3.021.156,51	55.980.115,63
A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2023ko EKITALDIA	1.165.132,85	89.575,63	15.000,00	50.370.732,64	1.318.518,00	3.021.156,51	55.980.115,63
(+) Gehikuntzak	444.577,25	42.236,28	0,00	0,00	139.800,00	702.952,73	1.329.566,26
(-) Kendutakoak	56.063,45	89.575,63	0,00	433.703,97	0,00	2.233.125,17	2.812.468,22
(+/-) Egokitzapenak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
F) HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO SARREREN AMAIERAKO SALDOA, 2023ko EKITALDIA	1.553.646,65	42.236,28	15.000,00	49.937.028,67	1.458.318,00	1.490.984,07	54.497.213,67

"Kapitaleko dirulaguntzak" partida Erakunde Ofizialek ibilgetuak eskuratzeko emandako dirulaguntzei dagozkie. Atal horretan sartuta daude Eusko Jaurlaritzak artelanak erosteko emandako 200.000 euroko dirulaguntza bat (Bilduma Partekatua) eta inbertsioetarako emandako beste bat, 100.000 eurokoa, artelanak erostera bideratua hori ere. Halaber, Gasteizko Udalak Esther Ferrereren *Zenbaki lehenak* pieza Artium Museoan instalatzeko emandako 60.000,00 euroko dirulaguntza ere barne dago.

Gainerakoa, 84.577,25 euro, Arabako Foru Aldundiak Museoaren instalazioetan egindako inbertsioetarako emandako dirulaguntzei dagozkie. Kendutakoetan, 56.063,45 euroko zenbatekoagatik, ekitaldiko emaitzara transferitutako kapitaleko dirulaguntzetara egozteko Zenbateko hori bat dator ibilgetu materialaren eta ukiezinaren amortizazioen hornikuntzaren zenbatekoarekin.

Arabako Foru Aldundiak 2023ko abenduaren 26an onartu zuen 203.000,00 euroko ekarpen gehigarria esleitzea Arabako Artium Fundazioari, inbertsioak finantzatzeko bere egoitzan, zehazki, hotza sortzeko sistema termikoa hornitzeko eta instalatzeko. Lizitazio hori 159.769,40 euroko zenbatekoarengatik esleitu da, Fundazioaren Batzorde Exekutiboarekin egindako akordioaren bidez, eta kontratua 2024ko martxoan sinatuko da. Dirulaguntza dagozkion fakturak aurkeztean ordainduko da. Dirulaguntza hori ez denez 23-12-31n ordaindu eta 2024an egin beharreko inbertsioentzat esleitu denez, 2024ko urteko kontuetan erregistratuko da.

“Babesleen ekarpenak” partidaren gehikuntzak -42.236,28 eurokoa- 2023ko aurrekontuan aurreikusi eta urte horretan hasi baina 2024an jarraipena izango duen programaren finantzaketari aplikaturiko Arabako Foru Aldundiaren ekarpenetatik jasotako zenbatekoei dagokie. Era berean, hor agertzen dira, kendutakoetan (89.575,63 €), 2023an amaitu ziren 2022ko proiektuen gastuari egotzitako zenbatekoak.

“Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak” partida emaille batek 2021ean egindako 15.000 euroko ekarpen bati dagokio; ekarpen hori Katinka Bock artistaren artelan bat erostera bideratu zen.

“AFaren lagapenak” eta “Artelaren dohaintzak” ataletako gehikuntzak eta kendutakoak amortizazio eta eskuratzeen kontabilitate-kontrapartidak dira, bi kontzeptu horien ibilgetu ukiezin eta materialean jasotakoak.

2023an ez da lagapen-akordiorik egin Arabako Foru Aldundiaren jabetzako artelanak Arabako Artium Fundazioari uzteko. Kendutakoak, 433.703,97 euro, AFaren ondasunak lagatzearen amortizazioaren zenbatekoari dagozkio. Artelaren dohaintzari dagokionez, gehikuntzak (139.800,00 €) 2023an gauzatutako hamaika dohaintza-hitzarmeni dagozkie (ikusi 25.3 oharra).

2012an, Artelaren gordailuen partida gehitu zen epigrafe honetan, artelaren gordailuak kontabilizatzeko irizpidea aldatu izanaren ondorioz. Gehikuntza gisa sartzen dira (702.952,73 €) data horretan zeuden gordailuen zabaltzea.

Kendutakoetan (2.233.125,17 €), amortizazioaren zuzkiduraren zenbatekoa (1.160.690,83 €) eta 2023an gordailutik ateratzeko erregistratutako hamaika eragiketekin zerikusia duten beste doikuntzak sartzen dira.

22.- FUSIOAK

Ez da aplikagarria Fundazioaren kasuan.

23.- NEGOZIO BATERATUAK

Ez da aplikagarria Fundazioaren kasuan.

24.- EPE LABURREKO PERIODIFIKATZEAK

Aktibo korrontean erregistratutako zenbatekoa, 32.474,88 eurokoa, aseguru eta komunikazioetatik jasotako faktura-gastuena da alde batetik (9.335,08 €), eta 2024an sortuko da gastu hori. Gainerako gastuak 2024an egingo diren eta gastuaren zati bat 2023an egin den erakusketena da.

Pasibo korrientean erregistratutako zenbatekoa, 2022koaren berdina, 2023an egindako babesleen ekarpenen egozpenari dagokio, baina horien lankidetzat hitzarmena 2024ra arte luzatzen da (26.807,00 €).

25.- ENTITATEAREN JARDUNA. ELEMENTUAK APLIKATZEA

Gauzatutako jarduerak

1. JARDUERA

I) Identifikazioa

Jardueraren izena	ERAKUSKETAK ETA JARDUERAK
Jarduera mota*	PROPIOA
Jarduera sektoreka identifikatzea	
Jarduera egindako lekua	ARTIUM

* Adierazi jarduera propioa ala merkataritzakoa den

Gauzatutako jardueraren deskribapen zehatza

Arte eta sorkuntza garaikidearekin lotutako erakusketak eta jarduerak

II) Jardueran erabilitako giza baliabideak

Mota	Kopurua		Urteko ordu kopurua	
	Aurreikusia	Gauzatua	Aurreikusia	Gauzatua
Soldatapeko langileak	22,50	22,78	35.820,00	36.265,76
Zerbitzu-kontratupeko langileak				
Langile boluntarioak				

III) Jardueraren onuradunak eta erabiltzaileak

Mota	Kopurua	
	Aurreikusia	Gauzatua
Pertsona fisikoak		
Pertsona juridikoak		
Onuradunak zenbatu gabeko proiektuak		

IV) Jardueran erabilitako baliabide ekonomikoak

Gastuak / Inbertsioak	Zenbatekoa	
	Aurreikusia	Gauzatua
Laguntzengatiko eta bestelako gastuak		7.000
a) Diruzko laguntzak		7.000
b) Diruzkoak ez diren laguntzak		
c) Lankidetzak eta gobernu-entzako gastuak		
Amaitu diren eta fabrikatzen ari diren produktuen izakinen aldakuntza		
Hornikuntzak		
Langileen gastuak	1.457.588	1.433.573
Jardueraren gastuak	1.083.500	1.005.077
Jardueraren beste gastu batzuk	1.938.854	1.997.076
Ibilgetuaren amortizazioa		1.650.458
Ibilgetuaren narriadura eta besterentzeen emaitzak	-	6.600
Finantza-gastuak		
Finantza-tresnen arazoizko balioaren aldakuntzak		
Truke-diferentziak		
Finantza-gastuen narriadura eta besterentzeen		
Mozkinen gaineko zerga		
Gastuen guztizko partziala	4.479.942	6.099.783
Ibilgetua eskuratzea (ondare historikoko ondasunak izan ezik)	8.000	147.525
Ondare historikoko ondasunak eskuratzea	300.000	297.053
Baliabideen guztizko partziala	308.000	444.577
GUZTIRA	4.787.942	6.544.361

V) Jardueraren helburuak eta adierazleak

Helburua	Adierazlea	Kuantifikazioa	
		Aurreikusia	Gauzatua

2. JARDUERA

I) Identifikazioa

Jardueraren izena	DENDA ETA LIBURU-
Jarduera mota*	MERKATARITZAKOA
Jarduera sektoreka identifikatzea	
Jarduera egindako lekua	ARTIUM MUSEOA

* Indicar si se trata de una actividad propia o mercantil

Descripción detallada de la actividad realizada.

Artium Museoko denda

II) Jardueran erabilitako giza baliabideak

Mota	Kopurua		Urteko ordu kopurua	
	Aurreikusia	Gauzatua	Aurreikusia	Gauzatua
Soldatapeko langileak				
Zerbitzu-kontratupeko langileak				
Langile boluntarioak				

III) Jardueraren onuradunak eta erabiltzaileak

Mota	Kopurua	
	Aurreikusia	Gauzatua
Pertsona fisikoak		
Pertsona juridikoak		
Onuradunak zenbatu gabeko		

IV) Jardueran erabilitako baliabide ekonomikoak.

Gastuak/Inbertsioak	Zenbatekoa	
	Aurreikusia	Gauzatua
Laguntzengatiko eta bestelako gastuak		
a) Diruzko laguntzak		
b) Diruzkoak ez diren laguntzak		
c) Lankidetzeta eta gobernu-organoen		
Amaitu diren eta fabrikatzen ari diren produktuen	0	-1.315
Hornikuntzak	7.600	9.009
Langile-gastuak		
Jardueraren beste gastu batzuk	400	4.406
Ibilgetuaren amortizazioa		
Ibilgetuaren narriadura eta besterentzeen emaitzak		
Finantza-gastuak		
Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntzak		
Truke-diferentziak		
Finantza-gastuen narriadura eta besterentzeen		
Mozkinen gaineko zerga		
Gastuen guztizko partziala	8.000	12.100
Ibilgetua eskuratzea (ondare historikoko ondasunak izan ezik)		
Ondare historikoko ondasunak eskuratzea		
Baliabideen guztizko partziala	0	0
GUZTIRA	8.000	12.100

V) Jardueraren helburuak eta adierazleak

Helburua	Adierazlea	Kuantifikazioa	
		Aurreikusia	Gauzatua

3. JARDUERA

I) Identifikazioa

Jardueraren izena	EKINTZAK ETA
Jarduera mota*	MERKATARITZAKOA
Jarduera sektoreka identifikatzea	
Jarduera egindako lekua	ARTIUM MUSEOA

* Adierazi jarduera propioa ala merkataritzakoa den

Gauzatutako jardueraren deskribapen zehatza

Ekintzak eta ekitaldiak: espazioak alokatzea eta zerbitzuak eskaintzea, ekintzak eta ekitaldiak egiteko

II) Jardueran erabilitako giza baliabideak

Mota	Kopurua		Urteko ordu kopurua	
	Aurreikusia	Gauzatua	Aurreikusia	Gauzatua
Soldatepeko langileak				
Zerbitzu-kontratupeko langileak				
Langile boluntarioak				

III) Jardueraren onuradunak eta erabiltzaileak

Mota	Kopurua	
	Aurreikusia	Gauzatua
Pertsona fisikoak		
Pertsona juridikoak		
Onuradunak zenbatu gabeko		

IV) Jardueran erabilitako baliabide ekonomikoak

Gastuak/Inbertsioak	Zenbatekoa	
	Aurreikusia	Gauzatua
Laguntzengatiko eta bestelako gastuak		
a) Diruzko laguntzak		
b) Diruzkoak ez diren laguntzak		
c) Lankidetzak eta gobernu-organoen		
Amaitu diren eta fabrikatzen ari diren produktuen		
Hornikuntzak		
Langile-gastuak		
Jardueraren gastuak	13.000	12.988
Ibilgetuaren amortizazioa		
Ibilgetuaren narriadura eta besterentzeen emaitzak		
Finantza-gastuak		
Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntzak		
Truke-diferentziak		
Finantza-gastuen narriadura eta besterentzeen		
Mozkinen gaineko zerga		
Gastuen guztizko partziala	13.000	12.988
Ibilgetua eskuratzea (ondare historikoko ondasunak izan ezik)		
Ondare historikoko ondasunak eskuratzea		
Baliabideen guztizko partziala	-	-
GUZTIRA	13.000	12.988

V) Jardueraren helburuak eta adierazleak

Helburua	Adierazlea	Kuantifikazioa	
		Aurreikusia	Gauzatua

4. JARDUERA

I) Identifikazioa

Jardueraren izena	KAFETEGI ETA JATETXEAREN USTIAPENA
Jarduera mota*	MERKATARITZAKOA
Jarduera sektoreka identifikatzea	
Jarduera egindako lekua	ARTIUM MUSEOA

* Indicar si se trata de una actividad propia o mercantil

Gauzatutako jardueraren deskribapen zehatza

Artiumeko kafetegia eta jatetxea ustiatzea, zehazkako kudeaketa bidez

III) Jardueraren onuradunak eta erabiltzaileak

Mota	Kopurua		Urteko ordu kopurua	
	Aurreikusia	Gauzatua	Aurreikusia	Gauzatua
Soldatapeko langileak				
Zerbitzu-kontratupeko langileak				
Langile boluntarioak				

III) Jardueraren onuradunak eta erabiltzaileak

Mota	Kopurua	
	Aurreikusia	Gauzatua
Pertsona fisikoak		
Pertsona juridikoak		
Onuradunak zenbatu gabeko		

IV) Jardueran erabilitako baliabide ekonomikoak.

Gastuak/Inbertsioak	Zenbatekoa	
	Aurreikusia	Gauzatua
Laguntzengatiko eta bestelako gastuak		
a) Diruzko laguntzak		
b) Diruzkoak ez diren laguntzak		
c) Lankidetzat eta gobernu-entzuen		
Amaitu diren eta fabrikatzen ari diren produktuen		
Hornikuntzak		
Langile-gastuak		
Jardueraren gastuak	24.658	23.309
Ibilgetuaren amortizazioa		
Ibilgetuaren narriadura eta besterentzeen		
Finantza-gastuak		
Finantza-tresnen arrazoizko balioaren		
Truke-diferentziak		
Finantza-gastuen narriadura eta besterentzeen		
Mozkimen gaineko zerga		
Gastuen guztizko partziala	24.658	23.309
Ibilgetua eskuratzea (ondare historikoko ondasunak izan ezik)		
Ondare historikoko ondasunak eskuratzea		
Baliabideen guztizko partziala	-	-
GUZTIRA	24.658	23.309

V) Jardueraren helburuak eta adierazleak

Helburua	Adierazlea	Kuantifikazioa	
		Aurreikusia	Gauzatua

25.1. Entitateak guztira erabilitako baliabide ekonomikoak

Gastuak /Inbertsioak	1. jarduera	2. jarduera	3. jarduera	4. jarduera	Jarduerak, guztira
Laguntzengatiko eta bestelako gastuak	-	-	-	-	-
a) Diruzko laguntzak	7.000	-	-	-	-
b) Diruzkoak ez diren laguntzak	-	-	-	-	-
c) Lankidetzat eta gobernu-entitateen gastuak	-	-	-	-	-
Amaitu diren eta fabrikatzen ari diren produktuen izakinen aldakuntza	-	(1.315)	-	-	(1.315)
Hornikuntzak	-	9.009	-	-	9.009
Langileen gastuak	1.433.573	-	-	-	1.433.573
Jardueraren gastuak	1.005.077	4.406	12.988	23.309	1.045.780
Jardueraren beste gastu batzuk	1.997.076	-	-	-	1.997.076
lilgetuaren amortizazioa	1.650.458	-	-	-	1.650.458
lilgetuaren narriadura eta besterentzeen emaitzak	6.600	-	-	-	6.600
Finantza-gastuak	-	-	-	-	-
Finantza-tresnen arazoizko balioaren aldakuntzak	-	-	-	-	-
Truke-diferentziak	-	-	-	-	-
Finantza-gastuen narriadura eta besterentzeen emaitza	-	-	-	-	-
Mozkinen gaineko zerga	-	-	-	-	-
Gastuen guztizko partziala	6.099.783	12.100	12.988	23.309	6.148.180
lilgetua eskuratzea (ondare historikoko ondasunak izan ezik)	147.525	-	-	-	147.525
Ondare historikoko ondasunak eskuratzea	297.053	-	-	-	297.053
Zor ez-komertziala deuseztatzea	-	-	-	-	-
Inbertsioen guztizko partziala	444.577	-	-	-	444.577
ERABILITAKO BALIABIDEAK, GUZTIRA	6.544.361	12.100	12.988	23.309	6.592.758

25.2. Entitateak guztira jasotako baliabide ekonomikoak

Sarrerak	Aurrez ikusitakoa	Egindakoa
Ondarearen errentak eta beste sarrera eratorri batzuk	-	0
Jarduera propioen salmentak eta zerbitzu-emateak	24.000	17.406
Merkataritza-jardueren salmentak eta bestelako sarrerak	101.098	103.195
Sektore publikoko dirulaguntzak	4.167.702	3.948.464
Ekarpen pribatuak	532.800	392.959
Bestelako sarrerak	8.000	32.597
Ekitaldiko soberakinari transferitutako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	0	1.650.458
LORTUTAKO SARRERAK, GUZTIRA	4.833.600	6.145.078

25.3. Beste entitate batzuekiko lankidetza-hitzarmenak

Honako hitzarmen eta akordio hauek sinatu ditu Arabako Artium Fundazioak 2023an:

Lankidetza-hitzarmenak eta akordioak:

- Lankidetza-hitzarmena Gasteizko Udalarekin *Esther Ferreren Zenbaki Lehenak* obra zaharberritzeko eta Artium Museo barruko plazan jartzeko.
- Lankidetza-hitzarmena Lisboako Associação Maumaus - Centro de Contaminação Visualekin Alejandro Cesarcori buruzko erakusketa egiteko.
- Lankidetza-hitzarmena Baltic Centre for Contemporary Arterekin, *Carolina Caycedoren Land of Friends* erakusketa egiteko.
- Lankidetza-hitzarmena Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofiarekin, Ibon Aranberriri buruzko erakusketa antolatzeke.
- CRAC Alsacekin lankidetza-hitzarmena onartzea, Julia Spínolari buruzko erakusketa jartzeko.
- TABAKALERA – Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentroarekiko hitzarmena, JAI 2023 antolatzeke.
- Lankidetza-hitzarmena Mujeres en las Artes Visuales (MAV) elkartearekin.
- TABAKALERA – Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentroarekin hitzarmena, Hasieratik. Zinema feministaren historiak zikloa antolatzeke, 2023an.
- Lankidetza-hitzarmena Kalakalab, S.C.rekin, Gaztefilm Fest 2023 Artium Museoan antolatzeke.
- Lankidetza-hitzarmena Kultura Klean! Elkartearekin, Korterraza 2023 jaialdia Artium Museoan egiteko.
- Lankidetza-hitzarmena Lekeitioko Udalarekin, Artium museoak Euskal Zine Bileraren 46. edizioan parte hartzeke, Lekeition, 2023an.
- Hitzarmena Altraste Danza Elkartearekin danZálava 2023 Artium Museoan antolatzeke.
- Lankidetza-hitzarmena Euskadiko Ilustratzaileen Elkargo Profesionalarekin, Irudika 2023 Artium Museoan antolatzeke.
- Hitzarmen espezifiko Elias Querejeta Zine Eskolarekin (EQZE), Artium Museoan hezkuntza-praktikak garatzeke.
- Hitzarmena Academy of Fine Arts Viennarekin, Artium Museoan hezkuntza-praktikak garatzeke.
- Lankidetza-hitzarmena IDarte - Euskadiko Arte eta Diseinu Goi Eskolarekin.
- Lankidetza-hitzarmena UNEDek artearen eta sorkuntzaren arloan Gasteizen duen zentroarekin.

Artelanen dohaintza- eta gordailutze-hitzarmenak:

- Soco Romanorekin hitzarmena, bere jabetzako dokumentu-funts bat dohaintzan emateko.
- Hitzarmena Arabako Foru Aldundiarekin, Artium Fundazioak bere jabetzako komiki-bilduma bat dohaintzan emateko.
- Hitzarmena Basterretxea Izurzun familiarekin, Nestor Basterretxea artistaren dokumentazio-funts bat dohaintzan emateko.
- Hitzarmena Gorka Lafuenterekin, Rafael Lafuente artistaren dokumentu-funtsa dohaintzan emateko.
- Txaro Arrázolarekiko dohaintza-hitzarmena, zeinaren bidez dohaintzan emango baititu berak egindako eta bere jabetzako obrak.
- Antón Patiñorekiko dohaintza-hitzarmena, zeinaren bidez dohaintzan emango baititu berak egindako eta bere jabetzako obrak.
- Pablo Milicuaiekiko dohaintza-hitzarmena, zeinaren bidez dohaintzan emango baititu berak egindako eta bere jabetzako obrak.
- Patrick Lockerekiko dohaintza-hitzarmena, zeinaren bidez dohaintzan emango baititu berak egindako eta bere jabetzako obrak.
- Ramón Díaz de Duranarekiko dohaintza-hitzarmena, zeinaren bidez dohaintzan emango baititu berak egindako eta bere jabetzako obrak.
- Álvaro Perdicsekiko dohaintza-hitzarmena, zeinaren bidez dohaintzan emango baititu berak egindako eta bere jabetzako obrak.
- Inés Medinarekiko dohaintza-hitzarmena, zeinaren bidez dohaintzan emango baititu berak egindako eta bere jabetzako obrak.
- Inmomym, S. L.rekiko dohaintza-hitzarmena, zeinaren bidez dohaintzan emango baititu berak egindako eta bere jabetzako obrak.

25.4. Jarduketa-planaren eta egindakoaren datuen arteko desbideratzea.

37. oharrean azaldu dira Fundazioaren aurrekontuaren eta benetan gauzatutakoaren arteko desbideratzeak.

25.5. Sarrereren zertarakoa

Zertarako hauetara bideratu dira Fundazioaren sarrera garbiak, 2023ko ekitaldian:

Ekitaldia	Emaitzen kontuko diru-sarrerak, guztira (A)	(-) Oinarrian sartu gabeko diru-sarrerak (B)	(-) Diru-sarrerak lortzeko beharrezko gastuak (C)	= KALKULURA KO OINARRIA (E)	Xedatzeko gutxieneko errenta	%	Fundazioaren xedeak betetzeko erabilitako bigartekoak (gastuak eta inbertsioak) (D)	Bere xedeak lortzera bideratutako baliabideen ezarpena					
								2018	2019	2020	2021	2022	Aplikatzeko gelditzen den zenbatekoa
2018	3.928.621	-40.384	-325.340	3.562.897	2.494.028	70%	2.991.933		2991933				
2019	3.875.055	-272.148	-521.620	3.081.287	2.156.901	70%	3.266.069			3266069			
2020	4.054.743	-445.651	-540.496	3.068.595	2.148.017	70%	3.589.338				3.589.338		
2021	4.261.535	-382.362	-580.941	3.298.232	2.308.762	70%	3.679.376					3.679.376	
2022	4.483.560	-447.577	-567.822	3.468.161	2.427.713	70%	3.964.276						3.964.276,08

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 29. artikulua betetzen da; izan ere, kontzeptu guztien bidez lortutako Fundazioaren sarrereren gutxienez ehuneko hirurogeita hamar bideratzen dira Fundazioaren asmoarekin bat etorrira finkatutako helburuak betetzera.

25.6. Administrazio-gastuen xehetasunak

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 31. artikulua dioenez, administrazio-gastuen zenbatekoak ezingo du gaintitu kopuru hauetako handiena: funts propioen ehuneko bosta edo fundazioaren emaitzen kontuko diru-sarrereren ehuneko hogeia. Emaitzen kontua kalkulatu da kontzeptu guztiak hartuta, behin diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak kendu ondoren, Fundazioaren helburuak betetzeari dagozkionak izan ezik.

2023an, administrazio-gastuen muga 693.632 eurokoa izan da; hau da, Fundazioaren emaitzen kontuko diru-sarrereren (3.468.161 €) % 20, 25.5. oharren arabera. 2023ko administrazio-gastuen zenbatekoa 396.785 eurokoa izan da, ezarritako gehieneko muga baino 296.847 euro gutxiagokoa.

Kontzeptua	Eurotan
Administrazioko langileen gastua	251.810
Errentamenduak	5.433
Zerbitzu profesionalak	37.116
Aseguruen primak	38.218
Banku-zerbitzuak	1.498
Hornidurak	28.110
Zergak	34.600
Guztira	396.785

25.7. Fundazioaren autofinantzaketa-maila

Babesle pribatuen ekarpenei eta Museoaren baliabide propioei esker, autofinantzaketa-maila aurrekontuaren % 11,88ra iritsi da 2023an (2022an, % 12,17koa izan zen); kontzeptu horregatik 533.780,70 euroko sarrerak izan dira 2023an (2022an, 518.441,68 €-koak izan ziren).

26.- SALMENTARAKO MANTENDUTAKO AKTIBO EZ-KORRONTEAK

Ez da aplikagarria Fundazioaren kasuan.

27.- ITXIERAZ GEROZTIKO GERTAERAK

Ez dago gertaera aipagarririk.

28.- LOTUTAKO ALDEEKIKO ERAGIKETAK

Arabako Foru Aldundiarekin 2023an egindako transakzioak memoria honetako 21. eta 17.1. oharretan jasota daude nagusiki.

Bestalde, Arabako Kalkulu Zentroa SAUk zerbitzuak eskaini dizkio Fundazioari, eta 2023an guztira 21.961,11 euro fakturatu ditu.

29.- BESTELAKO INFORMAZIOA

29.1. Ekitaldiko batezbesteko langileen kopurua

2023ko abenduaren 31n, 25 langile zeuden Fundazioaren lantaldean. 25 pertsonatik, 21ek kontratu mugagabea dute, aldiz, hiru pertsonak ordezkapen-kontratua dute. Bat lanaldi murrizketa bat osatzeko dago, bestea behartutako eszedentzia bategatik eta hirugarrena LEI baten ondorioz hartutako baja ordezkatzeko. Azkenik, pertsona batek lanaldi mugagabe partziala du erretiro partzialagatik. Lantaldeko 25 kideetatik 19 emakumeak dira.

Urtarrilean, Fundazioko administrari batek, lanaldi-murrizketa bat ordezkatzeko lanaldi erdiko kontratua zuenak, borondatezko baja eman zuen. Apirilean administrari berri bat sartu zen, postu huts hori betetzeko. Maiatzean beste administrari bat sartu zen, kasu honetan, Lanerako ezintasun iragankor (LEIg) baja bat ordezkatzeko.

Uztailean, Fundazioko Erakusketen Arduradunak borondatezko baja hartu zuen behartutako eszedentziagatik. Gerora, urrian, Erakusketen Kudeatzaile berri bat sartu zen postu hori betetzeko.

Abuztuan, Finantza eta Garapen Zuzendariordeak erretiro partziala hartu zuen, eta, aldi berean, Marketin, Garapen eta Publiko Koordinatzaile bat kontratatu zen txanda-kontratu baten bidez.

Kasu guztietan, dagozkion hautaketa-prozesuak egin dira, eta kontratazioak Fundazioaren Batzorde Exekutiboak onartu ditu kasu guztietan.

Ekitaldiaren amaieran, Hezkuntzako teknikari baten lanpostuak hutsik jarraitzen du, lanaldi erdian.

Urtean zehar, 22,46 pertsonakoa izan da lantaldeko batez besteko langileen kopurua (2022an 21,77 pertsona).

Fundazioaren egiturazko lantaldea 22,50 langilekoa da.

Aipatutakoez gainera, ez da beste aldaketarik egon. Honela antolatuta dago Fundazioaren lantaldea 2023ko abenduaren 31n:

Lanpostuak	2023			2022		
	Mugagabeak	Behin-behinekoak	Guztira	Mugagabeak	Behin-behinekoak	Guztira
Zuzendaria	1	-	1	1	-	1
Zuzendaritzako idazkaria	1	-	1	1	-	1
Hizkuntza-normalizazioko aholkulari, editore eta itzultzailea	1	-	1	1	-	1
Komisarioburua	1	-	1	1	-	1
Kontserbatzailea	1	-	1	1	-	1
Erakusketen arduraduna (behartutako eszed.)	-	-	-	1	-	1
Erakusketen koordinatzailea	-	1	1	-	-	-
Bildumaren koordinatzailea	1	-	1	1	-	1
Hezkuntzako arduraduna	1	-	1	1	-	1
Hezkuntzako koordinatzailea	1	-	1	1	-	1
Liburutegiaren eta Dokumentazioaren arduraduna	1	-	1	1	-	1
Liburutegiaren koordinatzailea	1	-	1	1	-	1
Dokumentazioaren koordinatzailea	1	-	1	1	-	1
Garapen eta Finantza Arloaren zuzendariordea (erretiro partziala)	1	-	1	1	-	1
Finantzen eta Pertsonen arduraduna	1	-	1	1	-	1
Marketin, Garapen eta Publikoen arduraduna	1	-	1	1	-	1
Marketin, Garapen eta Publikoen koordinatzailea (errelebo-kontratua)	1	-	1	-	-	-
Marketinaren eta Publikoen arduraduna	1	-	1	1	-	1
Hezkuntzako teknikaria (hutsik geratu den plaza)	-	-	-	-	-	-
Komunikazio-arduraduna	1	-	1	1	-	1
Azpiegituren eta Zerbitzuen arduraduna	1	-	1	1	-	1
Segurtasun eta Prebentzioko teknikaria	1	-	1	1	-	1
Idazkariak	3	2	5	3	1	4
GUZTIRA	22	3	25	22	1	23

29.2. Partaidetzak merkataritza-sozietateetan edo beste fundazio batzuetan

Arabako Artium Fundazioak ez du inolako partaidetzarik inongo merkataritza-sozietatetan edo bestelako fundazioetan.

29.3. Kontuak kanpo-ikuskaritzaren mende jartzeko derrigortasuna

Fundazioen estatutuetako 28. artikulua ezarri zuen Fundazioaren kontabilitatea kanpoko ikuskari batek aztertuko duela, jasotako laguntzen izaera publikoa dela medio eskatutako bestelako ikuskaritza batzuen kalterik gabe.

Arabako Foru Aldundiak BNFIX KLZ AUDITORES, S.L.P. enpresari esleitu dizkio Arabako Artium Fundazioaren kontuen ikuskaritza-lanak.

2023ko ekitaldiko kontuen ikuskaritza-kontzeptuagatik emandako zerbitzuen ordainsaria Arabako Foru Aldundiak ordaindu du.

29.4. Ondare-aldaketak: legearen 22. artikuluan deskribatutako ondasunen gaineko karga-ekintzak, xedapenak edo arbitrajea

2023ko ekitaldian ez da izan ondarezko zuzkiduraren parte diren, Fundazioaren xedeak betetzeari zuzenean atxikita dauden edo urteko azken balantzearen arabera Fundazioaren aktiboen % 20tik gorako balioa duten ondasun edo eskubideetan salmentarik, hipotekarik, akzio-pignoraziorik...

30.- INFORMAZIO SEGMENTATUA

Ez da aplikagarria Fundazioaren kasuan.

31.- ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA

ESKUDIRU FLUXUEN EGOERA	ESTADO DE FLUJOS DE EFECTIVO	Oharra / Nota	2022	2023
A) USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRU FLUXUAK	A) FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE EXPLOTACIÓN			
1. Zergak baino lehen ariketaren soberakina	1. Excedente del ejercicio antes de impuestos		3.071,26	-3.102,49
2. Emaitzaren doikuntzak	2. Ajustes del resultado			
a) Ibilgetuaren amortizazioa (+)	a) Amortización del inmovilizado (+)		2.052.681,15	1.650.458,25
b) Balio zuzenketak nariaduragatik (+/-)	b) Correcciones valorativas por deterioro (+/-)			
c) Hornidura aldaketa (+/-)	c) Variación de provisiones (+/-)			
d) Jasotako dohaintzak, legatuak eta dirulaguntzak	d) Imputación de subvenciones donaciones y legados(-)		-2.052.681,15	-1.650.458,25
e) Ibilgetuaren baje eta besterentzeen emaitzak (+/-)	e) Resultados por bajas y enajenaciones del inmovilizado (+/-)		0,00	6.600,00
f) Finantza tresnen baje eta besterentzeen emaitzak (+/-)	f) Resultados por bajas y enajenaciones de instrumentos financieros (+/-)			
g) Finantza sarrerak (-)	g) Ingresos financieros (-)			
h) Finantza gastuak (+)	h) Gastos financieros (+)			
i) Truke diferentziak (+/-)	i) Diferencias de cambio (+/-)			
j) Arrazoizko balioaren aldaketa finantza tresnetan (+/-)	j) Variación de valor razonable en instrumentos financieros (+/-)			
k) Bestelako sarrerak eta gastuak (-/+)	k) Otros ingresos y gastos (-/+)		0,00	
3. Aldaketak kapital arruntean	3. Cambios en el capital corriente			
a) Izakinak (+/-)	a) Existencias (+/-)		5.126,06	-1.315,17
b) Zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk	b) Deudores y otras cuentas a cobrar (+/-)		-138.489,33	-50.430,08
c) Bestelako aktibo korranteak (+/-)	c) Otros activos corrientes (+/-)		468,75	-14.760,58
d) Hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu	d) Acreedores y otras cuentas a pagar (+/-)		-87.006,13	143.704,50
e) Bestelako pasibo korranteak (+/-)	e) Otros pasivos corrientes (+/-)		-5.423,00	3.372,76
f) Bestelako aktibo eta pasibo ez korranteak (+/-)	f) Otros activos y pasivos no corrientes (+/-)			
4. Ustiapen jardueren bestelako eskudiru fluxuak	4. Otros flujos de efectivo de las actividades de explotación			
a) Korrituen ordainketa (-)	a) Pagos de intereses (-)			
b) Dibidenduak kobratzea (+)	b) Cobros de dividendos (+)			
c) Korrituak kobratzea (+)	c) Cobros de intereses (+)			
d) Irabazien gaineko zergaren kobrantzak (ordainketak)	d) Cobros (pagos) por impuesto sobre beneficios (-/+)			
e) Beste ordainketa batzuk (kobrantza) (-/+)	e) Otros pagos (cobros) (-/+)			
5. Ustiapen jardueren eskudiru fluxuak (+/-1+/-2+/-3+/-4)	5. Flujos de efectivo de las actividades de explotación (+/-1+/-2+/-3+/-4)		-222.252,39	84.068,94

B) INBERTSIO JARDUEREN ESKUDIRU FLUXUAK	B) FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE INVERSION			
6. Inbertsioengatiko ordainketak	6. Pagos por inversiones			
a) Taldeko entitate edo entitate elkartuekiko	a) Entidades del grupo y asociadas			
b) Ibilgetu inmateriala	b) Inmovilizado intangible	-4.397,66	-16.767,84	
c) Ibilgetu materiala	c) Inmovilizado material	-106.430,94	-28.723,63	
d) Ondare historikoaren ondasunak	d) Bienes del Patrimonio Histórico	-275.981,46	-399.085,78	
e) Higiezinetan egindako inbertsioak	e) Inversiones inmobiliarias			
f) Beste finantza aktibo batzuk	f) Otros activos financieros			
g) Saltzeko mantendutako aktibo ez korronteak.	g) Activos no corrientes mantenidos para venta			
h) Beste aktibo batzuk	h) Otros activos			
7. Desinbertsioengatiko kobrantzak	7. Cobros por desinversiones			
a) Taldeko entitate edo entitate elkartuekiko	a) Entidades del grupo y asociadas			
b) Ibilgetu inmateriala	b) Inmovilizado intangible			
c) Ibilgetu materiala	c) Inmovilizado material	0,00	0,00	
d) Ondare historikoaren ondasunak	d) Bienes del Patrimonio Histórico			
e) Higiezinetan egindako inbertsioak	e) Inversiones inmobiliarias			
f) Beste finantza aktibo batzuk	f) Otros activos financieros			
g) Saltzeko mantendutako aktibo ez korronteak.	g) Activos no corrientes mantenidos para venta			
h) Beste aktibo batzuk	h) Otros activos			
8. Inbertsio jardueren eskudiru fluxuak (7-6)	8. Flujos de efectivo de las actividades de inversión (7-6)		-386.810,06	-444.577,25
C) FINANTZA JARDUEREN ESKUDIRU FLUXUAK	C) FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE FINANCIACION			
9. Kobratzeak eta ondare-operazioengatiko	9. Cobros y pagos por operaciones de patrimonio			
a) Sortze-homidurarako edo funts sozialerako	a) Aportaciones a la dotación fundacional o fondo social	0,00	0,00	
b) Funts sozialaren jaisteak	b) Disminuciones del fondo social			
c) Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak (+)	c) Subvenciones, donaciones y legados recibidos (+)	510.531,71	397.237,90	
10. Finantza pasiboaren tresnengatiko kobrantza eta ordainketak	10. Cobros y pagos por instrumentos de pasivo financiero			
a) Jaulkipena	a) Emisión			
1. Obligazioak eta negozioa daitezkeen baloreak (+)	1. Obligaciones y valores negociables (+)			
2. Kreditu erakundeekiko zorrak (-)	2. Deudas con entidades de crédito (-)			
3. Taldeko entitate edo entitate elkartuekiko zorrak(-)	3. Deudas con entidades del grupo y asociadas (-)			
4. Bestelako zorrak (+)	4. Otras deudas (+)			
b) Hauen itzulketa eta amortizazioa:	b) Devolución y amortización de			
1. Obligazioak eta negozioa daitezkeen baloreak (+)	1. Obligaciones y valores negociables (+)			
2. Kreditu erakundeekiko zorrak (-)	2. Deudas con entidades de crédito (-)			
3. Taldeko entitate edo entitate elkartuekiko zorrak(-)	3. Deudas con entidades del grupo y asociadas (-)			
4. Bestelako zorrak (+)	4. Otras deudas (+)			
11. Finantza jardueren eskudiru fluxuak (+/-9+/-10)	11. Flujos de efectivo de las actividades de financiación (+/-9+/-10)		510.531,71	397.237,90
D) KANBIO TASEN ALDAKETEN ERAGINA	D) EFECTO DE LAS VARIACIONES DE LOS TIPOS DE CAMBIO			
E) ESKUDIRUAREN EDO ANTZEKOEN GEHIKUNTZA / MURRIZKETA GARBIA (+/-5+/-8+/-12+/-D)	E) AUMENTO/DISMINUCIÓN NETA DEL EFECTIVO O EQUIVALENTES (+/-5+/-8+/-11+/-D)		-98.530,74	36.729,59
Ekitaldi hasierako eskudirua edo antzekoak	Efectivo o equivalentes al comienzo del ejercicio		416.557,31	318.026,57
Ekitaldi amaierako eskudirua edo antzekoak	Efectivo o equivalentes al final del ejercicio		318.026,57	354.756,16

32.- INBENTARIOA

Inbentarioari dagokionez, partikularrekin nahiz erakundeekin sinatutako gordailutze-hitzarmenen bitartez Artium Museoa gordailututako artelanen balioa nabarmendu behar da Ondare Historikoko Ondasun eta Ibilgetu Ukiezinaren elementu adierazgarrien artean (1.490.985,73 euroko balio garbia, amortizazioak kenduta, gordailu-hitzarmenetako 2.878.897,06 euroko balio gordinari dagozkionak). 2023an, obren gordailuen hamalau hitzarmen kendu dira, 3.381.654,00 euroko zenbateko osoarengatik.

Artelanen bildumaren balioa 39.895.258,10 eurokoa da. Gehienak Arabako Foru Aldundiaren jabetzakoak dira (37.234.005,47 €) eta Fundazioari utzitakoak. Gainera, Arabako Artium Fundazioaren jabetzakoak diren artelanen balioa 2.559.219,53 eurokoa da (6. oharra).

2023an, 436.852,68 euroko zenbatekoa bideratu da artelanak erostera. Zenbateko horretatik 139.800,00 artelanetatik jasotako dohaintzak dira.

Ibilgetu materialaren epigrafean, zenbateko handiena Artium Museoaren eraikinaren eta instalazioen lagapenari dagokio; Arabako Foru Aldundiaren jabetzakoak da eta Fundazioari laga zaizkio. Ildo horretan, eraikinaren kontabilitate-balio garbia 12.703.023,19 eurokoa da 2023ko ekitaldiaren amaieran (hasierako balioa: 21.685.198,30 €).

Fundazioaren ibilgetu-ondasunei dagokienez, Ondare Historikoko Ondasunen epigrafean jasotako artelan guztien erregistro eguneratua du Artium Museoak, baita ibilgetu ukiezinaren atalean sartuta dauden artelanen gordailuena ere. Horretarako, aplikazio informatiko bat dago, non diru-sarreraren datak, eskuratze-balioak, mugimenduak, obra bakoitzaren gorabeherak eta obra bakoitzaren informazio museografiko osoa erregistratuta baitaude. Gordailuen kasuan, informazio hori bera dago jasota, dagozkien gordailutze-hitzarmenez gain.

Ibilgetu ukiezinaren eta materialaren elementuei dagokienez ere, Fundazioak aplikazio informatiko bat du, non erregistratuta baitaude eskuratze-datak eta eskuratze-balioak, elementu bakoitzaren deskribapen indibidualizatua, amortizazio-aldiak eta urteko kuotak, bai eta aipatutako elementuen jarraipena egiteko informazio erabilgarria ere.

Izakinei dagokienez (dendako eta liburu-dendako salgaiei eta Fundazioak argitaratutako argitalpenen banaketari dagozkie), baliorik handiena Artium Museoak ekoiztutako artisten artelanen edizio seriatuei dagokie, 52.420,12 euroko balio metatua baitute. Artista hauen artelanen edizio seriatuak daude inbentarioan jasota: Miguel Ángel Gañeca, Juan Hidalgo, Carmelo Ortiz de Elguea, Santiago Sierra, Ángel Marcos, Esther Ferrer, Liliana Porter, José Luis Zumeta, Plágaro, Txuspo Poyo, Santos Iñurrieta eta Gema Intxausti. Edizio horien kostu-balioa unitateko 62 €-tik 503 €-ra bitartekoa da, edizio-motaren arabera. Merkataritza-izakinen zerrenda bat erantsi da, familiakakoa.

	INBENTARIOKO BALIOA, BALIO- GALTZERIK GABE	BALIO-GALTZEA	INBENTARIOKO BALIO GARBIA
KATALOGO PROPIOAK (10)	5.775,51 €	4.327,63 €	1.447,88 €
ARGITALPENEN FUNTSA (12)	250,00 €	62,50 €	187,50 €
PAPEREZKO GAUZAKIAK (17)	2.563,54 €	647,78 €	1.915,76 €
BITXIAK (18)	13.525,15 €	6.740,47 €	6.784,68 €
DEKORAZIOA & ETXEA (20)	1.490,74 €	745,37 €	745,37 €
EHUNKIAK (21)	7.398,78	3.699,39 €	3.699,39 €
OPARITZEKO OSAGARRIAK (31)	1.787,82 €	554,62 €	1.233,20 €
BILDUMAZALEENTZAKO GAUZAK (32)	52.420,12 €	0,00 €	52.420,12 €
ARGITALPENEN BANAKETA	157.042,07 €	147.514,02 €	9.528,05 €
BESTELAKO SALGAIAK (99)	1.727,37 €	863,68 €	863,69 €
	243.981,10 €	165.155,46 €	78.825,64 €
ARIBIDEKO SALGAIAK	8.277,59 €		8.277,59 €

33.- BERANKORTASUN-LEGEA BETETZEA

Merkataritza-eragiketetan hornitzaileen ordainketa geroratzeari buruzko informazioa hau da:

	2023 (egunetan)	2022 (egunetan)
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia	13,10	11,41
Ordaindutako eragiketen ratioa	20,73	17,20
Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	6,67	5,71
	Zenbatekoa (eurotan)	Zenbatekoa (eurotan)
Egindako ordainketak, guztira	3.582.944,63 €	3.500.930,97 €
Burutzeke dauden ordainketak, guztira	569.180,23 €	374.253,69 €

Hornitzaileei ordaintzeko batezbesteko epea kalkulatzeko erabiltzen den metodologia ekonomikoa Administrazio Publikoek Hornitzaileei ordaintzeko batezbesteko epea kalkulatzeko metodologia ekonomikoa garatzen duen uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuak (abenduaren 22ko 1040/2017 Errege Dekretuaren bidez aldatua) zehazten duena da.

2023an zehar, berankortasun-araudian ezarritako gehiengoa baino aldi txikiagoan ordaindutako fakturen zenbatekoa 3.582.944,63 eurokoa da (% 100 ordaindutako faktura guztien gainean), hau da, 1.577 faktura (% 100 ordaindutako fakturen guztizkoaren gainean).

34.- PATRONATUARI BURUZKO INFORMAZIOA

34.1. Patronatuko kideak eta Patronatuaren Osoko Bilkuraren jarduna 2023an

2023. urtean, Patronatuaren Osoko lau Bilkura egin dira, apirilaren 26an, ekainaren 2an, irailaren 13an eta urriaren 26an.

Patronatuaren Osoko Bilkurak honako erabaki nagusi hauek hartu ditu:

- 2022ko ekitaldiko urteko kontuak onartzea, honako hauek barne hartuta: Memoria, Balantzea eta Emaizten kontua, Memoria, Aurrekontuaren likidazioa eta Inbentarioa.
- Arabako Foru Aldundiaren Informazioaren Barne Sistemara atxikitzea, arau-hausteen berri ematen duen pertsonen babesa eta ustelkeriaren aurkako borroka arautzen dituen 2023ko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen aurreikuspenen arabera.
- Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria esleitzea Patronatuan.
- Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria esleitzea Batzorde Exekutiboan.
- Gasteizko Udaleko ordezkaria esleitzea Patronatuan.
- Gasteizko Udaleko ordezkaria esleitzea Batzorde Exekutiboan.
- Fundazioko zuzendariaren kargua berritzea.
- Euskaltel SAREkin sinatutako babes-hitzarmenaren gehigarria onartzea
- Garapen eta Finantza zuzendari ordeari botereak kentzea eta Finantzen eta Pertsonen arduradunari eta Marketin, Garapen eta Publikoen arduradunari ematea.
- 2024ko ekitaldian Batzorde Betearazlean patroi pribatuen ordezkari izango den entitatea izendatzea.
- 2024ko ekitaldirako Jarduketa Plana (aurrekontua) onartzea.
- 2024ko ekitaldirako tarifak onartzea.

34.2. Patronatuan partaidetza gehiengoduna duten entitate publikoak eta parte-hartzearen ehunekoa

Honako entitate publiko hauek dira Fundazioaren Patronatuko kide abenduaren 31n:

- Arabako Foru Aldundia, bost ordezkariarekin, Arabako Diputatu Nagusia buru dela (% 42).
- Eusko Jaurlaritza, bi ordezkariarekin (% 17).
- Vitoria-Gasteizko Udala, ordezkari batekin (% 8).

- Espainiako Gobernua (Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioa), ordezkari batekin (% 8).

34.3. Patronatuko kideen kontzeptuagatiko ordainsariak, guztira

Arabako Artium Fundazioak ez die 2023ko ekitaldian inolako ordainsaririk ordaindu Fundazioaren Patronatuko kideei.

34.4. Patronatuko kideen eta Fundazioaren arteko kontratu bidezko harremanak

Arabako Artium Fundazioak ez du Fundazioaren Patronatuko kideekin Fundazioaren helburuari loturiko kontratu bidezko inolako harreman adierazgarririk izan 2023ko ekitaldian.

34.5. Eskuordetzeak eta ahalordetzeak

Fundazioa Patronatuak gobernatzen du, eta Patronatuak Osoko Bilkuraren eta Batzorde Betearazlearen bitartez funtzionatzen du. Osoko Bilkurari dagokio haren kudeaketa zuritzea babesleen aurrean eta Fundazioa ordezkatzea, Estatutuetan eta indarrean dagoen legedian ezarritakoak beste mugarik gabe. Patronatuaren Osoko Bilkurak Fundazioaren estatutuetako 18. artikuluan adierazitako ahalmenak ditu.

Fundazioa ordezkatu, gobernatu, kudeatu eta administratzeko funtzioak dituen heinean, Batzorde Betearazleari dagozkio Fundazioaren estatutuetako 20.4. artikuluan deskribatutako ahalmenak.

2018an, Fundazioaren Patronatuak erabaki zuen Beatriz Herráez Diéguez andrea izendatzea Arabako Artium Fundazioaren zuzendaria, urte hartako abenduaren 3tik aurrerako ondorioekin. 2019ko urtarrilaren 21eko Patronatuaren Osoko Bilkurak onespena eman dio Beatriz Herráez zuzendariari ahalordeak emateari eta Fundazioaren Garapen eta Finantza arloko zuzendariordearen eta Finantzen arduradunaren ahalordeak eguneratzeari. 2023ko urriaren 16ko Patronatuaren Osoko Bilkurak onartu zuen Beatriz Herraéz izatea zuzendari beste bost urtez. Patronatuaren egun horretako osoko bilkuran Garapen eta Finantza zuzendariordeari botereak kentzea eta Finantzen eta Pertsonen arduradunari eta Marketin, Garapen eta Publikoen arduradunari ematea erabaki zuten.

Hortaz, zuzendaria da, bere karguari dagokionez, Fundazioaren eguneroko kudeaketaren arduraduna, eta sinadura dauka banketxeetan eragiketa arruntak ireki, deuseztatu eta egiteko nahiz kontratuak eta fakturak sinatzeko, baita ahalordetze-eskrituraren bidez emandako bestelako ahalmenak ere.

Zuzendariaz gainera, Finantzen eta Pertsonen arduradunak ahalordea du zenbait egintza egiteko, zuzendaria ez dagoenean, eta, azkenik, Marketin, Garapen eta Publikoen arduradunak ahalordeak ditu sinadura elektronikoa behar duten eragiketak egiteko, Fundazioaren izenean eta haren ordezkari gisa, zuzendariak bezalaxe.

35.- FUNDAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEARI BURUZKO INFORMAZIOA

35.1. Batzorde Betearazleko kideak 2023an.

Honako erakunde hauek parte hartzen dute abenduaren 31n Fundazioaren Batzorde Betearazlean, Kultura, Euskara eta Kiroletako Saileko foru-diputatua buru dutela:

- Arabako Foru Aldundia, 2 ordezkariarekin.
- Eusko Jaurlaritza, ordezkari 1ekin.
- Vitoria-Gasteizko udala, ordezkari 1ekin.
- Babesle pribatuak (1 ordezkari). 2023an Euskaltel S.A. enpresari egokitu zaio ordezkaritza hori.

35.2. Batzorde Betearazlearen jarduna 2023an.

Batzorde Exekutiboak hamar saio egin ditu 2023an: urtarrilaren 19an, otsailaren 16an, martxoaren 28an, apirilaren 20an, apirilaren 27an, maiatzaren 18an, ekainaren 15ean, irailaren 28an, azaroaren 16an eta abenduaren 14an.

Batzorde horretako kideez gain, Beatriz Herráez Fundazioko zuzendaria eta Javier Iriarte Salazar Garapen eta Finantza Saileko zuzendariordea izan dira saio horietan (azken hori 2023ko irailera arte). Azaroko eta abenduako batzordeetan, Luis Molinuevo Ugartondo jaunak, Artium Museoko Finantzen eta Pertsonen arduradunak, Javier Iriarte jauna ordezkatu zuen.

Batzorde Betearazleak 2023an egindako jardura esanguratsuenak honako hauek izan dira:

Artelanen dohaintza- eta gordailutze-hitzarmenak:

A.- Museistika.

1.- Artelanak erostea, gordailutzea, dohaintza, emateak eta maileguak.

- Honako artista hauen artelanak erosteari onespina ematea: Rafael Lafuente, Patricia Dauder, Edurne Herrán, Julia Spinola, Carolina Caycedo, Alejandro Garmendia eta Moyra Davey. Moyra Daveyren obraren erosketa atzeratu egin zen, eta Rosalind Nashashibi artistaren obra batekin ordezkatu zen. 2024ko urtarrilaren 18ko Batzorde Exekutiboaren saioan berretsi da.
- Honako artista hauen artelanak erosteari onespina ematea, Eusko Jaurlaritzak Bilduma Partekatuaren testuinguruan sustatutako erosketa-ildo berri baten barruan, ekimen horretan lankidetzan diharduela Artiumek (bildumaren egoitza) beste euskal erakunde batzuekin (Bilboko Arte Ederren Museoa eta CICC Tabakalera): Álvaro Perdices, Xabier Salaberria, Maddi Barber eta Marina Lameiro, Irati Gorostidi eta Mirari Echávarri, Xare Alvarez Berakoetxea, Pedro Osés eta Juanjo Aquerreta, Ainara LeGardon, Isabel Herguera, Naia del Castillo, Karlos Martínez Bordoy, Fernando eta Vicente Roscubas, Mari Puri Herrero, Ismael Iglesias, Marisa González, Jon Mikel Euba, Elena Aitzkoa, Beatriz Olabarrieta, Miguel Angel Gaüeca eta Zuhar Iruretagoiena.
- Soco Romanorekin egindako dohaintza-hitzarmena onartzea. Horren bidez, bere jabetzako dokumentu-funts bat dohaintzan ematen du.
- Hitzarmena onartzea Arabako Foru Aldundiarekin, Artium Fundazioak bere jabetzako komiki-bilduma bat dohaintzan emateko.
- Hitzarmena onartzea Basterretxea Izurzun familiarekin, Nestor Basterretxea artistaren dokumentazio-funts bat dohaintzan emateko.
- Gorka Romanorekiko dohaintza-hitzarmena onartzea. Horren bidez, Rafael Lafuente artisataren dokumentu-funtsa dohaintzan ematen du.
- Txaro Arrázolarekiko dohaintza-hitzarmenari onespina ematea, hark egindako eta haren jabetzako lan bat dohaintzan jasotzeko.
- Antón Patiñorekiko dohaintza-hitzarmenari onespina ematea, hark egindako eta haren jabetzako lan bat dohaintzan jasotzeko.
- Pablo Milicuaiekiko dohaintza-hitzarmenari onespina ematea, hark egindako eta haren jabetzako lan bat dohaintzan jasotzeko.
- Patrick Lockerekiko dohaintza-hitzarmenari onespina ematea, haren jabetzako lan bat dohaintzan jasotzeko.
- Ramón Díaz de Duranarekiko dohaintza-hitzarmenari onespina ematea, haren jabetzako lan bat dohaintzan jasotzeko.
- Álvaro Perdicesekiko dohaintza-hitzarmenari onespina ematea, hark egindako eta haren jabetzako obrak dohaintzan jasotzeko.

- Inés Medinarekiko dohaintza-hitzarmenari onespina ematea, hark egindako eta haren jabetzako lan bat dohaintzan jasotzeko.
- Inmomym, S. L.rekiko dohaintza-hitzarmenari onespina ematea, haren jabetzako lan bat dohaintzan jasotzeko.
- Begoña Zuberorekiko dohaintza-hitzarmena aldatzea, 2022an izenpetua, zeinaren bidez dohaintzan ema zituen berak egindako eta bere jabetzako obrak.
- Enpresa edo erakunde hauek, besteak beste, eskatutako hainbat artelanen maileguak onartzea: Fundación Canal de Madrid, Museo Nacional Thyssen Bornemisza, Tabakalera, Museo Nacional de Arte Reina Sofía, Museo Patio Herreriano, Montehermoso Kulturunea, Fundación Diaz Caneja, Bilboko Arte Ederren Museoa, Museo de Bellas Artes de Asturias eta Euskal Zine Bilera jaialdia.
- Castaño Lasasoa familiari dagokion Rafael Zabaletaren obra baten gordailua kendu dadin onartzea.
- Castaño Lasasoa familiari dagozkion Rafael Zabaletaren hainbat artelanen gordailua kendu dadin onartzea.
- María Dolores Julve Guerrerori dagokion Rafael Zabaletaren obra baten gordailua kendu dadin onartzea.
- Carlos Marco Romerori dagozkion Rafael Zabaletaren hainbat artelanen gordailua kendu dadin onartzea.
- Dumaca, S.L.ren gordailua kendu dadin onartzea.
- Inmomym S.L. enpresari dagozkion hainbat artelanen gordailua kendu dadin onartzea.
- Mario Legorbururi dagozkion hainbat artelanen gordailua kendu dadin onartzea.
- Juan Boneti dagozkion hainbat artelanen gordailua kendu dadin onartzea. Lasasoa

2.- Ekoizpen- eta lankidetzatza-hitzarmenak.

- Lankidetzatza-hitzarmena onartzea Gasteizko Udalarekin *Esther Ferreren Zenbaki Lehenak* obra zaharberritzeko eta Artium Museo barruko plazan jartzeko.
- Lankidetzatza-hitzarmena onartzea Lisboako Associação Maumaus - Centro de Contaminação Visualekin Alejandro Cesarcori buruzko erakusketa egiteko.
- Lankidetzatza-hitzarmena onartzea Baltic Centre for Contemporary Artekin, *Carolina Caycedo: Adiskideen lurraldea / Tierra de amigos / Land of Friends* erakusketa jartzeko.

- Lankidetza-hitzarmena onartzea Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofiarekin, Ibon Aranberriren *Vista parcial* erakusketa antolatzeko.
- CRAC Alsacekin lankidetza-hitzarmena onartzea, Julia Spínolaren *Persona, foto, persona* erakusketa jartzeko.
- Lankidetza-hitzarmena onartzea Mujeres en las Artes Visuales (MAV) elkartearekin.
- TABAKALERA – Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentroarekiko hitzarmenari onarpena ematea, JAI 2023 antolatzeko.
- TABAKALERA – Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentroarekiko hitzarmenari onarpena ematea, Hasieratik. Zinema feministaren historiak zikloa antolatzeko, 2023an
- Hitzarmen espezifikoa onartzea Elias Querejeta Zine Eskolarekin (EQZE), Artium Museoan hezkuntza-praktikak garatzeko.
- Lankidetza-hitzarmena Kultura Klean! Elkartearekin, Korterraza 2023 jaialdia Artium Museoan egiteko.
- Lankidetza-hitzarmena onartzea Kalakalab, S.C.rekin, Gaztefilm Fest 2023 Artium Museoan antolatzeko.
- Lankidetza-hitzarmena onartzea Lekeitioko Udalarekin, Artium museoak Euskal Zine Bileraren 46. edizioan parte hartzeko, Lekeition, 2023an.
- Hitzarmena onartzea Altraste Danza Elkartearekin danZálava 2023 Artium Museoan antolatzeko.
- Lankidetza-hitzarmena berrestea Euskadiko Ilustratzaileen Elkargo Profesionalarekin, Irudika 2023 Artium Museoan antolatzeko.
- Lankidetza-hitzarmena onartzea IDarte - Euskadiko Arte eta Diseinu Goi Eskolarekin.
- Hitzarmena onartzea Academy of Fine Arts Viennarekin, Artium Museoan hezkuntza-praktikak garatzeko.
- Lankidetza-hitzarmena onartzea UNEDek artearen eta sorkuntzaren arloan Gasteizen duen zentroarekin.

3.- Bestelakoak.

- Juncal Ballestín Nazioarteko Ikerketa beka esleitzea, 2023ko deialdian.

B.- Administrazio eta Gobernuaren Alorra.

1.- Babesletza- eta garapen-hitzarmenak.

- Euskaltel SArekin 2023rako sinatutako babes-hitzarmenaren gehigarria onartzea eta Patronatuaren Osoko Bilkurari aurkeztea.
- Babesle-hitzarmena onartzea Iragarri, SLurekin, Berria, S.L.rekin dagoen hitzarmena ordezkatzuz.
- Green Card turismo-txartelaren atxikipena onartzea.

2.- Ekonomia- eta finantza-arloak.

- 2022ko ekitaldiko kontuak prestatzea; horiek barne hartzen dituzte Jardueren Memoria, Balantzea eta Emaizten Kontua, Memoria, Aurrekontuaren Likidazioa eta Inbentarioa.
- 2024ko ekitaldiko Aurrekontua eta Jarduketa-plana onartu eta Patronatuaren Osoko Bilkurari aurkeztea.
- 2024. urterako sarreren tarifak onartu eta Patronatuaren Osoko Bilkurari aurkeztea.

3.- Kontratazioa.

- Gres-piezak hornitzeko kontratua esleitzea, Esther Ferreren *Zenbaki lehenak* artelana instalatzeko Artium Museoa.
- Lizitazio publikoaren oinarriak onartzea eta esparru-akordioa esleitzea ondoren (homologazioa), Museoko erakusketa-aretoetarako zurgintza-materiala hornitzeko eta jartzeko.
- Aurreko deialdia esleitu gabe uztea, lizitazio publikoaren oinarri berriak onartzea eta, ondoren, Artium Museoa jendaurreko zerbitzua emateko kontratua esleitzea.
- Enpresa edo erakunde pribatuei artelanak maileguan uzteagatik kobratu beharreko kanona onartzea.
- Artiumeko funts artistikoak eta dokumentalak katalogatzeko eta dokumentatzeko zerbitzua eskaintzeko kontratuaren lizitazio publikoaren oinarriak eta esleipena onartzea, Liburutegiko eta Artium Museoko Dokumentazio Zentroko erabiltzaileentzako arreta-zerbitzuak barne.
- Artium Museoa artelanen argazki-zerbitzua emateko kontratuaren lizitazio publikoaren oinarriak onartzea eta, ondoren, esleitzea.
- Museoa barruko plazan Esther Ferrer-en *Números Primos (Zenbaki Lehenak)* obra instalatzeko zerbitzua emateko lizitazio publikoaren oinarriak onartzea eta, ondoren, kontratua esleitzea.
- Artium Museoko instalazioak energia elektriko hornitzeko eta gas naturalez hornitzeko lehiaketetarako Foru Kontratazioko Zentralari (CECOFAL) atxikitzea onartzea.
- Artium Museoko zaintza- eta segurtasun-zerbitzua eskaintzeko lizitazio publikoaren oinarriak eta ondorengo ezeztapena onartzea.
- Nestor Basterretxearen jaiotzaren mendeurrenako webgune bat diseinatu, garatu eta mantentzeko zerbitzua emateko lizitazio publikoaren oinarriak onartzea eta, ondoren, kontratua esleitzea.
- Artium Museoa hotza sortzeko sistema termikoa hornitzeko eta instalatzeko kontratuaren lizitazio publikoaren oinarriak onartzea.
- Artium Museoko zaintza- eta segurtasun-zerbitzua eskaintzeko lizitazio publikoaren oinarriak onartzea, aurreko lizitaziokoak aldatuz.
- Artium Museoko bisita gidatuen eta hezkuntza-jardueren kontratuaren lizitazio publikoaren oinarriak onartzea.

- Artium Museoko erakusketen muntaketa eta desmuntaketa museografikorako zerbitzuaren hornitzaileak homologatzeko esparru-akordioaren lizitazio publikoaren oinarriak eta ondorengo esleipena (homologazioa) onartzea.

4.- Lan-arloa.

- 2022an zehar produktibitatearen osagarri-kontzeptuan ordaindutako kopuruen finkapena onartzea.
- Arabako Artium Fundazioaren langile-taldearen 2023ko soldata-igoera onartzea.
- Txandatzeko-kontratuaren bidez proiektuen koordinatzailea kontratatzeke deialdia eta ondoren deialdia esleitu gabe uztea onartzea.
- Marketineko, Garapeneko eta Publikoetako koordinatzaile bat errelebo-kontratu bidez kontratatzeke deialdi publikoa onartzea eta, hautaketa-prozesua egin ondoren, lanposturako hautatutako pertsonaren izendapena berrestea.
- Ordezkatze-kontratuaren bidez (lanaldi murrizketa, lanaldi erdia) administrari baten plaza kontratatzeke eta ondoren, hautaketa-prozesua egin ondoren, lanposturako aukeratutako pertsona izendatzeko prozesua onartzea.
- Lanerako ezintasun iragankor (LEIg) baja bat ordezkatzeko administrari baten plaza bat kontratatzeke (lanaldi osoan) eta ondoren, hautaketa-prozesua egin ondoren, lanposturako aukeratutako pertsona izendatzeko prozesua onartzea.
- Artium Museoaren Erakusketa arduradunak eskatutako behartutako eszedentzia onartzea eta eszedentzia behartu horren ondorioz Artium Museoaren Erakusketa koordinatzailearen postua betetzeko prozesua onartzea. Lanposturako aukeratutako pertsonaren izendapena onartzea.
- Artium Museoko zuzendariaren lan-kontratua berritzea onartzea.
- FUNKOren Zuzendaritza Batzordean Fundazioko ordezkari bat esleitzeko proposamena onartzea.
- Artium Fundazioko datuen babeserako ordezkaria izendatzeko proposamena onartzea.
- Artium Fundaziorako langileek telelana egiteko plan pilotua onartzea.

C.- Estatutuen aldaketak.

Ez da aldaketarik egin estatutuetan.

36.- LANGILEEN DATUAK ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN EKARPENAK

Abenduaren 31ko 52/2013 Foru Dekretua betez, honako taula osatu da:

LANGILEEI BURUZKO DATUAK ETA AFA-REN EKARPENAK	2023	2022
LANGILEEN KOSTUA	1.094.279,34	1.060.718,57
LANGILEEN GASTUAK	1.433.572,68	1.367.734,14
LANGILE-TALDEA	25	23
AFA-REN EKARPENAK	2.327.702,00	2.498.625
KAPITALEKO DIRULAGUNTZAK	84.577,25	213.054,00
USTIAPENEN DIRULAGUNTZAK	2.243.124,75	2.285.571,00
GALEREN KONPENTSazio-EKARPENAK	0	0
KAPITAL HANDITZEAK	0	0

37.- AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

37.1. 2023ko ekitaldiko aurrekontuaren eta benetako gauzatzearen konparaketa

A. GASTUEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

GASTUAK	Aurrekontua	Egiazkoa	Desbideratzea
FUNTZIONAMENDU-ERAGIKETAK			
1. Hornidurak	7.600,00	9.008,74	-1.408,74
2. Langileen gastuak	1.457.588,40	1.447.534,92	10.053,48
3. Ibilgetuaren amortizazio-zuzkidurak	0,00	1.650.458,25	-1.650.458,25
4. Beste gastu batzuk	3.060.411,59	3.042.493,55	17.918,04
Funtzionamendu-eragiketen gastuak, guztira	4.525.600,00	6.149.495,46	-1.623.895,46
FUNTS-ERAGIKETAK			
5. Ibilgetuaren amortizazio-zuzkidurak	308.000,00	-1.442.162,61	1.750.162,61
6. Produktu amaituen izakinen gehikuntza	0,00	1.315,17	1.315,17
7. Diruzaintzaren-gehikuntza	0,00	36.729,59	36.729,59
8. Ekitaldiko soberakinera eramandako kapitaleko dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	0,00	1.482.902,26	-1.482.902,26
Funts-eragiketen gastuak, guztira	308.000,00	78.784,41	305.305,11
AURREKONTUKO GASTUAK, GUZTIRA	4.833.600,00	6.228.279,87	-1.394.679,87

B. SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

SARRERAK	Aurrekontua	Egiazkoa	Desbideratzea
FUNTZIONAMENDU-ERAGIKETAK			
1. Jarduera propioagatiko entitatearen sarrerak	4.724.502,00	4.362.686,10	-361.815,90
a) Erakundeek ekarpenak	4.167.702,00	3.948.464,10	-219.237,90
b) Babesleen sarrerak	514.600,00	378.412,50	-136.187,50
c) Salmentak eta ohiko beste sarrera batzuk	24.000,00	21.263,50	-2.736,50
d) Erabiltzaileen eta afiliatuen kuotak	18.200,00	14.546,00	-3.654,00
2. Produktu amaituen izakinen gehikuntza	0,00	1.315,17	1.315,17
3. Beste sarrera batzuk	109.098,00	131.933,45	22.835,45
4. Ekitaldiko soberakinera eramandako kapitaleko dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	0,00	1.650.458,25	1.650.458,25
Total ingresos operaciones funcionamiento	4.833.600,00	6.146.392,97	1.311.477,80
OPERACIONES DE FONDOS			
5. Ustiapen-jardueren eskudiru-fluxuak	0,00	81.886,60	-81.886,60
Funts-eragiketen sarrerak, guztira	0,00	81.886,60	-81.886,60
AURREKONTUKO SARRERAK, GUZTIRA	4.833.600,00	6.228.279,57	1.394.679,57

37.2. 2023ko aurrekontuaren likidazioaren azalpen-oharrak.

Konparazioak egiteko eta datuak hobeto azaltzeko, 2023ko aurrekontuaren eta aurrekontu-betetzearen datuak aurkezten dira. Gastuen eta diru-sarreraren banakapena abenduaren 20ko 33/2022 Foru Arauarekin bat ez datorren arren, gastuen eta diru-sarreraren guztizkoa bat dator, amortizaziorako zuzkidura eta ekitaldiko emaitzara transferitutako kapitaleko dirulaguntzetara egoztean izan ezik, Arabako Artium Fundazioak 2023rako onartutako aurrekontuarekin.

A. GASTUEN AURREKONTUA

FUNTZIONAMENDU-ERAGIKETAK

A1. HORNIDURAK

	Aurrekontua	Egina	Desbideratzea
Hornidurak	6.000,00	9.008,74	-3.008,74
Beste erosketa batzuk	1.600,00	0,00	1.600,00
Guztira	7.600,00	9.008,74	-1.408,74

Partida hau Artiumeko dendako eta liburu-dendako produktuen erosketari dagokio.

2023ko ekitaldiko aurrekontuan aurreikusitako kopurua 7.600,00 eurokoa zen. Aurrekontua benetan gauzatutakoari dagokionez, dendarako horniduren zenbateko osoa 9.008,74 eurokoa izan da. Gastu handiago hori 2023an egindako Gema Intxausti artistaren edizio seriatu berri baten ekoizpenaren eta Esther Ferrer artistaren obra seriatuaren beste edizio baten bost unitateren ondorio da.

A2. LANGILEEN GASTUAK

	Aurrekontua	Egina	Desbideratzea
Langileen gastuak	1.118.323,00	1.094.279,34	24.043,66
Gizarte-segurantzak	311.954,00	328.955,69	-17.001,69
Prestakuntza	15.500,00	13.491,64	2.008,36
Beste gizarte-gastu batzuk	11.811,00	10.808,25	1.002,75
Guztira	1.457.588,00	1.447.534,92	10.053,08

Langileen gastuetan, Artium Museoko langileen gizarte-kotizazioak, soldatak eta ordainsariak sartuta daude, baita beste konpromiso sozial batzuk (Fundazioko langileen bizitza-aseguruak eta BGAerako ekarpenak) eta prestakuntza-gastuak ere.

Langileen gastuak epigrafean, Fundazioko langileen soldatak eta ordainsariak jasotzen dira.

Fundazioko langileen ordainsariak % 3,0 igo dira 2022ko abenduaren 31n indarrean zirenen aldean, memoria honen 17.6. puntuan azaltzen den moduan. Ekitaldi honetan Fundazioaren langile taldeari dagokionez izandako aldaketak memoria honen 29. puntuan azaldu dira. Puntu horretan adierazitako 2023ko borondatezko baje, eszedentzien, LEI baje eta horiek ordezkatzeko egindako kontratazioen ondorioz izandako jazoerak aste edo hilabete batzuk beranduago gauzatu izanak eragin du epigrafe honetan adierazitako aurrezkia. Gizarte-kotizazioen epigrafean ageri den desbideratze negatiboaren arrazoia da % 8,60 igo dela Gizarte Segurantzako kotizazioen gehieneko oinarria, eta hazkunde hori ez zela kontuan hartu ekitaldiko aurrekontua egiteko unean.

Prestakuntzaren atalean, 9.000 euro dagozkio Fundazioko hizkuntzak ikasteko Mondragón Linguarekin izenpetutako hitzarmenaren balio ekonomikoari. Zenbateko horren baliokide den kopuru bat ageri da sarreren kapitulan, babesleen sarreren atalean, enpresa horrekin izenpetutako lankidetzak-hitzarmenaren (Enpresa Lankidea) esparruan.

Gainerakoa (4.491,64 €) askotariko edukietako beste prestakuntza-ikastaro batzuei dagokie.

Galeren eta irabazien kontuan, prestakuntza-gastuen zenbateko hori kanpoko zerbitzuen kontuan dago erregistratuta.

Beste gastu sozial batzuei dagokien partidan, enpresak BGAeri egindako ekarpenak (3.940,00 €) eta Fundazioaren langileen bizitza- eta istripu-aseguruen polizen ordainketa jaso dira (6.868,25 €).

Laburbilduz, langileen gastuen desbideratze negatiboa 10.053,08 eurokoa da 2023an.

A3. IBILGETUAREN AMORTIZAZIO-ZUZKIDURAK

2023ko ekitaldiko ibilgetuaren amortizaziora bideratutako zuzkiduraren zenbatekoa 1.650.458,25 eurokoa izan da. Amortizazioak sarreren ataleko zenbateko bereko beste zifra batekin orekatzen direnez, ez da ageri zenbatekorik aurrekontuan. Horrez gain, artelanen gordailuaren amortizazioari dagokion egokitzapena ere ez zen aurreikuspenean jaso, ez baitu eraginik aurrekontuan.

Alderdi horretatik, urteko kontuen memorian azaldu bezala (17.8. oharra), 2012tik aurrera artelanen gordailuak amortizatzeko irizpidea aldatzea erabaki zen. Hala, aurreko ekitaldietan gordailu horiek amortizaezin gisa hartzen ziren, ez zutelako narriadurarik pairatzen haien gaineko erabilera eta gozamenagatik. Hala ere, 2012tik aurrera, gure auditoreen gomendioei jarraituz, artelanen gordailutze-

hitzarmenak amortizatu egin dira, horien iraupen-epearen arabera. Irizpide hori mantendu da hurrengo ekitaldietan.

AFAk lagatako ondasunen amortizazio-zuzkidurei aplikatutakoaren haritik, artelanen gordailutze-hitzarmenen amortizazio-zuzkidurak zenbateko bereko sarrerekin orekatzen dira (dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak, ekitaldiko emaitzetara eramanak). 2023an egindako amortizazio-zuzkiduren banakapena eta 2022an egindakoen arteko konparazioa honako taula honetan jaso da:

	2023	2022
AFArek ondasunen lagapen-amortizazioa	433.703,97	433.703,97
Artelanen gordailu-hitzarmenen amortizazioa	1.160.690,83	1.565.397,18
Beste elementu ibilgetu batzuen amortizazioa	56.063,45	53.580,00
Guztira	1.650.458,25	2.052.681,15

A4. BESTE GASTU BATZUK

Hona hemen gastuen zerrenda, gastuen izaeraren arabera:

	Aurrekontua	Egina	Desbideratzea
Erakusketak eta argitalpenak	980.000,00	926.039,16	53.960,84
Jarduerak	103.500,00	86.037,86	17.462,14
Alokairuak	5.172,00	5.172,00	0,00
Konponketak eta kontserbazioa	308.877,43	362.892,90	-54.015,47
Profesional independenteen zerbitzuak	25.031,88	37.115,68	-12.083,80
Garraioak	5.780,00	6.638,42	-858,42
Aseguruen primak	38.500,00	70.347,56	-31.847,56
Banku-zerbitzuak eta parekoak	700,00	1.498,38	-798,38
Publizitatea, propaganda eta har. Publikoak	242.229,00	233.245,80	8.983,20
Hornidurak	237.086,06	168.620,75	68.465,31
Zergak	35.190,00	34.600,23	589,77
Komunikazioak	17.418,80	18.814,45	-1.395,65
Enpresek emandako beste zerbitzu batzuk	1.027.270,95	1.068.328,39	-41.057,44
Beste gastu batzuk	33.655,47	23.141,97	10.513,50
Guztira	3.060.411,59	3.042.493,55	17.918,04

Erakusketak eta Argitalpenak epigrafean benetako gastua 926.039,16 eurokoa izan da, 53.960,84 euroko desbideratze positiboarekin. *Erakusketak eta Argitalpenak* epigrafeko gastuan horiek ekoizteko beharrezkoak diren gastu guztiak sartzen dira –barne direla artelanak garraiatzeko eta erakusketa-guneak muntatzeko gastuak, besteak beste–, baita ekoizpen-gastuak, artisten eta komisarioen ordainsari profesionalak eta liburuxken eta katalogoen edizioa ere. Gastu txikiago horren arrazoi nagusia da 2023an Esther Ferrereren *Zenbaki Lehenak* pieza instalatzeko aurreikusitako gastua (40.000,00 euro) azkenean inbertsio gisa kontabilizatu dela (Ondasun Higigarrien epigrafea, Ondare Historikoko Ondasunen barruan), 102.033,10 euroko gutzitako zenbatekoarekin (ikusi 6 eta 21. oharra). Gainerako desberdintasuna 2023an izandako hainbat erakusketaren amaierako gastuan aurreztutako kopuruari dagokio.

Atal honetan jasotzen da, orobat, BEZaren hainbanakoa doitzearen eragina ere. 2023an 184.119,04 eurokoa izan da (150.000,00 € aurrekontuan), eta horrek, lehen azaldu bezala (17.7. oharra), Museoren jardueraren gastu zuzenaren kostu handiagoa adierazten du.

Jarduerak epigrafean, 86.037,86 euroko gastua egin da, eta 17.462,14 euroko desbideratze positiboa izan du onartutako aurrekontuari buruz. Kasu honetan, Dokumentazio eta Artxibo Zentroan egindako proiektuek gastu txikiagoa izan dutelako aurreztu da, baita urtean zehar garatutako programa publiko batzuetan beste desbideratze positibo batzuk izan direlako ere.

Alokairuak epigrafea Museoko ordenagailuen rentingaren gastuei dagokie.

Konponketak eta kontserbazioa epigrafean, besteak beste Artium Museoko instalazioen garbiketa- eta mantentze-gastuen zenbatekoa jaso da: Museoaren instalazioetako eta eraikineko prebentzioko zein zuzenketako mantentze-lanena, hain zuzen. 2023an, 54.015,47 euroko desbideratze negatiboa sortu da. Museoko instalazioen narriadurari aurre egiteko beharrezko konponketa batzuk egin dira, baita espazioak moldatzeko eta berregokitzeko ezohiko konponketa eta jarduketa batzuk ere (Museoko plaza garbitzea, kristalak aldatzea, eskailerak, atsedenerako aretoak, atariak, Plaza Aretoa margotzea eta argia aldatzea, A3 aretoa margotzea...). Halaber, software informatikoaren mantentze-lanen atalean, hasieran segurtasun-sisteman aurreikusita ez zeuden garapen eta mantentze-lan informatikoak egin dira, baita Liburutegiko kudeaketa-sistemaren programan ere. 2023an, Museoko zinema-proiektuan konponketa handi bat egin da, 6.264,00 euroko kostuarekin, eta altxatzeko orga ere konpondu da, 4.264,52 eurogatik. Azkenik, ekainean sute txiki bat izan zen Museoko bulegoetan eta hasieran aurreikusita ez zeuden konponketa- eta mantentze-lanak egin behar izan dira. Gastu horiek Museoari itzuli zaizkio hein handi batean, aseguru-enpresaren indemnizazioen bidez.

Profesional independenteen zerbitzuak epigrafeak aholkularitza juridikoko zerbitzua jasotzen du, eta baita prebentzioko kanpo zerbitzuaren kostua eta langileak hautatzeko zerbitzuen kostuak ere. 12.083,80 euroko desbideratze positiboa izan dela egiaztatu da. 2023an, aurrekontuan aurreikusi gabeko proiektu berri bat egin da Museoan, baliabideak lortzeko. Horretarako, kultur kudeaketarako eta baliabideak lortzeko espezialista den kanpoko enpresa baten laguntza jaso da.

Garraioak epigrafea mezularitza- eta garraio-zerbitzu orokorreari dagokie. 858,52 euroko desbideratze negatiboa izan da.

Aseguruak epigrafean –Fundazioak eraikina eta bilduma babesteko ordaindutako aseguruen primek hartzen dute epigrafe horren zenbateko handiena eta Arabako Foru Aldundiak ordaindua eta hark Artium Museoari jasanaraziak–, 2023an 30.885,60 euroko desbideratze negatiboa izan da. Artelanen bildumaren eta eraikinaren aseguru-poliza 2022an 22.599,24 eurokoa izatetik 2023an 50.249,44 eurokoa izatera igaro zen. Hazkundearen berri eman zitzaion Fundazioari 2024ko urtarrilean, eta, hortaz, 2023ko aurrekontuan esleitutako zenbatekoa 2022ra arte ordaindutakoa izan zen.

Publizitatea, Propaganda eta Harreman Publikoak epigrafearen zenbatekoan sartuta dago Museoaren publizitate orokorraren kostua, baita 2023an egindako publizitate-kanpainen kostua ere. Zenbateko aipagarria -184.080,00 euro (el 78,92 %)- dagokie kide korporatiboek publizitate edo trukeen bidez egindako ekarpenei. Gastu horren zenbateko bereko zifra ageri da sarreraren atalean ere. Partida horrek 8.983,60 euroko desbideratze-positiboa du, trukerako publizitate-hitzarmenetan egindako egokitzapenengatik.

Hornidurak epigrafean, 68.465,31 euroko desbideratze negatiboa gertatu da. 2023ko aurrekontuko zenbatekoak aurreikusten zituen kostuak bat zetozen 2022ko lehen sei hilabetekoekin. 2022ko bigarren sei hilabetekoan elektrizitatearen tarifak jaitsi egin ziren arren, aurrekontuan egindako aurreikuspenean urteko lehen zatiko kontsumoak hartu ziren kontuan, zuhurtzia-irizpideei jarraituz. 2023an, kostuak egonkortu egin dira, 2022ko azken hilabeteetako mailatan. Horrez gain, Artium Museoa Foru Kontratazioko Zentralari (CECOFAL) atxiki zaio. Arrazoi horiek azaltzen dute epigrafe honetan aurreztutako kopuru handia.

Zergak epigrafean Museoaren eraikinaren Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kostua jaso da: 31.897,20 euro 2023n. Zergen kostuen gainerakoa zaborren tasaren ordainketari dagokio, nagusiki. 589,77 euroko desbideratze positiboa izan da.

Komunikazioak epigrafea telefonoaren eta Interneteko konexioaren gastuari dagokio, eta 1.395,65 euroko desbideratze negatiboa du.

Enpresek emandako beste zerbitzu batzuk epigrafean Artium Museoaren funtzionamendurako beharrezko zerbitzuak kontratatzetik eratorritako gastuak jaso dira. Enpresa horien artean daude jendaurreko arretarako laguntza-zerbitzua ematen duten enpresak eta Artium Museoaren segurtasun- eta zaintza-zerbitzuak eskaintzen dituztenak. Hor sartuta daude, halaber, Bilduma Iraunkorra eta Analisi Artistikoak nahiz Liburutegi eta Dokumentazio sailatarako katalogazio- eta dokumentazio-enpresen kontratazioa, baita Hezkuntza Saileko hezitzaile eta gidena ere. Azkenik, epigrafe honetan ageri dira Artiumeko hainbat sailen beste zenbait gastu (bulegoko materiala, posta eta mailinga...). Atal honetan sartzen dira Juncal Ballestín Nazioarteko Ikerketa Bekari dagokion zenbatekoa, zazpi mila eurokoa, zeina baitagoen atxikia Artium Museoa, Euskal Herriko Arte Garaikideko Museoaren Euskal Emakume Artisten, Praktika artistikoen eta Artearen Teoria feministen Ikerketa eta Dokumentazio Zentroari. Artium Museoaren Euskal Emakume Artisten Dokumentazio Zentroko Batzorde Aholkulariak Estibaliz Sádabak aurkeztutako proiektuari esleitu zion beka.

Epigrafe honek 41.057,44 euroko desbideratze negatiboa izan du 2023an, honela banakatua:

- Funts artistikoen eta dokumentalen dokumentazio- eta katalogazio-zerbitzuen kostua 151.908,00 eurokoa aurreikusi zen, eta egindako gastua 175.623,00 eurokoa, 23.715,00 euroko desbideratze negatiboarekin. 2023ko ekainean, kontratu berri bat esleitu zen, eta aurreko kontratuko (2019koa) orduaren prezioa % 32,92 igo zen.
- Ikasle-taldeen eskariari erantzuteko, aurreko urteetako edukiera-mugak guztiz ezabatuta, aurreikusitakoak baino talde gehiago sortu dira, eta horrek 11.596,98 euroko kostu gehigarria ekarri du. Bestalde, 7.622,00 euroko aurrezkiak izan dira audiogidak egitera bideratutako gastuan.
- Segurtasun- eta zaintza-zerbitzuaren kostua 344.286,98 eurokoa izan da, eta 5.234,98 euroko desbideratze positiboa sortu da aurrekontuan finkatutako zenbatekoarekiko (339.052,00 €). Kontratu berriaren ondorio ekonomikoengatik izan da desbideratze hori, prezioak aurreikusitakoak baino altuagoak izan baitira.
- 2023an hobetu egin dira museoko seinaleak, bai sarbideetan, bai erakusketa-aretoetan. 2023an, ahalegin berezia egiten jarraitu dute Museoko guneak hobetzeko eta ekimen bereziak egin dira Museoaren Adiskideekin. Era berean, hasieran aurreikusi gabeko zenbait gastu egin dira diseinu grafikoari lotuta eta Marketin eta Publikoei lotuta. Jarduera horien eraginez, 18.939,40 euroko desbideratze negatiboa gertatu da atal honetan; 29.419,40 euroko egiazko kostua izan du, eta aurrekontuan, berriz, 10.480,00 euro esleitu zitzaizkion.
- Artium Museoa garatutako ekitaldien kostua, 13.000,00 euroko kostuarekin eta 12.987,93 euroko gastuarekin. Bestalde, 2023an kontzeptu horregatik izandako diru-sarrerak (27.977,22 €) aurrekontuan aurreikusitakoaren antzekoak dira ia (28.000,00 €).
- Jendaurreko arretarako laguntza-zerbitzuaren kostua 340.569,05 eurokoa izan da 2023an, eta 5.430,95 euroko desbideratze positiboa sortu da. Aurrekontuan 346.000,00 euroko aurrekontua zegoen finkatuta.
- 2023an 7.837,35 euro aurreztu dira fotokopien, paperezko gauzakien, bulegoetako materialaren, postaren eta mailingen kostuari dagokionez.
- Epigrafe honetako gainerako partidetan desbideratze ez esanguratsuak gertatu dira, positiboak nahiz negatiboak; guztira, 2.473,45 euroko desbideratze negatiboa izan da.

Beste Gastu Batzuk epigrafeak 23.141,97 euroko gastua izan du gutxi gorabehera 2023an, eta estimatutako aurrekontua 33.655,47 eurokoa zen. Hortaz, 10.513,50 euroko desbideratze positiboa izan da.

Beste gastu batzuk epigrafeak barne hartzen ditu Artium Museoko Liburutegi eta Dokumentazio Zentrarako funts bibliografikoak erosteko gastuak (11.998,51 €; 15.300,00 euro zeuden aurreikusita), baita Museoaren kudeaketarako egin beharreko bidaiek eragindako gastuak ere (4.048,19 € 2023an, aurreikusitako 15.543,10 euroen ordeztu). Epigrafe honen barruan dago Artium Museoak 2023an Arabako Foru Aldundiari dohaintzan emandako komiki-bildumaren kostuaren 6.600,00 euroko zenbatekoa. Epigrafe honetako gainerako partidetan desbideratze ez esanguratsuak gertatu dira, positiboak nahiz negatiboak; guztira, 2.317,10 euroko saldo positiboa izan da.

FUNTS-ERAGIKETAK

A5. IBILGETUA GEHITZEA

Memoria Ekonomikoaren 5., 6., 8. eta 17.8. oharretan azalduta daude ibilgetuaren aldaketak.

A6. IZAKINAK GEHITZEA

Partida honen mugimendua urteko kontuen memoriako 14. oharrean azalduta dago.

A7. DIRUZAINTZAKO IGOERA

Diruzaintza 36.729,59 euro gehitu da 2022ko abenduaren 31ko saldoarekin alderatuta

Saldoa	31.12.2022	31.12.2023	Desbideratzea
Diruzaintza	318.026,57	354.756,16	36.729,59
Guztira	318.026,57	354.756,16	36.729,59

A8. JASOTAKO DIRULAGUNTZEN, DOHAINTZEN ETA LEGATUEN MURRIZKETA

Ekitaldian sortutako aldaketak hauek dira, banakatuta:

	31.12.2022	Adiciones	Retiros	31.12.2023	Desviación
Kapitaleko dirulaguntzak	1.165.132,85	444.577,25	56.063,45	1.553.646,65	388.513,80
Babesleen ekarpenak	89.575,63	42.236,28	89.575,63	42.236,28	-47.339,35
Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak	15.000,00	0,00	0,00	15.000,00	0,00
AFaren lagapenak	50.370.732,64	0,00	433.703,97	49.937.028,67	-433.703,97
Artelaren dohaintzak	1.318.518,00	139.800,00	0,00	1.458.318,00	139.800,00
Artelaren gordailuak	3.021.156,51	702.952,73	2.233.125,17	1.490.984,07	-1.530.172,44
Guztira	55.980.115,63	1.329.566,26	2.812.468,22	54.497.213,67	-1.482.901,96

2023an artelaren gordailuen kontabilitateari dagokionez aplikatutako irizpidea, 2012. urteaz geroztik aplikatutako irizpidearen arabera, 8, 17.8, 21 eta 37.2 oharretan (A2 atala) azaltzen da.

B. DIRU-SARREREN AURREKONTUA

FUNTZIONAMENDU-ERAGIKETAK

B1. JARDUERA PROPIOAREN SARRERAK

a) Erakundeek ekarpenak.

2023ko ekitaldian, erakundeek egindako ekarpenei dagozkien diru-sarrera kontabilizatuak 3.948.464,10 eurokoak izan dira, Artium Museoaren jarduerak finantzatzeko helburuarekin guztiak. Kapitulua honetan, bi atal bereizten dira:

a. Erakundeek Museoa finantzatzeko egindako ekarpenak.

2022ko kontabilitatean honako diru-sarrera hauek erregistratu dira:

	Aurrekontua	Egiazkoa	Desbieratzea
Arabako Foru Aldundia	2.302.702,00	2.290.464,10	-12.237,90
Eusko Jaurlaritzako Gobernua	1.625.000,00	1.388.000,00	-237.000,00
Gasteizko Udala	130.000,00	120.000,00	-10.000,00
Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa	110.000,00	150.000,00	40.000,00
Guztira	4.167.702,00	3.948.464,10	-219.237,90

2023an Arabako Foru Aldundiak egindako ekarpen osotik, 2.327.702,00 euro, 2.243.124,75 euro ustiapeneko dirulaguntzetara bideratu dira eta 84.577,25 euro Museoaren inbertsioetara.

17.1.d oharrean adierazi bezala, 2023an jarritako 42.236,28 euroak ez dira sartu dirulaguntzetan izandako urteko diru-sarreretan, berez 2023rako aurreikusita zegoen jarduera bati zegokion, baina, azkenean, 2024ko lehen hilabeteetan amaituko diren programetarako eta jardueretarako izango da. Era berean, 2022an ezarritako 89.575,63 euroak 2023ko diru-sarreretan sartuko dira, berez 2022rako aurreikusita zeuden eta 2023an egin ziren programetarako eta jardueretarako zirelako.

Bestalde, 25.000,00 euroko dirulaguntza jaso da turismoaren sustapen-jarduerak egiteko.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan harturik, Fundazioaren gastu arruntari egotzitako zenbateko horien batura 2.290.464,10 eurokoa izan da 2023an.

2023an 1.388.000,00 euro erregistratu dira Eusko Jaurlaritzaren ustiapeneko dirulaguntzengatik diru-sarrera gisa.

Hasierako aurrekontuaren zenbateko osoaren barruan (1.625.000,00 €), 1.325.000,00 euro aurreikusten ziren Museoaren finantzaketarako eta 300.000,00 euro inbertsioak egiteko (artelanak erostea eta inbertsioak).

Beraz, Eusko Jaurlaritzak 1.325.000,00 euroko ustiapeneko dirulaguntza egin du, aurrekontuan aurreikusi bezala. Gainera, 63.000,00 euro gehigarri jaso dira dirulaguntza moduan, 2023-2024 aldian Nestor Basterretxea eskultorearen jaiotzaren ehungarren urteurrena oroitzeko jarduerak antolatzeke. Hainbat urteko dirulaguntza da eta guztira 80.000,00 eurokoa: horietatik 63.000,00 euro 2023an aplikatu dira eta beste 17.000,00 euroak 2024ko ekitaldian aplikatuko dira. Hortaz, Eusko Jaurlaritzak Artium Museoa finantzatzeko emandako ustiapenerako dirulaguntzen zenbateko osoa 1.388.000,00 eurokoa izan da 2023an.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak 200.000,00 euroko ekarpena egin du 2023an, euskal sortzaile garaikideen artelanak erosteko, eta 100.000,00 euroko beste dirulaguntza izendun bat, Artium Museoaren inbertsio-aurrekontua finantzatzeko. Zenbateko hori aurreikusita zegoen 2023ko aurrekontuan. Azken dirulaguntza horretatik 95.252,68 euro artelanak erosteko erabili dira, eta gainerakoa, Museoan artelanak jartzeko inbertsioetarako. Kasu batean zein bestean kapitaleko dirulaguntzen partidan sartuta dago zenbatekoa (21. oharra).

Beraz, Eusko Jaurlaritzak 2023an 1.688.000,00 euroko funts-ekarpena egin du, guztira.

Vitoria-Gasteizko Udalak 120.000,00 euroko ekarpena egin du 2023an. Aurrekontuan esleitutako kopurua 130.000,00 eurokoa izan da.

Azkenik, Kultura Ministerioak 2023an Fundazioaren aurrekontu arrunta finantzatzen parte hartu du, 150.000 euroko ekarpenarekin. Kasu honetan, kopurua Fundazioaren aurrekontuan esleitutakoa baino 40.000,00 euro handiagoa izan da.

b) Babesleen diru-sarrerak.

Kide Korporatiboen Programa da Artium Museoaren kultura- eta dibulgazio-proiektuaren baitako museo-, kultura- eta hezkuntza-jarduerak garatzeko eta bermatzeko Museoak duen funtsezko tresnetako bat.

Horregatik, bereziki nabarmentzekoa da Arabako Artium Fundazioaren babesleak urtez urte Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa, Artium Museoaren proiektuari dagokionez adierazi duten konpromisoa. Ildo horretatik, bereziki eskertzekoa da Fundazioaren Patronatuko kide diren entitate pribatuak: Diario El Correo, Euskaltel S.A. eta Vital Fundazioa.

2023an, Artiumen lankide eta babesle izan dira, babesle pribatuak ez ezik, hainbat enpresa (Estrategia Empresarial, Diario de Noticias de Álava, EITB eta Cadena SER).

Horiei gehitu behar zaizkie 13 Entitate Laguntzaile eta 13 Ohorezko Adiskide. 2023an, Fundazioak 33 babesle izan ditu guztira. Eta, neurri batean edo bestean, guztiek laguntzen dute proiektu hau gauzatzen.

Hitzarmen mota	2022 itxiera	2023 aurrekontua	2023 itxiera
Babesleak	3	4	3
Enpresa ongileak	4	5	4
Erakunde lankideak	14	18	13
Ohorezko adiskideak	14	14	13
Guztira	35	41	33

Artium modu pribatuan babesteko beste modu bat erakusketak, hezkuntza-jarduerak, argitalpenak edo Museoa garatzen diren bestelako jarduerak babestea da.

Aurrekontuaren eta egiazko egoeraren arteko konparazioa taula honetan jaso da:

	Aurrekontua	Egiazkoa	Desbideratzea
Kide Korporatiboak	424.600,00	376.000,00	-48.600,00
Erakusketen eta jardueren babesletza	90.000,00	2.412,50	-87.587,50
Guztira	514.600,00	378.412,50	-136.187,50

Atal honetan 378.412,50 euroko sarrerak izan dira, guztira, eta 136.187,50 euroko desbideratze negatiboa gertatu da.

c) Salmentak eta ohiko beste diru-sarrerak batzuk.

Atal honen barruan sartzen dira sarrera-salmentagatik lortutako diru-sarrerak eta koprodukzioetatik eta artelaren irudiak mailegatzegatik eratorritako diru-sarrerak.

Honako hau da banakapena:

	Aurrekontua	Egiazkoa	Desbideratzea
Leihatilako salmentagatiko diru-sarrerak	24.000,00	17.405,62	-6.594,38
Erakusketen kudeaketagatiko eta maileguengatiko diru-sarrerak	0,00	3.857,88	3.857,88
Guztira	24.000,00	21.263,50	-2.736,50

Leihatilako sarreren salmentarekin ez da lortu aurrekontuan aurreikusitako zenbatekoa (-6.594,38 €). Museoa saiatu da, pandemian abian jarritako prezio politikari eutsiz, bertako jendeari Museoko bisita errazten, egun eta ordutegi jakin batzuetan doako tarifa eskaintzeko politikaren bitartez.

Erakusketak eta maileguak kudeatzearen ondoriozko diru-sarrerak Bildumako lanen irudia lagatzearen ondoriozko diru-sarrerei dagozkie.

d) Erabiltzaile eta afiliatuen kuotak,

Artiumen Adiskideek urtean egindako ekarpenei dagozkie. 2023an kontzeptu honi lotutako sarrerak 14.546,00 eurora iritsi ziren; 3.654,00 euroko zenbatekoa zegoen aurrekontuan aurreikusita.

B2. IZAKINEN GEHIKUNTZA

1.315,77 euroko igoera urteko kontuen memoriako 14. oharrean azaldu da.

B3. BESTE SARRERA BATZUK

Honako hau da banakapena:

	Aurrekontua	Egiazkoa	Desbideratzea
Jatetxe-Kafetegiaren ustiapena	65.098,00	71.676,48	6.578,48
Ekitaldiak	28.000,00	27.977,22	-22,78
Denda eta Liburu-denda	8.000,00	3.540,83	-4.459,17
Beste diru-sarrera batzuk	8.000,00	28.738,92	20.738,92
Guztira	109.098,00	131.933,45	22.835,45

Jatetxe-kafetegiko ustiapen-kanonari dagozkion diru-sarrerak 47.544,51 eurokoak izan dira. Gainerako sarrerak hornidura-gastuei (argindarra eta ura) eta jasanarazitako beste gastu batzuei (garbiketa, tasak) dagozkie. Sarrera horien kontrapartida kopuru bereko zenbatekoa da gastuetan.

Espazioak alokatzeko eta ekitaldiak kudeatzeko negozio-unitateak 27.977,22 euro lortu ditu 2023, eta 28.000,00 euroko sarrera zegoen aurreikusita. Amaierako marjina gordina 14.989,29 eurokoa izan da; 15.000,00 euro zeuden aurreikusita.

Dendan eta liburu-dendan 3.540,83 euroko salmentak izan dira; 8.000 euro zeuden aurreikusita.

Azkenik, Beste diru-sarrera batzuk epigrafean zenbait kontzeptu biltzen dira: hainbat erakunderi fakturatutako diru-sarrerak Museoaren Zuzendariak ikastaro eta hitzaldietan parte hartzeagatik, aseguruari loturiko kalte-ordainak eta Fundazioak jasandako gastuak lizitazio publikoen esleipendunei egozteari dagokiona. 2023an 12.374,25 euro lortu dira interes finantzarioen kontzeptuaren barruan, Fundazioak hainbat banku-erakundetan dituen banku-kontuetan izandako ordainsariengatik.

Azken batean, atal honetan 131.933,45 euroko sarrerak izan dira; 22.835,45 euroko desbideratze positiboa izan du aurreikusitako aurrekontuari dagokionez (109.098,00 €).

B4. EKITALDIKO SOBERAKINERA ERAMANDAKO KAPITALEKO DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Ekitaldiko amortizazioen zuzkiduren zenbatekoa eta Ibilgetuaren narriadura eta besterentzeen partidaren batura 1.650.458,25 eurokoa da, eta bat dator ekitaldiko soberakinera eramandako dirulaguntzen zenbatekoarekin.

Azalpena 5., 8., 17.8., 17.9., 21. eta 37.2. oharretan dago, agiri honetako A3 atalean.

FUNTS-ERAGIKETAK

B5. USTIAPENENKO JARDUERETAKO ESKUDIRUAREN FLUXUAK:

Funtzionamendu-kapitalak 81.886,60 euro egin du behera. Hona hemen kapital horren xehetasuna:

Saldoa	2022.12.31	2023.12.31	Desbideratzea
Zordunak	403.145,66	453.575,74	50.430,08
Epe laburrerako finantza-inbertsioak	50,00	50,00	0,00
Epe laburrerako periodikatzak	17.714,30	32.474,88	14.760,58
Negatiboa, epe laburrerako zorrak	-8.028,52	-11.401,28	-3.372,76
Negatiboa, epe laburrerako hartzekodunak	-559.709,82	-703.414,32	-143.704,50
Negatiboa, epe laburrerako periodifikatzak	-26.807,00	-26.807,00	0,00
Guztira	-173.635,38	-255.521,98	-81.886,60

Arabako Artium Fundazioaren maniobra-funtsa, 2023ko abenduaren 31n, 186.337,41 eurokoa da (230.179,25 € izan zen 2022an); 43.841,84 euroko igoera izan du.

Saldoa	31.12.2022	31.12.2023	Desbideratzea
Funtzionamendu-kapitala	-173.635,38	-255.521,98	-81.886,60
Izakinak	85.788,06	87.103,23	1.315,17
Diruzaintza	318.026,57	354.756,16	36.729,59
Maniobra-funtsa	230.179,25	186.337,41	-43.841,84

2023ko abenduaren 31n amaitutako urteko kontuak 98 orrialdeko dokumentu honetan daude eratuta.

ARABAKO ARTIUM FUNDAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEA

Sin.: Ana del Val Sancho
PRESIDENTEA

Sin.: Itziar Gonzalo de Zuazo
BATZORDEKIDEA

Sin.: Andoni Iturbe Amorebieta
BATZORDEKIDEA

Sin.: Sonia Díaz de Corcuera Ruiz de Oña
BATZORDEKIDEA

Sin.: Iñigo Recio Álvarez
BATZORDEKIDEA

Sin.: Susana Guede Arana
IDAZKARIA